


PIARRES LARZABAL

IRU ZIREN



AUSPOA LIBURUTEGIA

IRU ZIREN

AUSPOA LIBURUTEGIA

- 14 -

COLECCION AUSPOA

Administración: Plaza de Santa María 2 - Tolosa

Dirección literaria: Rdo. P. Antonio Zavala S. J.

**Colegio de San Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)**

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 200 peseta.

Atzerrian: 275 peseta

Ongilleak: 350 »

Ale bakarra: 25 »

PIARRES LARZABAL

IRU ZIREN

Lapurdiko ta Gipuzkoako euskeraz

(Gipuzkoakoa M. Lekuona apaiz jaunak egiña)

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 997—1962
N.º DE REGISTRO 2997—1962

IMPRESO EN LOS TALLERES TIPOGRAFICOS «ICHAROPENA»
ZARAUZ (GUIPUZCOA-ESPAÑA)

ARKIBIDEA

	<u>Orr- aldia</u>
Aintzin-solas	9
Banaketa	11
Lenengo gertaldia	12
Bigarren gertaldia	48
Irugarren gertaldia	78
Laugarren gertaldia	98
Bostgarren gertaldia	120

AINTZIN - SOLAS

Larzabal jaun aphezak idatzi du "Iru ziren" ikusgailu hau 1957-garren urthean.

Urthe berean eman zuten Ezpeletan eta Donibane-Garazin.

Huna nolaz hasi zen buru-lan huni:

Eskual-Herrian, urthe heietan, bazen asko solas eta kalapita ere, batzu Ameriketarat joaitarren alde, bertze batzu kontra.

Gizon gazte batzu jin zitzaizkon Larzabal jaunari galdatzerat, ean ez zuen antzerki bat atheratuko gai hortaz...

Baletz ba... eta lotu zen lanari, Ameriketan ibili gizon batzuekin maiz gurutzatuz, hango moldez hobeki argitzeko.

Bere ikus-moldea du ikusgailu huntaz agertu.

P. Larzabal

LAGUNAK:

Benat
Terex
Mentaberry
Pantxo
Anton
Pierra
Nani
Karmen
Elena
Battitta
Margarita
Karolina
Hotelero
Benita
Gabriela
Letxero
Rantxero
Bakero
Moro
Indianoa
Kanpero
Leon
Joseph

Benat
Terexa
Bentaberri
Pantxo
Anton
Pierra
Nani
Karmen
Elena
Batista
Margarita
Karolina
Ostalaria
Benita
Gabriela
Letxero
Rantxero
Bakero
Beltza
Indioa
Kanpero
Leon
Jose

LEHEN GERTALDIA

JOKA-LEKHUA.—Donibane Garaziko ostatu baten aintzina, zenbait mahain eta kaderekin.

I

BENAT - TEREX

BENAT. (Edaten ari).—*Egun, nik uste, ez gira biziki buruz-buru egotten ahalko.*

TEREX (Zerbitzaria) *Egun, hemengo plaza besta! Beldurtzeko da ithoak izanen girela!*

BENAT.—*Orai dugu sinadura... Mentaberry Amerikanoa ixtantian hemen izanen da.*

TEREX.—*Zure lau lagunak bethi hitz beretan direa Ameriketarat joateko?*

BENAT.—*Ez... Biek karrik egin daukute.*

TEREX.—*Nor eta nor gelditzen zirezte?*

BENAT.—*Gelditzen gira: Garajako Anton, Etzebesteko Pantxo eta ni. (Ixtant bat ixilik dagotzi.) Bortz urthe, Terex,... Gehienik sei, eta. Jainkoak nahi badu, berritz hemen izanen gira buruz-buru...*

TEREX.—*Luze izanen da.*

LENENGO GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—*Donibane Garazi-ko ostatu baten sarrera. Mai batzuek eta alki.*

I

BENAT eta TEREKA

BENAT (*Edaten ari*).—Gaur, nik uste, ez degu elkarrekin nai bezela egoterik izango.

TEREKA (*Serbitzaria*).—Gaur, emengo jayak. Bildur izateko da, lanez leporaño ibilliko gerala.

BENAT.—Orain degu izen eman bearra. Lais-ter degu emen Bentaberry amerikanoa.

TEREKA.—Zure lau lagunak beti itz berean al daude, Ameriketara joateko?

BENAT.—Ez, birek porrot egin digute.

TEREKA.—Nor ta nor gelditzen zerate?

BENAT.—Gelditzen gera, Garajeko Anton, Etxebeste'ko Pantxo, eta ni... (*Une bat ixilik daude.*) Bost urte, Terexa,... Geyenez sei; eta, Jainkoak nai badu, berriz ere emen izango gera buruz-buru elkarrekin.

TEREKA.—Luze izango da.

BENAT.—*Halere iduritzen zaut irauenen dugula... Maiz maiza elgarri izkiriatur... Nik ez zitut utziko, zuk ez banuzu uzten.*

TEREX.—*Nik ere ez zu. (Ixtant bat ixilik).*

BENAT.—*Nehori aipatu duzia gure arteko sekretua?*

TEREX.—*Ez... Nehori... Zuk?*

BENAT.—*Nik ere neheri... Nork zer behar du!*

Denbora jitearekin, aski goiz izanen da denek ikas dezaten.

TEREX.—*Uzten zitut... Barnekoen zerbitzazterat joaten niz. (Jalitzen da.)*

BENAT.—*Heldu niz ba ni ere. (Ixtant bat bakarrik dago, gogoetatua... Edan eta sartzen da.)*

TEREX. (*Berritz agertuz, mahaina altxatzen du, nigar bat xukatzen.*)

II

MENTABERRY, TEREX

MENTABERRY.—*Agur, anderea!... Mahain hau okupatzen ahal duta?*

TEREX.—*Zerendako ez? Lehen jartzen denarena da.*

MENTABERRY.—*Ba, erran nahi dut, izkirio lan batzuetan artzeko, zuretzat irabazirik gabe...*

TEREX.—*Ba, ba, libraq da,... Nahi duzun bezanbat hortaz baliatzen ahal zira.*

MENTABERRY.—*Bon... ontsa da... Boo... Ekatzu halere boka bat.*

TEREX.—*Ontsa da.*

MENTABERRY. (*Bere paperak larruzko zaku eder batetik jalitzen ditu.*)

BENAT.—Ala ere iduritzen zait iraungo degula... Sarri-sarri elkarri eskribituaz... Nik etzaitut utziko, zuk uzten ez banazu.

TEREXA.—Nik ere ez zu. (*Une bat ixilik.*)

BENAT.—Iñori esan al diozu gure arteko sekretua?

TEREXA.—Nik ez iñori... Zuk?

BENAT.—Nik ere ez... Nori ajola zayo? Garaya datorrenean ere, goiz asko izango da danok jakin dezaten...

TEREXA.—Uzten zaitut... Barrukoak serbitzera noa. (*Irteten da.*)

BENAT.—Banoa ni ere. (*Pixka batean baka-rrik, gogoetatsu. Gero, edan eta irteten da.*)

TEREXA.—(*Berriz ere, agertuaz, maya altxatzen du, malko bat txukatuz.*)

II

BENTABERRI eta TEREXA

BENTABERRI.—Agur, andretxo! Mai au artu al dezaket?

TEREXA.—Zergatik ez bada? Lenengo artzen duanarena da.

BENTABERRI.—Bai, esan nai nuan, alegia, ixkribitzen aritzeko, zuretzat irabazirik gabe...

TEREXA.—Bai, bai. Libre da... Nai dezun aibat ari zifnezke.

BENTABERRI.—Ondo da, ondo da... Ekatzu orain zerbeza bat.

TEREXA.—Ondo da.

BENTABERRI.—(*Larruzko kartera eder batetik bere paperak ateratzen ditu.*)

TEREX. (Zerbitzatzen du.)

MENTABERRY.—*Milesker!... Zu, hemengo alaba zira?*

TEREX.—*Ba jauna, hala niz!*

MENTABERRY.—*Zuen aita, denboraz, Ameriketarat joan aintzin, ezagutu dut. Hil omen zen.*

TEREX.—*Ba... Hila da.*

MENTABERRY.—*Zonbat haurride zirezte?*

TEREX.—*Hiru... Bi anaia eta ni!*

MENTABERRY.—*Eta zer duzu? ostatua zuk segitzen?*

TEREX.—*Segitu nahi nuke... Anaiari beren partea egiten ahal badiotet segurik.*

MENTABERRY. (Irriz).—*Egiten diozute, eginen diozute... Seriosa baitzira! Karatik seinale duzu!... Zuk bilduko duzu oraino senhar balios bat, ostatu huntarik hotel bat muntatuko baituzie!*

TEREX. (Irriz) *Agian ba!*

III

PIERRA ETA NANI DANTZARI BEZTI AGERTZEN DIRA

NANI.—*Errazu, Terexa; ekartzu othoi hunar rat orhatz eta aria... Bonetako xingola urhatu zaio dantzari huni, eta behar ginioke josi.*

TEREX.—*Ekartzen segidan! (Jalitzen da).*

MENTABERRY. (Bi muthileri) *Non ditutzie dantzak?*

PIERRA.—*Pilota plazan, partida denboran.*

MENTABERRY.—*Ontsa duk... Usaia zaharrak segitzen ditutzie!*

PIERRA.—*To... Horra Elena eta Karmen!...*

TEREXA.—(Serbitzen du.)

BENTABERRI.—Milla esker!... Zu, emengo alaba al zera?

TEREXA.—Bai, jauna; ala naiz.

BENTABERRI.—Zuen aita, aspaldi batean, Ameriketara joan baño len, ezagutu nuan. Il omenzan?

TEREXA.—Bai,... illa da.

BENTABERRI.—Zenbat senide zerate?

TEREXA.—Iru: anal bi eta ni.

BENTABERRI.—Eta ostatua, zuk segitzeko?

TEREXA.—Segitu nai nuke... Anai biei beren parte osatu al banezaye beintzat.

BENTABERRI (*Parrez*).—Osatuko diezu, osatuko diezu... Zintzoa zera. Aurpegian ezagun dezu... Zuk eskuratuko dezu oraindik senar jator bat, eta orain ostatu dana, laister dezute Hotel.

TEREXA (*Parrez*).—Agidanean. (Agian.)

III

BENTABERRI, TEREXA, PIERRA ta NANI;
ELENA ta KARMEN

(*Pierra eta Nani dantzari jantzian agertzen dira.*)

NANI.—Aizu, Terexa: ekatzu onera jost-orratza ta aria. Txapeleko morla askatu zayo dantzari oni, eta josi bearko diogu.

TEREXA.—Berealaxe. (*Irteten da.*)

BENTABERRI (*Bi mutilleri.*)—Nun dituzute dantzak?

PIERRA.—Pelota-plazan, partidu artean.

BENTABERRI.—Ondo zegok! Oitura zaarrai eusten diezute!

PIERRA.—To! Ara Elena ta Karmen. Oye-

Horiek eginen die jostura. (Elena eta Karmen agertzen dire.)

ELENA.—Zer nahi duzie?

TEREK. (Agertuz).—Huna orhatz eta haria!... Nahi duzia nik jos dezadan?

PIERRA.—Ez... Milesker!... Eginen dauku Elenak... Elena, othoi xingola hau joso zu bo-neta huni!...

ELENA.—Gizonak, bethi emazteen beharretan! (Mentaberriri) Zer ditutzu, Mentaberry jauna, bi muthil hauk Ameriketarat bildugo?

MENTABERRY.—Zerendako ez?... Nahi badute joan...

KARMEN.—Hola segituz, hemengo muthil gu-ziak joanen ditutzu, eta gu geldituko gira mut-zurdin!

MENTABERRY.—Joaiten ditut, bainan frango ere gibelerat itzultzen... Bonetetan joaiten eta, zuen plazerrarentzat, xapeletan gibelerat itzul-tzen... Eta zuek, muthikoak, ez ziztea delibe-ratzen?

PIERRA.—Lehenik, soldadokoak egin ditza-gun. Gero ikusiko!

MENTABERRY.—Ni ere zuen adinian, hol'hola ninduan... Geroztik egin diat bide, eta ez diat urrikirik!... Zozokeria duk gazte bat hemengo xuhurrerian bizitza, Ameriketarat joanez, ahurra urrhez bete dezakelarik.

PIERRA.—Ez da errana, ez dugula guk ere holako zer bait alderdi hartu beharko! Gure etxetan, ez dute gure beharrik... Badira gu bai-no lehenagokoak!...

MENTABERRY.—Joaitekotz, aski goiz hobe dik deliberatzia... Sinhets nezazue ni!... Eta deli-beratzen bazirezte, ez kexa piai eta gainerate-koaz... Eni aski duzie hitz bat salatzea!... Behar diren paper guziez kargatuko nuk!...

txek egingo ditek joste-lana. (*Elena ta Karmen agertzen dira.*)

ELENA.—Zer nai dezute?

TEREXA (*Agertuaz*).—Ona jost-orratza eta aria. Nai al dezute nik jostea?

PIERRA.—Ez; milla esker! Elenak egingo digu... Elena: mesedez morla au josiyozu txapel oni.

ELENA.—Gizonak beti emakumeen bearrean! (*Bentaberriri*) Zer degu, Bentaberri jauna? Bi mutil oyek Ameriketara eramango ote dituzun edo?

BENTABERRI.—Zergatik ez? Joan nai badute...

KARMEN.—Ola jarraituaz, emengo mutil guziak eramango dituzu, eta guk neskazar gelditu bear...

BENTABERRI.—Asko joaten dira, bañan baita berriz etorri ere... Txapeldun joan, eta sonbroadun etorri, neskaxen zoragarri... (*Mutillai*) Eta zuek, mutillak, ez al zerate berotzen joateko?

PIERRA.—Soldaduzka egin dezagun beintzat lenengo; eta gero ikusi bear.

BENTABERRI.—Ni ere zuen urteetan, olaxe arkitu ninduan... Geroztik egin diat biderik asko, eta ez diat damurik... Zozokeria dek, gazte bat emengo xurkerian bizitzea, Ameriketara joanda eskua urrez bete dezakealarik.

PIERRA.—Orrek ez du esan nai, guk ere gaur edo bigar olako bideren bat artuko ez degunik. Gure etxeetan ez dago gure bearrik. Badago lenagokorik.

BENTABERRI.—Joatekotan, obe dek lenballen erabakitzea... Sinista nazazute. Eta erabakitzen badezute, biajea eta gañerakoak nere kontu. Asko dezute neri itz bat esatea. Bear diran paper guztiak egingo dizkizutet.

KARMEN.—Neskato gazteentzat ez duzia em-
plegurik Ameriketan?

MENTABERRY.—Berdin... Nahi baduzie jin, ba-
dira "Ranchero" nausi eder batzu, oroz gaine-
tik, eskualdun alabak nahi baitituzte emazte-
tzat...

KARMEN. Igort-uzkitzu "Ranchero" hetarik
zonbait hunarat. Ahatik, ez gero ileak sobera
zuritu ondoan.

MENTABERRY.—Jiten dira, jiten hetarik ere
hunarat!... Ni ere hala jin nintzen.

KARMEN.—Abisa gitzazu bat edo beste emaz-
teketarat abiatzen delarik eskualde hautarat.

MENTABERRY. (Irriz).—Ez duzie nik abisatu
beharririk!... Holako berriak hedatzen dira nes-
kato gazteen artean, elizako zeinuez barreituak
bailire baino fiteago... Ez niz beldur, jakin es-
kasian, damurik ukhanen duziela.

KARMEN.—Nor ditutzu, oraiko aldian, joaiten
Ameriketarat?

MENTABERRY.—Ixtantean, sinaduraren emai-
terat, esperantza ditut hiru muthil gazte segur
ezagutzen ditutzienak.

KARMEN.—Nor?... Ean?...

MENTABERRY.—Bat... Garajako Anton.

KARMEN.—Te... Anton urgulutsi hori!... En-
tzuna nuen, osaba batek, haurrik ez duela han
eta, bere segida utzi nahi diola... Segurki da-
gola han!...

MENTABERRY.—Ez da naski hemen ontsa iku-
sia?

KARMEN.—Nork ikusiko du ontsa, duen ka-
raterarekin?... Errea, bethi esker gaxtoa prest,
eta dena ni, ba, segurki ezagutua da... Otobu-
sako usaia dutenetan guti ikusiko duzu horren

KARMEN.—Neskatxa gazteentzat ez al dezu nun sarturik Ameriketan?

BENTABERRI.—Berdin zuentzat ere. Etorri nai badezute, badira an “ranchero” nagusi dotore askoak, guztien gañetik euskaldun alabak emaztetarako nai dituztenak.

KARMEN.—Bidali ezazu onuntz “ranchero” oyetatik bat edo beste... Bañan ez illea zurituta gero.

BENTABERRI.—Etortzen dira, etortzen onera, olakoetatik zenbait. Ni ere olaxe etorri nintzan.

KARMEN.—Ea, bada, abisu ematen diguzun guri ere, olakoren bat andre billa andik onuntz bideratzen danean.

BENTABERRI (*Parrez*).—Ez dezute nik abisatu bearrik!... Olako berriak azkar zabaltzen dira neska gazteen artean, elizako kanpayaz adieraziak balira baño azkarrago. Ez naiz bildur, jakin gabez iñork damu izango duan.

KARMEN.—Nortzuek dituzu, oraingoan daramazkizunak?

BENTABERRI.—Laister etortzekoak ditut, izena ematera, iru mutil gazte, seguru asko eza gutzen dituzunak.

KARMEN.—Ea?... Nor?

BENTABERRI.—Bat... Garajeko Anton.

KARMEN.—To!... Anton arro-putz ori?... Entzuna nuan, bai, ango osaba batek aurrik ez duala eta, bere oñordeko bezela utzi nai duala... Dagola an...

BENTABERRI.—Zer? Ez al da emen ondo begiratua?

KARMEN.—Nork begiratuko dio bada ondo, duan jenioarekin?... Errea, beti esker gaiztoa ezpañean, eta dana “ni”, oso ezaguna da... Autobusetan ibiltzeko oitura dutenetan iñor gu-

alde mintzatuko denik... Eta bertze biak nor dira?

MENTABERRY.—Bertzea, Etzebesteko Frantzua.

KARMEN.—Frantzua, Frantzua!... (Elenari) Nor dun hori, no?

ELENA.—Ez dakin? Kapillunbordako Martzelinarekin ibiltzen baitun?...

KARMEN.—Ha, Pantxo!... Ba, aise ezagutzen dut... Bai, hori ere joaiten ahal da Ameriketarat!... Muthil neskatarari alfer bat da hori!... Orai duen hori, laugarrena du segurik... Erran, eta fama dun, Martzelina esperantzetan eman duela!... Segur nun hartako joaiten dela Ameriketarat... Bixtatik ihesi... No, ontsa dun, Martzelinaren amak, Margarita buhamisak arrapatzen badu.

MENTABERRY.—Zointakoa da Martzelina hori?

KARMEN.—Ba, horren ama, segur ezagutzen dukezu ba... Margarita Harritaldeko buhame-tarik, emazte larri bat, bethi zare bat besoan... Ha, beraz Pantxo Ameriketarat!... Te, te, te!... Eta, hirugarrena nor da?

MENTABERRY.—Hirugarrena, Agerreko Bernard.

KARMEN.—Ha, Beñat... Hori ba... Hori muthiko seriosa da... Langilea eta laketa... Hori pena da hemendik joitea...

ELENA (Boneta emanaz).—Ori zure boneta... Ean ikus nola duzun!... Arra ontsa duzu!... Gaitzeko arrakasta ukhanen duzu!...

PIERRA.—Bon... orhatz eta haria behar ditut itzuli... (Neskatxeri) Ale... Heldu zireztea zer-bait edaterat?

KARMEN.—Ez... Milesker... Ez gira egarri!...

txi ikusiko dezu orren alde mintzatuko danik...
Eta beste biak nortzuek dira?

BENTABERRI.—Bestea, Etxebeste-ko Praisko.

KARMEN.—Praisko, Praisko... (*Elenari*) Nor den ori? aizan!

ELENA.—Ez al dakin? Kapillunborda'ko Martzelinarekin ibiltzen dana.

KARMEN.—Ah? Pantxo! Bai; ondo ezagutzen det... Bai; ori ere joan leike Ameriketara. Mutil neska-zale alfer bat da ori... Orain duan ori, laugarrena du... Aizan eta, jendeak esan ere bazionen, Martzelina esperoan ipiñi duala ere... Seguru asko orregatik zitxean ori Ameriketara: ñoren aurretik igesi. No! ondo zegoen, Martzelinaren amak, Margarita ijitoak arrapatzen badu...

BENTABERRI.—Zeintakoa da Martzelina ori?

KARMEN.—Ba, orren ama seguru asko ezagutzen dezu. Margarita, Arritalde'ko ijitoetakoa, emakume aundi bat, beti bere otarratxoa besoan... Ah! beraz Pantxo Ameriketara? Ta, ta, ta!... Eta irugarrena nor da?

BENTABERRI.—Irugarrena, Agerre'ko Benat.

KARMEN.—Ah, Benat,... Ori bai, mutil jatorra da. Langillea eta patxarakoa... Ori, pena da emendik joatea.

ELENA (*Txapela emanaz*).—Tori zure txapela. Ea nola dezun? Oso ondo dezu... Begiratzailerik izango dezu gaur.

PIERRA.—Baiki! Orratza ta aria eman bear-ko dizkiot jabeari. (*Neskatxeri*) Tira! atozte zerbait edatera?

KARMEN.—Ez... milla esker! Ez gera egarri.

PIERRA (Naniri).—*Haugi huarat!... Zerbait behar diagu hartu pagamentzat. (Jalitzen dira.)*

KARMEN (Mentaberriri).—*Gu ere, johan gira, zombait "ranchero" hor gaindi aurkhituko othe dugun!*

MENTABERRY.—*Ontsa, ontsa... Domaia da ez baititut 30 urthe gutiago!*

KARMEN (Irriz).—*Zuk, gogoz, hitzez... Eta guk... obraz. Sofri hor!*

MENTABERRY (Ixtant bat bakarrik, paperak itzulikatuz.)

IV

BATTITTA, MENTABERRY, PANTXO

BATTITTA (Hurbiltzen da, idor).—*Agur, jaun Mentaberry!*

MENTABERRY.—*Agur, agur!*

BATTITTA.—*Fama entzuna dut, gure muthikoa, Ameriketarat joiteko, zurekin solasetan abiatua dela!*

MENTABERRY.—*Nor zitut zu?*

BATTITTA.—*Etxebesteko Battitta!... Pantxoren aita.*

MENTABERRY.—*Egia da... Haren beha nago... Oraindik jina behar luke, azken sinaduren emaiterat.*

BATTITTA.—*Bon... Hortan gira beraz. (Gogoe-tatua)... Debru zirzila!... Etxean phitsik salatu gabe!... Mesfidatua nintzen ba!... Baitu, zombait eta zombait egun ere, etxeko laneri tiro emana diotela... Eta, noiz du partiada?*

MENTABERRY.—*Laster... Zortzi, hamar egunen buruan!*

BATTITTA.—*Zirzila, alain zirzila!... Bainan, ez da dena haren falta... Pusatzaleen falta ere bada!*

PIERRA (*Naniri*).—Ator ona! Zerbait artu bear diagu saritzat. (*Irteten dira.*)

KARMEN (*Bentaberriri*).—Guk ere joan bear degu, ea alako “rancheroren” bat or nunbait arkitzen ote degun.

BENTABERRI.—Lastima, ogei ta amar urte gutxiago ez izatea!

KARMEN (*Parrez*).—Sufri or!... zuk itzez, guk benetan.

BENTABERRI.—(*Une batean, bera bakarrik, paperak biltzen.*)

IV

BATISTA, BENTABERRI, PANTXO

BATISTA (*Sartzen da; legor*).—Agur, jaun Bentaberri!

BENTABERRI.—Agur, agur!

BATISTA.—Entzun det, gure mutilla, Ameriketara joateko zurekin izketan dabillela.

BENTABERRI.—Nor zaitut zu?

BATISTA.—Etxebesteko Batista, Pantxoren aita.

BENTABERRI.—Egia da. Ari itxedoten nago. Onuzkero etorria bear zuan, azkeneko izen-ematera.

BATISTA.—Ondo da. Ortan gera beraz? (*Asarre*) Demonio zirtzilla! Etxean itzik ere esan gabe... Banengoan, bai, ni. Badira zenbait egun, etxeko lanari tiro bat emanda dabillela... Eta noiz du, ba, irteera?

BENTABERRI.—Laister oraintxe; zortzi-amar egun barru.

BATISTA.—Zirtzilla, alain zirtzilla! Bañan ez da dena aren falta; bultzatzalleen falta ere bada!

MENTABERRY.—*Pusatzaleak baditia?*

BATTITTA (Idorki).—*Bai... Baditu... Eta, zu lehena!*

(Kalapitan mintza ditela)

MENTABERRY.—*Nik zer falta dut? Ez nuen ezagutzen ere!... Bera jin da niganat.*

BATTITTA.—*Ba... Zu eta zu bezelakoek dituzte hemengo gazteak Ameriketarat tentatzen!... Mentaberry, zure lana trixtea eta kaltekorra da...*

MENTABERRY.—*Nahi nuke jakin nola... Ez othe ditut nik hemengo gazteak laguntzen, bizi-pide berri batzuetarat gidatuz?*

BATTITTA.—*Ba, bainan gure etxeak, gazteriaz husten dituzu! Eta harat joan nahiak, etxe-ko lanetako gogoa galtzen diote.*

MENTABERRY.—*Amerikek, hemengo etxe gehiago altxatu dituzte, galdu dituzten baino!*

BATTITTA.—*Bethi Ameriketan erreusitu-eta itzuli direnak dituzte aiphatzen... Eta, hamarretarik bi itzuli direnentzat, zortzi ez baitire gehiago agertu. Gero, guk ere badakigu hango berri zombait.*

MENTABERRY.—*Ez ditut gazteak enganioz biltzen... Aintzinetik, elhez eta zinemaz ere, ahal bezen ontsa argitzen ditut hango harat hunatez... Handik ere hanitzek, or dituzte argitzale, ahaide eta adixkide.*

BATTITTA.—*Bai, hango biziaren eskualde ona, miraila garbian erakusten diozute... Bainan, miraila haren infrentzua erakusten diozueia?*

MENTABERRY.—*Zuk, kabala bat saltzean, kabalaren itzalak aiphatzen dituztia?... Zuk bezala egiten dut nik ere... Eroslearen da itzalen ikustea.*

BATTITTA.—*Hortan da zure makurra... Gazte*

BENTABERRI.—Bultzatzalleak ere bai al ditu?
BATISTA (*Legor*).—Bai. Baditu... Eta zu le-
nengoa.

(*Ixkanbillan mintzatzzen dira.*)

BENTABERRI.—Nik zer kulpa det? Ez nuan
ezagutzen ere. Bera etorri da nigana.

BENTABERRI.—Bada, zuk eta zu bezelako ba-
tzuek tentatzen dituzute emengo gazteak Ame-
riketarako. Bentaberri, zure lana, lan eskax
eta kaltegarria da.

BENTABERRI.—Jakin nai nuke nola. Ez al diet
nik emengo gazteak laguntzen, bizi-bide berri
batzuetara zuzenduaz?

BATISTA.—Bai, bañan ola gure etxeak gaz-
teez ustu egiten dituzu. Ara joateko kutiziz,
etxeko lanetarako gogo gabe gelditzen dira.

BENTABERRI.—Ameriketak emengo etxe geya-
go jaso ta obetu dituzte, galdu dituzten baño.

BATISTA.—Bai zuek beti Ameriketan gogaitu-
ta etorri diranak aipatzen dituzute. Bañan
amarretatik bi etorri diranentzat beste zor-
tziak ez bait-dira agertu. Guk ere, gero, ango
zerbait berri badakigu.

BENTABERRI.—Nik ez det inor engañatzen;
an zer-nola izango diran erakutsi bai, al bezin
ondo erakusten diet aurretik, itzez eta zinez
eta. Eta batek baño geyagok badituzte an ar-
gitzalleak, aideak eta adiskideak eta.

BATISTA.—Bai, ango bizitzearen alde ona ix-
pillu garbian erakusten diezute. Bañan ixpi-
lluaren alde gaiztoa erakusten al diezute?

BENTABERRI.—Zuk, zaldi bat saltzean, zaldia-
ren akatsak aipatzen al dizkiozu erostunari?...
Zuk bezela egiten det nik ere. Erostenari da-
gokio akatsak ikustea.

BATISTA.—Ortan dago zure makurreria. Gaz-

horien furiaz baliatzen baitzira, arhantzak gorde-eta, loreen bakarrik agertzeko!

MENTABERRY.—Iduri luke, zure erranetarik, Ameriketarat joatea, galtzea dela! Nahi dena galtzen da han ere, hemen bezala!...

BATTITTA. *Hum!*... (Kurri dabil, ixilik, eskuin eta ezker.)

PANTXO (Agertzen da.)

BATTITTA.—*Hor hiza?*... Amerikano batez aberastu behar omen diagu gure familian. Hire ait'amek zerbeiten jakiteko dretzoa ahal zitezian?

PANTXO.—*Paperak segurtatu-eta, errango nautzien!*...

BATTITTA.—*Eta, zer egingo duk Ameriketan? Zer uste duk?*... Dolarrek, sasitan martxutxek bezala, pusatzen dutela?... Hemen bezala, izerdiaren gustuz duk han ere, diru egitea!

MENTABERRY.—*Halere, han, hemen ez bezalako aisetasunik du, artzaingotik nahi badu diru egin!*

BATTITTA.—*Nun dauka hunek artzaingo ofizioa? Ez ditu egundaino gure etxeko ardi pezarrak bertzerik gobernatu-eta!*

MENTABERRY.—*Hori bera aski du!*... Gaineratekoen han laster eskolatuko dute... Ni ere egin ninduten!

BATTITTA.—*Ez bada hemen baino jarraikiago bere laneri, pleini dut hunen nausia!*

MENTABERRY.—*Ba, ez du ez, han hemen bezanbat besta eta okaxione izanen, lanari ihes egiteko!*... Bakarrik izanen da mendian!... Lana bera izanen du manari.

BATTITTA.—*Baditake...* Agian ontsa atherako da... Nahi dukana egin dezakek... Adinian bai hiz... Ahatik, hola plantatzen hizenaz geroz, ez zakala izan Etxebestean petrentzionerik...

te oyen zoroaz balliatzen zera zu, arantzak gorde eta loreak bakarrik agertzeko.

BENTABERRI.—Badirudi zure esanetatik, Ameriketara joatea galtzea dala. Nai duana galtzen da an ere, emen bezelaxe.

BATISTA.—Hum!... (*Ezin egon; ixilik, aruntz eta onuntz.*)

PANTXO.—(*Agertzen da.*)

BATISTA.—Or al intzan? Amerikano baten bitartez aberastu bear omen diagu gure etxean. Aitak eta amak zerbait jakiteko eskubidea izango genikan ba, noski?

PANTXO.—Paperak prestatu ta esango nizuten, bai.

BATISTA.—Eta zer egingo dek Ameriketan? Zer uste dek? Dolarrak, sasian, masustak bezela, txintxilik daudela? Emen bezelaxe, izerditan egiten dek an ere dirua.

BENTABERRI.—Ala ere, an, emen ez bezelako erreztasuna du, artzantzan naiko dirua egiteko.

BATISTA.—Nun dauka onek artzantzarako olturarik? Ez du sekulan etxeko ardi aleak besterik gobernatu ta!

BENTABERRI.—Orixe naikoa du. Gañerakoe-tan an bertan laister eskolatuko dute. Ni ere alaxen egin ninduten.

BATISTA.—Orratik, emen baño sayatuago ez bada lanean, erruki det onen nagusia.

BENTABERRI.—Bañan lanari iges egiteko ere emen baño festa eta egokiera gutxiago izango du an... Bakarrik biziko da mendian... Lana bera izango du eragintzalle.

BATISTA.—Baditeke. Agidanean (agian) ondo aterako da... Egin dezakek nai dekana. Badek edade... Bañan orla nai dekan ezkeru, utzi dezakek Etxebeste'n izateko ustea. Etxetik urru-

Urruntzen hizanaz geroz, arreba izanen duk ondoko.

PANTXO.—*Ene dretxoak uzten dazkot!*

BATTITTA.—*Ontsa duk... Ama ere hemen duk nunbait... Agian ez ditik etreko berriak bazterretik entzunen. (Urruntzen da.)*

MENTABERRY.—*Bon... Haugi hunarat... Huna paperak, prest presta... Hire sinadura die eskas! Aiphatu ginitian kondizioneak onhartzen badituk segurik... Irakurtu ahal dituk nik eman paperean?... To... Hiru sinadura emazkik... Bat, hemen!*

PANTXO (Presaki mintzo).—*Ba... onak izan ditela... Nik hemendik urrundu (nahi dut, urrundu norapeit lehenbailehen!*

MENTABERRY.—*Zer "onak izan ditela"?... Hire sinadura ez ahal duk itsurat emaiten? To bigarrena, hemen sina zak!*

PANTXO.—*Noiz da partiada?*

MENTABERRY.—*Zortzi, hamar egunen buruan... Azken xehetasunentzat, haugi hunarat igandean, hameketako.*

PANTXO.—*Lehenbailehen joaitia dut nik galdatzen!*

MENTABERRY.—*Joanen hiz, muthikoa, joanen hiz! Zer duk holako presa?... To, hirugarrena, hemen...*

PANTXO.—*Ba, lehenbailehen lekuen hustea!...*

MENTABERRY.—*Baietz... Lehenbailehen!*

V

MARGARITA, MENTABERRY, PANTXO,
KAROLINA

MARGARITA (Agertuz).—*Errazu, Mentaberry jauna, egia dea Ameriketarat joaiteko, zurekin*

ti uan ezkeru, arreba izango dek ango oñordeko.

PANTXO.—Bai, bai; arentzat nere eskubideak.

BATISTA.—Ondo zegok... Ama ere emen dek nunbait... Ez dizkik etxeko berriak auzotik jakin bear. (*Joaten da.*)

BENTABERRI.—Tira. Ator ona... Ona paperak, prest-prest. Ire firma falta ditek. Aipatu genituan kondizioak ontzat ematen badituk noski... Irakurri al dituk nik emandako paperan?... To... Iru firma bota bear dituk... Bat emen.

PANTXO (*Urduri, ta azkar itza*).—Bai... onak izan ditezela... Nik nai dedana da, emendik lenbailen urrutiratzea, norabait urrutiratzea, lenbailen norabait urrutiratzea.

BENTABERRI.—Zer gero "onak izan ditezela"? Firmak? Ez al dakik ondo egiten? To bigarrena, firma ezak emen.

PANTXO.—Noiz da joateko eguna?

BENTABERRI.—Zortzi-amar egun barru... Azken xeetasunak jakiteko, ator berriz ere igandean, amaiketarako.

PANTXO.—Lenbailen joatea eskatzen det nik, ez besterik.

BENTABERRI.—Joango aiz, motell, joango aiz. Zer dek, orren urduri egoteko?... To irugarrena, emen.

PANTXO.—Bai, lenbailen lekua ustutzea.

BENTABERRI.—Bayetz... Lenbailen!

V

MARGARITA, BENTABERRI, PANTXO, KAROLINA

MARGARITA (*Agertuaz*).—Aizu, Bentaberri jauna: egia al da, Ameriketara joateko, zure-

paperen egiten hasia dela Etxebesteko seme, Pantxo izena duen bat?

MENTABERRY.—*Hori, huna nun duzun!*

MARGARITA (Pantxori).—*Errak!... ni, Martzalinen ama nuk!... Bahakik zer duzien egi-na? Eta, bahakik beraz zer gelditzen zaukan egiteko!*

PANTXO.—*Nik ez dut phits ikustekorik Martzalinarekin!*

MARGARITA.—*Phitsik ez ikustekorik?... Zer duk?... Lan tzarra egin eta, ondoan ukhatzen?*

PANTXO.—*Zure alaba penetan bada, aski du pena egileari jazartzea eta ez eni!*

MARGARITA (Tira-hala).—*Zer dituk ele horiek?... purtzil ustela hi? zer dituk?... Hire obraz, bertzeak zikindu nahi?... Uste duka hortan kito hizala?... Haa! Errexegi lukek!... Mundu guziak jakinen dik hi nor hizen! Tribunalari, emanen baitzioiat parte... Eta zuk, Mentaberry jauna, orai beretik hunen paperak arrastatzen ahal dituzu, berdin nik arrastara-ziko baititut... Etxebesteko semea hizala-eta, Kapillunbordakoak zer dauzkak?... Hire zangoko erhauts?*

KAROLINA (Andere, esku batean "Revue de la Mode" agerkaria; preziatuki mintzo).—*Zer da?... Zer duzie hola kalapitan?*

MARGARITA.—*Ho, andere Karolina, ontsa jina zira... Zure semearekin ari nintzan!*

PANTXO.—*Ama, ez zozula kasurik egin!*

MARGARITA.—*Ba... zu eta ni, horren ganik amaxi behar baigira!*

KAROLINA.—*Ho... gazte ixtorioetan ni ez niz barna sartu nahi!*

MARGARITA.—*Hæ!... Ixtorio horietan ez sartu nahi!... Zure semeak hola ezarri balu jaun merraren alaba, sartu nahiko zinuken ba! Ala,*

kin paperak egiten asia dala Etxebeste'ko seme, Pantxo izena duan bat?

BENTABERRI.—Tori, ona nun dezun.

MARGARITA (*Pantxori*).—Aizak: ni Martzellaren ama nauk. Badakik zer dezuten egiña? Eta badakik, beraz, zer gelditzen zaikan egiteko.

PANTXO.—Nik ez det ezer ikustekorik Martzelinarekin.

MARGARITA.—Ezer ez ikustekorik? Zer?... Lan tzarra egin, eta gero ukatu?

PANTXO.—Zure alaba penetan bada, aski du pena-egilleari mintzatzea, eta ez neri.

MARGARITA (*Zorrotz*).—Zer dituk itz oyek? Purtzil ustela i! Zer? Ik egin eta besteak zikindu nai al dituk?... Uste al dek ortan kito aizela? Aah!... Errexegi ukek!... Mundu guziak jakingo dik i nor aizen. Tribunalari emanbait-diot parte... Eta zuk, Bentaberri jauna, orain bertatik urratzen al dituzu onen paperak; bestela nik urrateraziko ditut... Etxebeste-ko semea aizela ta, Kapillunborda-koak zertzat gaduzkak. Ire ankapeko auts?

KAROLINA (*Dotore, esku batean "Revue de la Mode"; txoro-mintzo*).—Zer da? Zer dezu ola ixkanbillan?

MARGARITA.—Oh, andre Karolina, ondo etorri zera... Zuen semearekin ari nintzan.

PANTXO.—Ama, etzayozula kasurik egin.

MARGARITA.—Zu eta ni orrengatik amon egin bearrak gera.

KAROLINA.—Oh!... Gazteen kontuetan nik ez det sartu nai.

MARGARITA.—Ah! Kontu oyetan ez sartu nai?... Zuen seme orrek alkate jaunaren alaba ola jarri balu, sartu naiko zenduan ba? Aztu

ahantzia duzia ene alabari gertatzen zaiona, zuri gertatu zauntzula!... Eta, kontesko izan zinela orduan, zure "ixtoriotan", zure ama sartu baitzen!

KAROLINA.—Ho... Ez dautzut errepustarik emaiten... Ez dut zikindu nahi!

MARGARITA.—Ez zikindu nahi! Ez duzu zikintze beharrik! Aski zikindua zira hol'hola. Zuen ohoreaz, hura galdu ondoan, zirezte orhoitzen... Ustel aphainduak, ziek!...

KAROLINA.—Othoi, bakea emazu zure elhe komun horiekin!

MARGARITA (Karolina imitatuz).—Bakea emazu... Bakea emazu... Ba, bakea emanen dautzut, andere Karolina... Sarri artio bederen... Tribunalak ideki artio balia zaite zure ohoreaz, ordu artio, an-de-re Ka-ro-li-na... (Urruntzen da.)

KAROLINA.—Ho... Zer jende itsusia hori!... Eta, sinatu duzia, Pantxo?

PANTXO.—Ba, ama, sinatu dut... Aita ere jinda!

KAROLINA.—Aita jin?... Eta, badakia Ameriketarat funtski ari zirela?

PANTXO.—Orai, denak badazki.

KAROLINA.—Nola hartu du berria?

PANTXO.—Hartu du!...

KAROLINA (Mentaberryri).—Ba, ene senharra pixka bat leheneko modakoa da... ez du batere konprenitzen gaztek behar dutela abusatu. Eta, bethi, muthiko horri, gerla egiten zion, sobera jalitzen zelakotz... Uste du bethi, duela 50 urthe bizi girela. Eta, hortakotz, muthikoak erakutsi dautalarik Ameriketarat joaiteko desira, gogotik erran diot: "Zaozi, haurra!... Han bederen bakea emanen dautzu!...

al zaizu gure alabari gertatzen zayona, zuri gertatu zitzaizula aspaldi batean? Eta pozik izan zifiala orduan, zure "kontuetan" zure ama sartu zalako.

KAROLINA.—Oh! Ez dizut erantzun nai. Ez nua nere burua zikintzera.

MARGARITA.—Ez zikindu nai, beraz? Ez dezu zikindu bearrik. Zikindu askoa zaude len ere. Zuen izen ona, galdu ondoren aundietsitzen dezute zuek. Ustelak... zuek!...

KAROLINA.—Mesedez, iguzu pakea izketa zikin oyekin!

MARGARITA (*Karolinarena egiñaz*).—Iguzu pakea... iguzu pakea... Bai, emango dizut pake, andre Karolina,... laister arte bederen... Tribunalala ideki artean, goxa zaite zuen izen on eder orretan, an-de-re Ka-ro-li-na. (*Joaten da.*)

KAROLINA.—Oh! zer nolako jendalla, ori!... Eta firmatu al dezu, Pantxo?

PANTXO.—Bai, ama; firmatu det... Aita ere etorri da.

KAROLINA.—Aita ere etorri dala?... Eta bai al daki ondo, Ameriketara zoazela?

PANTXO.—Bai, orain dana badaki.

KAROLINA.—Nola artu du berria?

PANTXO.—Artu du beintzat eta...

KAROLINA (*Bentaberriri*).—Badakizu, nere senarra pixka bat lengo moda zaarrekoa da... Ez du komprenditzen gazteak lasaixeago bizi bear dutenik... eta gure mutil oni beti errietan ari izan zayo, kalera geitxo ateratzen zalako... Uste du nunbait, orain berrogei ta amar urte bezela bizi gerala. Eta orregatik, mutillak Ameriketara joateko gogoia adierazi didanean, oso gogoz esan diot: "Zoaz, bei; an bederen pakea emango dizu".

MENTABERRY.—*Ba, segur aski urrun izanen baita hemengotarik!*

KAROLINA.—*Eta, gain gaisetik gomendatzen dautzut ene muthiko hau... Nahi nuke hunen nagusiari erraiten bazinio, othoi goxoki erabil dezan, bethi goxoki usatua baita. Eta, gain gaisetik, hotz beroak dituela partida.*

MENTABERRY.—*Segur eginen diot komixio-nea!*

KAROLINA.—*Eta? Noiz duzie partiada?*

MENTABERRY.—*Zortzi, hamar egunen burian!*

KAROLINA.—*Oas, zoin fite!... Zato, Pantxo,... Bideko erosi behar dautzut trikota pollit bat... Hura izanen duzu amaren orhoitzapena... Agur beraz, jaun Mentaberry! (Urruntzen dira.)*

MENTABERRY.—*Ba, jaun andereak (Bakarrik, paperetan okupatua.)*

Emazte hori ere, ttutta untzi zombait duk, nik uste... Eta semea, amatar naski. Ez dik horrek Ameriketarat joaitia beharrik galtzeko! (Irriz) Kaliforniako mendietan bakarrik izanen delarik, griñatuko duk to biziki horren nausia, horren hotz beroaz... To, huna Garajako Anton!

VI

ANTON, MENTABERRY

ANTON.—*Agur, jaun Mentaberry.*

MENTABERRY.—*Agur, Anton. Beraz heldu hiz, hi ere, sinaduraren emaiterat?*

ANTON (Karroli).—*Lehenik, baditut xehetasun zombait galdatzeko!*

MENTABERRY.—*Zer xehetasun?*

BENTABERRI.—Orixe beintzat bai; urruti izango bait-da emengoetatik.

KAROLINA.—Eta gauzatxo bat esan bear dizut zuri nere mutiko ontaz: onen nagusiari esan dezayozula, goxoki trata dezala, beti ere goxo oitua bait-da etxean. Eta guztien gañetik, otz-beroak dituala oso etsai.

BENTABERRI.—Esango diot, bai; nere gain.

KAROLINA.—Eta noiz dezute joateko eguna?

BENTABERRI.—Zortzi-ámar egunen buruan.

KAROLINA.—Jos!... Bai azkar! Atoz, Pantxo, biderako jersel polit bat erosi bear dizut. Ura xe izango dezu amaren oroigarri... Agur, beraz, jaun Bentaberri. (*Dijoaz*)

BENTABERRI.—Agur, bai, jaun-andreak. (*Bakarrik, paperetan naastua*) Emakume ori ere badek xoxo-ontxiren bat... Eta semea? Amatar jator, ori ere. Ez dik orrek Ameriketara joan bearrik galtzeko. (*Parrez*) Kaliforniako mendietan arkitzen danean, estutuko dek asko orren nagusia orren otz-beroaz... Ara!, orra nun datorren Garajeko Anton.

VI

ANTON, BENTABERRI

ANTON.—Agur, Bentaberri jauna.

BENTABERRI.—Agur, Anton. Eldu aiz, beraz, i ere firma ematera?

ANTON.—Bai; bañan lenago baditut zenbait xeetasun galdetzeko.

BENTABERRI.—Zer xeetasun gero?

ANTON.—Mesfidatzeko zutaz errana zautaten... Denboraz makiunkoan ikasi zinuela-eta... Han eta hemen ni ere alhatu niz... Nola daitake, eni bertzeari baino gehiago galdatzen duzula paperen egite sari?

MENTABERRY.—Zer? Hortan gituka?... Atzeman dituk, hik ere, buru berotzaleak!

ANTON.—Egia da edo ez da egia! Nor izanaren arauko sariak galdatzen dituzula?

MENTABERRY.—Lehenik, orhoit-adi huntaz: Ihaur jin hiz ene ganat!... Nitán konfientzia gehiago ez izaitekotz, aski huen bertzetarat joaitea, edo paperak ihaurek moldatzea.

ANTON.—Ba, hala egin behar nukela, kontseilariak izan ditut.

MENTABERRY.—Bon... Mintza gaiten gizonki... Zuen paperen egitetik ene irabazia baduala, bixtan duk... Ez ahal duk nehor lanean urririk ari!

ANTON.—Hori konprenitzen dut.

MENTABERRY.—Bertzalde, paperak ez dituk berdin hemengo batentzat, eta, mugaz hunarat pasaturik, Ameriketarat joaiten den Nabartar batentzat... Harek xaupide gehiago badik...

ANTON.—Nahi dut. Bainan, zertako ez dugu soma bera pagatzen hemen berekoek?

MENTABERRY.—Nahi duk jakin zerendako Pantzok eta Beñatek, hik baino merkeago duten ene lana? Huna zerendako!... Horiek biek Konpania batentzat artzain joaiteko sinatu die... Nik, Konpania horri, horien izenak fornituetan, kito izan nuk... Konpaniak berak egin ditik horientzat, behar ziren desmarxa guziak.

ANTON.—Zutaz ez geyegi fidatzeko esan izan didate... gaztedanik esku-jokuan maisu irtena zerala ta... Neronek ere, an eta emen, zer edo zer ikasi bait det... Nola diteke, besteri baño geyago neri kobratzea paperak egiteko sari?

BENTABERRI.—Zer? Ortan gaituk? Topatu dituk ik ere buru berotzalleak?

ANTON.—Egia da ala ez, paperak bakoitzari, bera nor dan, ala kobratzen dizkiozula, eta ez guztioi berdin?

BENTABERRI.—Lendabizi konturatu adi ontaz: eori etorri intzan nigana... Nigan konfiantzarik ez bauan, asko uan beste batengana joatea; edo ta paperak eorrek egitea.

ANTON.—Ba, ala egin bear nuala kontsejatzalleak izan ditut.

BENTABERRI.—Baiki! Ondo zegok. Mintza gaitezen gizonki. Zuen paperak egitetik zer edo zer irabazi bear dedala, begien bixtako gauza dek. Ikusi al dek inor debalde lanean?

ANTON.—Ez. Ori ala da.

BENTABERRI.—Gañera, paperak ez dituk berdin emengo batentzat eta mugaz beste aldeko batentzat, Ameriketara dijoan Napar batentzat kontuizak. Alakoak diru geyago eman bearra zeukatek.

ANTON.—Bai, ori bai. Bañan alde ontakoak geranok, zergatik ez degu danok berdin pagatzen?

BENTABERRI.—Tira ba: ik jakin nai ukek zergatik egiten diotan iri baño merkeago Pantxori eta Benati. Oyek biok Konpañia bateko artzai ziaztik. Eta nik Konpañia orri izenak eman besterik ez diat egin. Gañerako xeetasun guztiak Konpañiak berak egin dizkik. Beraz, oyeñ lana gutxi kosta zaidak... I, ordea,

Hortakotz, horien lana guti gosta zaitak. Aldiz hi, ihaurren kondu joaiten hiz, hire osabari buruz... Hortakotz, hiretzat ibili behar izan diat, kontsulana, minixterioan eta bertze asko tokitan, hor gaindi... Horra zertako, hire pa-perak gehiago gostatzen diren, lagunetak baino!... Bahiza orai?

ANTON.—*Paper botigak!... Zenbeit gizen-tzen da, horien medioz... Ekartzu hunarat sina ditzadan.*

MENTABERRY.—*Hala duk!... Bainan horiek gabe, phits ezin egin!... To, zina zak hemen... Eta horien biltzeko nor-nahi ez on... Bigarren sinadura emak hemen... Eta, biziak erakutsiko dauk eskuz-esku gizonekin bide hobeki egiten dela muthur-hauska baino... Eta, hirugarrena, hemen!...*

VII

**BENAT, MENTABERRY, KARMEN, ANTON,
TEREX, ELENA**

BENAT (Agertuz).—*Heup!*

MENTABERRY.—*To... Hor hiza, Benat,... Hi hintuan eskas... Pantxo izana duk jada sinatzen... Zortzi, hamar egunen buruan duzi partiada... Azken xehetasunendako, igandean, hemen berean, hameketan, elgar ikusiko diagu.*

ANTON.—*Ontsa da... Bon... Nik uzten ziuztet...*

MENTABERRY.—*Ba... Igande artio beraz... (Beñateri) Jar-adi hor! Eta?... Bethi hire hitzean hiza edo badituka kondizione zorbait, johan ez zaukenik?*

BENAT.—*Sinatzeko prest niz!*

MENTABERRY.—*Beraz, ados gituk! Ene lana pagatzen dautak! Konpainiak piaia pagatzen*

eorren kontura oa, ire osaba orrengana. Eta iretzat neronek egin bear izan dizkiat Kontsuladoko ta Ministerioko ta beste toki askotako lan guztiak. Orra nola dan ire paperak geyago kostatzea ayenak baño. Ikusten al dek?

ANTON.—Zorioneko paperak! Makiñatxo bat gizentzen da, paperak egiñez... Ekaitzu, onara, firmatu ditzadan.

BENTABERRI.—Ala dek, bai. Bañan paperarik gabe ezin egin pausorik... To, firma zak emen... Eta paperak egiteko ez izan gauza edozein... Bigarren firma, emen... Eta biziak erakutsiko dik, gizonakin eskuz-esku bidea obeto egiten dala, elkarrekin mutur-joka baño... Eta irugarrena, emen.

VII

BENAT, BENTABERRI, KARMEN, ANTON,
TEREXA, ELENA

BENAT (*Agertuaz*).—Heup!

BENTABERRI.—To, or al aiz, Benat?... I aiz urrengo. Pantxo izana dek firmatzen. Zortzi-amar egunen buruan dezute erteera... Azken xeetasunak egiteko, datorren igandean, emen bertan, amaiketari, alkar ikusiko diagu.

ANTON.—Ondo da... Tira... Ni banua.

BENTABERRI.—Bai. Igande arte, beraz. (*Benateri*) Jarri adi or. Eta? Ire itzean al ago? ala badek xeetasunen bat jakin bearrik?

BENAT.—Firmatzeko prest naiz.

BENTABERRI.—Beraz, konforme gaituk. Nere lana ordaintzen didak neri, eta Konpañiak bia-

dauk hemendik eta hoteleraino... Hotelerat heldu-eta lanari lotzen hiz, eta, hire lanetik, Konpainiari itzuliko piacaren saria.

BENAT.—Zer behar dut sinatu?

MENTABERRY.—To, hiru paper hauk sinaizkik... Hemen bat... Hik ba, hik eginen duk bide, osagarriak laguntzen bahu segurik... Hemen bi...

BENAT.—Agian ba... Ez luke balio bertzenaz hola urruntzea!

MENTABERRY.—Hemen hiru. (Paperak bilduz) Orat segidan, joan behar diat Baigorriat, eta handik Itsasurat... Ikusi behar ditiat, bertzeak beren hitzean direan. (Montrari behatuz) Oi! Berant aire nuk.

BENAT.—Zerbait hartu nahi duzia?

MENTABERRY.—Ez... Milesker... (Urruntzerat abiatzen da.) Te, te, te... Amerikano batekin ezkondu nahia, errabiatua den presuna gazte bat, baduk hemen... Nork zakik, denborarekin?... Ori, andere gaztea, hemen "ranchero" gei bat baduzu, zurekin gogotik konpainiatuko dena. (Jalitzen da.)

KARMEN (Agertuz).—Egia dea Ameriketarat joaiten zirela?

BENAT.—Egi egia!...Oraintzet sinatu dut.

KARMEN.—Ho!... Ez zautzia zerbait egiten, hola Eskual-Herriaren uztea?

BENAT.—Ez dut ez plazerrez utziko!

ANTON (Lehlo barnetik).—To, nik uste harekin hintzala-eta, hi neska hunekin!

KARMEN (Kexu).—Ez duk bertzerik erraiteko enetzat... Asto lilia, hi!

ANTON.—Eta?... Sinatu dazkok paperak?

BENAT.—Ba... Hik ere, omen!

ANTON.—Ba... Bainan, lehenik, jaun horri

jea pagatzen dik iri emendik eta ostaturafio...
Eta ostatura eltzen aizenean, lanean asiko
aiz... eta ire lanetik Konpañari ordainduko
diok biajearen saria.

BENAT.—Zer firmatu bear det?

BENTABERRI.—To. Firma itzak iru paper
auek... Emen bat... Ik bai, ik egingo dek bi-
de, osasunak laguntzen badik... Emen bigarre-
na...

BENAT.—Agidanean bai (agian bai). Bestela
beintzat ez luke merezi ain urruti joaterik.

BENTABERRI.—Emen irugarrena. (*Paperak
bilduaz*) Orain bereala, Baigorri-ra joan bear
diat, eta andik Itsasu-ra, ia besteak ere beren
itzetan diran. (*Erlojuari begira*) Oi! Berandu-
txo natxebillek.

BENAT.—Zerbait artu nai al dezu?

BENTABERRI.—Ez, milla esker!... (*Kanpora
abiatzen da.*) Et, et, et!... Badek emen, ameri-
kano batekin pozik ezkonduko litzaken inor
gazte bat... Nork zekik, denborarekin? Tira,
neskatxa gaztea: ona emen "ranchero"-gai bat,
zurekin pozik konponduko dana. (*Irteten da.*)

KARMEN (*Agertuz*).—Egia al da Ameriketara
zoazela?

BENAT.—Bai, egia. Oraintxe firmatu det.

KARMEN.—Oh! Ez al zaizu ezer egiten Eus-
kal-erria ola uztea?

BENAT.—Ez det, ez, pozik utziko!

ANTON (*Leyo-barrenetik*).—To! Arekin intza-
la uste nik eta, neska onekin?

KARMEN (*Asarre*).—Ez al dek neretzat beste
esatekorik? Asto-larrosa i!

ANTON.—Eta firmatu dizkiok paperak?

BENAT.—Bai... Ik ere noski?

ANTON.—Bai... Bañan lendabizi erakustera

erakusterat eman zioiat, bere solas eder guziak, diru biltzeko jukutria batzu dituela... Ez dezan bere burua, sobera apostolutzat har!

KARMEN (Bazterrerat mintzo).—*Zozo burua!... Iduri berak, denek baino gehiago jakin.*

BENAT.—*Nik ez nian arrazoinik haren miazteko.*

ANTON.—*Igandian, azken afari bat egin behar ginikek denek betan!*

BENAT.—*Ba, ni ere hortako niukek, bertzek nahi badie segurik!*

ANTON.—*Elgarrekin ikusiko diagu, igande goizean... Bon... Uzten ziuztet... (Gordetzen da.)*

BENAT.—*Ontsa duk.*

KARMEN.—*Segurki joan dadila bixtatik!... Zer muthil higuina hori!*

BENAT.—*Te, huna Terex! (Keinu egiten dio.)*

KARMEN.—*Ho, ez dakizu, Terex? Benat, Ameriketarat joaiten zauku!*

TEREX.—*Ha, baia?... Ori, pena da... (Mahaina xukatzen duela.)*

KARMEN.—*Ho, ba, pena da... Hoberen guziak urrun ari zauzkigu... (Benateri hurbiltzen zaiola.) Zure adreza igortzen badautazu, hemengo berriak emanen dauzkitzut... Maite nuke hango norbeitekin letraz gurutzatzea.*

BENAT.—*Ha, gairoa!... Utz nezazu lehenik harat heltzerat!*

KARMEN.—*Ez zira bethikotz joaiten? Itzuliko zira?*

BENAT.—*Hala dut esperantza.*

KARMEN (Ergelki).—*Hi, hi, hi,... Bitxi izanen zaut, zu xapeletan ikustea... Hi, hi, hi,... Sarri balean izanen zirea?*

eman zioat, bere berriketa eder guztiak, guri dirua ateratzeko manejuak besterik ez dituala, eta... ez dezala bere burua santu egin gure aurrean...

KARMEN (*Bazterrera mintzatuaz*).—Zozo alena! Usteko dik onek beste iñork baño geyago dakiala.

BENAT.—Nik ez nian arrazoirik, ura nolana mintzeko.

ANTON.—Igandean, azken afari bat egin bear genikek danok batean.

BENAT.—Bai; ni ere ortarako niok (natxeok), besteak nai badute.

ANTON.—Elkarrekin ikusiko diagu ori igande goizean. Eta onenbestez banitxeak. (*Izkutatzen da.*)

BENAT.—Ondo zegok.

KARMEN.—Joan dedilla begien aurretik!... Zer mutil iguingarria, ori!

BENAT.—Ara! Ona Terexa. (*Keñu egiten dio.*)

KARMEN.—Oh! Ez dakizu, Terexa? Benat Ameriketara dijoakigu!

TEREXA.—Eh? Bai ote? Pena litzake orratik, (*Maya txukatuz.*)

KARMEN.—Bai, pena da. Mutillik onenak joaten ari zaizkigu. (*Benat'i ondoratuaz*) Nun bizi zeran adierazten badidazu, emengo berriak nik bidaliko dizkizut. Atsegin nuke ango batekin kartaz artu-emanik izatea.

BENAT.—Ah, gaxoa! Utzi nazazu beintzat arañokoa egiten.

KARMEN.—Etzera noski betiko joango? Etorriko zera berriro...

BENAT.—Ala uste det beintzat.

KARMEN (*Ergelki*).—Hi, hi, hi! Poza izango det zu sonbreruakin ikustea... Hi, hi, hi! Lais-ter dantzara joango al zera?

BENAT.—Beharbada ba... Beharbada ez... Nola helduko naizen!

KARMEN.—Hi, hi, hi,... (Terexari) Badakit ba zuk zer pentsatzen duzun!

TEREX.—Zer pentsatzen othe dut?

KARMEN.—Mahain hau okupatuz geroz, behar ginukela zerbait hartu... Hi, hi, hi,...

TEREX.—Ez, ez,... Ez niz hortarik ari den gutienik ere.

ELENA (Agertuz).—Neska, nun hiz?... Mugi-adi!... Phesta hasten dun!... Gure tokiak galduko ditinau!...

KARMEN (Xutituz).—Heldu nun... Heldu nun... (Irri polit batekin) Sarri artio, Benat!

BENAT.—Ba, sarri artio!

KARMEN.—Ekharzu ba eskua, alo!

BENAT (Eskua tinkatuz).—Hori, hori... Sarri artio. (Karmen urruntzen da. Terexari tinkatuz) Ez zirea jeloz?

TEREX.—Ez, den gutienik ere... Ez baita hori on, bost urthez norbaiteri lehial egoiteko.

BENAT.—Bortz urthe!... Beharbada sei!... Luze izanen da... Agian gure amodioa bethi azkar egonen da.

TEREX.—Gure Jainkoak lagunduko gaitu... Nik, egun guziez, othoitz bat eginen diot zuretzat.

BENAT.—Ori... Idei bat emaiten dautazu... Ez niz othoitz egilea, bainan oherakoan, "Agur Maria" bat bederen eginen dut, nik ere zuretzat.

TEREX.—Hola, gure izpirituak, egun guziz gurutzatuko dire.

BENAT.—Eta, hola aphailatuz, ez zaut iduritzen, deusek barreiatuko duela gure amodioa.

OYHALA

BENAT.—Bearbada bai... bearbada ez... nola nabillen...

KARMEN.—Hi, hi, hi!... (*Terexari*) Badakidala zuk zer pentsatzen dezun?

TEREXA.—Zer pentsatzen ote det ba?

KARMEN.—Mai au artu degun ezkerro, zerbait artu bear gendukela. Hi, hi, hi!

TEREXA.—Ez, ba. Ezta alderatzeko ere.

ELENA (*Agertuaz*).—Neska, nun aiz? Abil azkar! Festa atera zitxean. Tokia galduko diñagu...

KARMEN (*Txutitzen da*).—Banitxean... Banitxean... (*Irri polit batekin*) Laister arte, Benat.

BENAT.—Bai, laister arte.

KARMEN.—Ekatzu, ba, bosteko ori, tira!

BENAT (*Eskua luzatuaz*).—Ori, ori,... (*Karmen kanpora dioa. Terexari.*) Ez al zera kezketan?

TEREXA.—Ezta bat ere... Ez bait-da ori on, bost urte iñori itxedoten egoteko.

BENAT.—Bost urte... Bear bada sei!... Luze izango da... Gu bion maitetasuna bizi egongo al da!

TEREXA.—Gure Jaungoikoak lagunduko gaitu... Nik egunero egingo diot otoitz bat zuretzat.

BENAT.—Ori, ori! Neri ere gogoia etortzen zait... Ez naiz oso otoitz egillea, bañan oyera koan "Agur Maria" bat bederen esango det nik zuretzat.

TEREXA.—Ola, gure gogoak egunero gurutetuko dira.

BENAT.—Eta ola indartuaz, ez naiz bildur gure maitetasuna makalduko dan.

OYALA

BIGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—Karliforniako ostatu barne bat. Hango puskak, hango beztidurak izan bite.

I

HOTELERO, BENAT, PANTXO

HOTELERO (Lanean ari kontuar gibelean... Ez du ikusten Benat sartzen... Hau jartzen da... Trixte da.)

Ha!... Hor haiz-eta! Pasaiatu zarezte pixka bat?

BENAT (Idorki).—*Sobera.*

HOTELERO.—*Sobera, sobera!*

BENAT (Kexu).—*Hamabortz egun badu hemen girela, eta ez dugu bertzerik egiten. Nahi nuke jakin zuk aipatu kanperoa noiz segur jinen den, gu hemendik mendirat joiteko... Ez gira gu Roschild, hola hemen, bi besoak gurutzaturik bizitzeko.*

HOTELERO.—*Errak, errak,... Ez ahal zarezte malurus... Jana, edana eta loa izanez geroz, zer behar duzue gehiago?*

BIGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—*Kaliforniako ostatu-barru bat. Ango puskak, ango jazkerak.*

I

OSTALARIA, BENAT, PANTXO

OSTALARIA.—*(Lanean ari da mostradore atzean... Ez du ikusten Benat sartzen. Benat exertzen da. Triste dago.)*

Ah! Or aiz eta!... Ibilli al zerate pixkaren bat?

BENAT (*Legor*).—Sobra.

OSTALARIA.—Sobra, sobra...

BENAT (*Aserre*).—Amabost egun badira emen generala, eta ez degu besterik ezer egiten. Jakin nai nuke noiz etorriko dan, zuk aipatu diguzun *kanpero* ori, gu emendik mendira joan gaitezen. Gu ez gera Roschild, emen bi besoak tolesturik bizi izateko.

OSTALARIA.—Aizak, aizak; ez al zerate gaizki! Jana ta edana ta loa badezute beintzat eta, zer bear dezute geyago?

BENAT.—*Ez gira hunarat zor egiterat jinak, bainan lan eta diru.*

HOTELERO.—*Hemengo zorrak laster pagatuko dituk mendiko irabaziekin... Eta, behere hautan haizeno, balia adi biziaz... Gain hetan egunak luze eta borthitz dituk gero... Zerbait dakiena mintzo zruk.*

BENAT.—*Bostgarren eguna da, kanpero famatu hura hemen izanen dela, faltarik gabe, hitzemaiten dautazula... Eta kanperorik, egun oraino, ez da seinale. Dudan nago, kanperoak othe dakien ere, gu hunarat helduak girela.*

HOTELERO (Kexu).—*To... Nitaz ez bahaiz fi-da, galde zok bere alabari... Alaba ixtantean hemen izanen duk... Gurearen bilarat ethortzekoa duk, Etxegarayen hotelerat afariterat joaiteko... Hi ere, hango haiz, dudarik gabe, sarri.*

BENAT.—*Hango edo... oheko!*

HOTELERO.—*Ihaurrek ikus. (Ixtant bat ixillik. Pantxo sartzen da... Agur eta agur.)*

(Pantxori) Sarri, bahakik Etxegarayen urthe bethetzea dela?... Haren hotelean haiz, dudarik gabe, afariteko?

PANTXO (Irriz).—*Bitxi da hemengo usaia! Kasik arrats guziez, hotel batean bada norbaiten urthe-muga... Nausiarena, haren alabarena, edo bederen kozinariarena!*

HOTELERO.—*Hobe zuentzat! Afaria urririk izanen duzue!*

PANTXO (Irriz).—*Ba, jana kitorik emaiten duzie holakoetan, bainan gomitatuek pagatuz edaten dituzten wizkiekin, aise eman afariaren saria biltzen duzie!*

HOTELERO.—*Bixtan duk... Ez gaituk urririk ariko jende hazten.*

BENAT.—Ez gera onera zorrak egitera etorri; lan eta diru baizik.

OSTALARIA.—Emengo zorrak laister pagatuko dituk mendiko irabaziekin. Eta be-alde on-tan aizen artean, baliatu adi bizitzeaz, motell. Gain ayetan egunak luze eta latz dituk gero... Zerbait bazekiat nik...

BENAT.—Bostgarren eguna da, zorioneko *kanpero* ori laister emen izango dala faltarik gabe itz eman diguzula. Eta, gaur oraindik, emen ez da arren zantzurik. Dudan nago ote dakian ere kanpero orrek, gu emen gaudenik.

OSTALARIA (*Aserre*).—To!... Nerekin fio ez baaiz, galde ezayok bere alabari. Emen izango dek berealaxe. Gurearen billa etortzekoa dek, biok Etxegarai-ren Hotelera apaltzera joateko. I ere joango aiz noski.

BENAT.—Ni joan? Lotara obeto.

OSTALARIA.—Eorrek ikusi. (*Une bat ixilik. Pantxo sartzen da. Agur eta agur.*)

(*Pantxori*) Ator, ator! Gaur, badañik Etxegarai-ren urte betetzea dala. An izango aiz noski i ere afaltzen?

PANTXO (*Farrez*).—Polita da benetan emengo oitura! Ia gabero bada, Hotel batean edo bestean, norbaiten urte betetzea: nagusiarena, edo alabarena, edo bestela sukaldariarena.

OSTALARIA.—Obe zuentzat! Zuek afaria utsean, debalde, izango dezute.

PANTXO (*Farrez*).—Bai; jana debalde ematen dezute olakoetan; bañan afaldarrak edaten dute Wixkia, pagatuta izaten da; eta Wixkien pag jakin ederki berdintzen dezute zuek janaren saria.

OSTALARIA.—Jakiña ba. Ez gaituk debalde ta utsean ariko jendea bazkatzen.

PANTXO.—*To, kanperoaren alaba, Benita, heldu da!*

HOTELERO.—*Ba... Gure Gabrielarekin hitzartuak dituk, Etxegaray baitarat afariterat joateko.*

II

BENITA, BENAT, HOTELERO, GABRIELA

BENITA (Sartuz, alegeraki).—*Hor zarete?... Alo, Benat eta Pantxo, laster bezi zaitzte... Etxegaray baitan behar ditugu fandangoak eman, lehertu artio!*

BENAT (Illhun).—*Ni ez niz, arrats huntan, hemendik mugitzen.*

BENITA.—*Zer duzu?... Bihotzean min?... Alo... Behar dugu min hori tratatu... Hotelero, wizky bat deneri!... Non da Gabriela?*

HOTELERO.—*Ba, agertuko da laster!... (Benateri) To, orai hor duk kanperoaren alaba!... Galde zok aita noiz heldu den zuen bilarat!*

BENITA.—*Aita!...Egun aratsaldean ethorria da!*

BENAT.—*Ez da goizegi!*

GABRIELA (Sartuz... Galtzez bezi).—*Hep?... Hor zarete?*

PANTXO (Alegeraki).—*Gabriela!... Etxegaray baitan, behar ditugu gero biek sarri denak zafratu fandangotan!*

GABRIELA.—*Ai, Pantxo, Pantxo,... Zu lagun, Kalifornian kurrituz, fandangotan bizitzekoa irabaz ginezake... Ale, nere turnada, orai! Huts baso horiek! (Edaterat emaiten diote.)*

PANTXO (Irriz).—*Artzaingoan ez badut erreusitzen, jinen niz menditik gibelerat, eta lotuko gira biak dantzako ofizioari.*

PANTXO.—Ara! Kanperoaren alaba emen zertorrek: Benita.

OSTALARIA.—Bai. Gure Gabriela ta biok itzartuak dituk, elkarrekin Etxegarai-ren Hotelera afaltzera joateko.

II

BENITA, BENAT, PANTXO, OSTALARIA, GABRIELA

BENITA (*Sartuaz, alaiki*).—Or zerate? Agur, Benat eta Pantxo. Garaiz prestatu zerate. A zer fandangoak egin bear ditugun gaur Etxegarai-nean lertu arte!

BENAT (*Illun*).—Ni ez naiz arrats ontan emendik mugituko.

BENITA.—Zer dezu, ba? Biotzean min? Tira! Sendatu bear degu min ori. Ostalari, wiski bana guztiontzat. Nun da Gabriela?

OSTALARIA.—Bai, agertuko da laister. (*Benateri*) To! Or dek orain kanperoaren alaba. Galdeyok ia noiz datorren aita zuen billa.

BENITA.—Aita? Gaur arratsaldean etorri da.

BENAT.—Bazan ordu.

GABRIELA (*Sartuaz; galtzak soñean*).—Hop! Or zerate?

PANTXO (*Alaiki*).—Gabriela!... Etxegarai-nean biok laister leertu bear ditugu danok dantzan.

GABRIELA.—Pantxo, Pantxo! Guk biok, Kalifornia guztik dantzan bizitzeko lain aterako genduke... Tira! Orain nere txanda! Ustu baso oyek. (*Berriz ere wiski bana.*)

PANTXO (*Farrez*).—Artzantzan etsitzen ez badet, laister naiz ni menditik onuntz, dantzako ofizioari bion artean ekiteko.

BENITA.—*Benat eta ni, ethorriko gira zuen lagun, ttunttun eta atabalarekin.*

BENAT.—*Nik, ardi joarez nahiago dut entseatu, ttunttunez baino!*

GABRIELA.—*Beztitzerat noha... Agozte ixtant bat bere beha!*

PANTXO.—*Ba, nik ere ganberaraino joan behar dut, bizar hunen poxi bat lehuntzerat! (Biak jalitzen dira... Benita eta Benat ixtant bat ixilik dagotzi.)*

BENAT.—*Zure aita noiz jinen da hunarat!*

BENITA.—*Ixtantean, nik uste... (Ixilik ixtant bat) Errazu, mendirat joaitian, nere aita izango baituzu kanperero, harekin komixione zonbeit bialduko dauzkitzut.*

BENAT.—*Zer komixione?*

BENITA (Ezin atrebituz bezala).—*Ez baituzu hemen nihor familiaratik... Familiakoa banintz bezala... (Ixtant bat ixilik daude.)*

(Letxero eta Rantxero sartzen dire, pixka bat edariak harrotuak.)

III

LETXERO, RANTXERO, BENITA, BENAT, HOTELERO

LETXERO.—*Eheup! Agur, Benita,... Agur hi, gazte,... Laster maitatu duzie zieki elgar!*

BENAT.—*Agur... Laster jujatzen duzu, zuk ere, elgar maite dugula!*

LETXERO.—*Ba... Hiru lerrotan adinez pasatua nuk gero... Eta, hanitz ikusiz, laster jujatzen ikasten duk... Hoo... Ez diat gero erraiten gaizkirik egiten duziela... Ez, ez,... (Oihuz) Hotelero!... Ean, hunarat wizky bana.*

HOTELERO.—*Heldu, heldu!*

BENITA.—Bal, eta Benat eta ni zuen laguntzalle, ttunttun eta txistuarekin.

BENAT.—Nik, ardi-joale-soñua nayago det ttunttun-soñua baño.

GABRIELA.—Jaztera noa. Zaudete pixka bat nere zai.

PANTXO.—Ba, nik ere gelarañokoa egin bear det, bizar au pixka bat leuntzera. (*Biok irteten dira. Benita eta Benat une batean ixilik dau-de.*)

BENAT.—Zuen aita noiz dator onera?

BENITA.—Oraintxe laister, nik uste... (*Ixilik berriz ere*) Benat, mendira joatean, gure aita izango bait-dezu kanperero, arekin bialduko dizut zenbait enkargu.

BENAT.—Zer enkargu gero?

BENITA (*Ezin atrebitu bezela*).—Ez bait-dezu zuk emen inor familiakorik, familiakoa banintz bezela... (*Berriz ere unetxo bat ixilik*)

(*Letxero eta Rantxero sartzen dira, pixka bat edanez arrotuak.*)

III

LETXERO, RANTXERO, BENITA, BENAT, OSTALARIA

LETXERO.—Eheup! Agur, Benita,... Agur i, gazte. Laister maitatu dezute zuek alkar!

BENAT.—Agur! Laister egin dezu zuk ere, alkar maite degun juzgua.

LETXERO.—Ba, irurogei urtetikan igaroa nauk gero ni... Eta, asko ikusiaz, laister juzgu egiten ikasten dek... Ez diat esaten, ordea, ezer gaizkirik egiten dezutenik. Ez, ez! (*Oyuka*) Ostalari! Ia onera wixki bana!

OSTALARIA.—Eutsi, eldu!

LETXERO.—*Bota hunarat baso bat!... Nik us-te, hamabortz garrena diagu, bainan edan dezagun aintzinat... Edariak kontserbatzen omen-dik!*

BENAT.—*Hemengo edateko moldean —bako-tzak bere aldian denen turnada pagatuz, ostal-erotik haste— hertzeak gazterik idortzen bide-dira!*

LETXERO.—*Ha, gazte!... Zer hu? Wizky xorta batek izitzen?... Ez bahiz wizky xorta baten jasaiteko ona, hail etxerat... Hail etxerat!... Hortako ez bahiz, hobe hin, hire etxetik ez mugitu... Nik ez zekiat zertarat jiten diren Ameriketarat euskaldun gazteak!*

BENAT.—*Zertarat? Zu jin zinen bezala, ar-tzaingotik diru pozi baten egiterat, dudarik ga-be!*

LETXERO.—*Dirua, dirua!... Ez duka ordean ikusten, ardien prezioak bethi beheiti ari dire-la?... Mendian pekatuko dukalarik, bakarrik han nunbait galdua, zazpi aldiz oraino, nik era-bili gogoeta berak eginen dituk!... Zertarat jin hizen hunarat!... Zerendako ez hizen han be-rean, zerbait laneri lotu... Sinhets nezak, gaz-te!*

BENAT.—*Eni eman kontseilua, zerendako ez zinuen zuhaurek segitu?... Nolaz gelditu zira hemen?*

LETXERO.—*Ha, gazte!... Hanitz hunarat jin Eskualdunen ixtoria, eta enea, berdin dituk... Jin nindian, bortz, sei urtheren, hamar urthe-ren buruan gehienik, etxerat berritz itzultzeko xedearekin. Bainan itzultzeko urtheak jin zire-larik, bethi urthe bat gehiago hobe niela he-men etsitzea, pentsatzen nian, holako edo ho-lako afera on baten erreusitzeko... Eta, emeki emeki, urtheak joan dituk... Eta ni bethi he-*

LETXERO.—Bota, bota baxo bat. Amabostgarrena edo badiagu gaur bañan edan dezagun oraindik beste pixka bat... Edariak indartzen omen dik eta.

BENAT.—Emengo edateko moduan —bakoltzak aldian guztion erronda pagatuaz, ostalaritak asita— esteak gazterik legortuko zaizkizute!

LETXERO.—Ah, gazte! Wixki-ttannta batek izutzen au? Wixki-ttannta bat edateko gauza ez baailz, oa etxera. Oa etxera; Ortarako, obeuan etxetik ez mugitu! Nik etzekiat zertara etortzen diran Ameriketara euskaldun gazteak...

BENAT.—Zertara? Zu etorri zifian bezela: artzantzan diru pixka bat egitera, noski.

LETXERO.—Dirua... dirua! Ez al dek, ordea, ikusten, ardien balioa beti beera dijoala? Mendian nekatuko aizenean, eori bakarrik, an nunit bait galdua, zazpi aldiz baño geyago, nik egin nituan gogoeta berak egingo dituk ik ere: "Zertara etorri intzan onera? Zengatik ez intzan an bertan edozein lanetan sayatu?"... Sinista zaidak, gazte!

BENAT.—Kontseju ori zergatik etzenduan segitu zeorrek? Nola gelditu zera emen?

LETXERO.—Ah, gazte! Onuntz etortzen diran euskaldun askoren historia eta nerea, elkarrenberdiñak dituk. Etorri nindukan, sei urteren, amar urteren buruan luzeenik berriz ere etxera biurtzeko asmotan. Bañan, itzultzeko urteak etorri ziranean, beti urte bat geyago obe nuala etsitzea, olako edo alako lanean sayatzeko. Eta poliki poliki urteak joan dituk. Eta ni beti

men!... *Sinhets nezak, gazte!... Har-zak xedea, bortz sei urtheren buruan, gertatzen dena gerta, etxerat itzultzeko... Eta, tenorea jiteah, ez adila egun bat gehiago hemen zahar.*

BENAT.—*Orai, zertarik bizi zira?*

LETXERO.—*Ni letxero nuk, eta hau rantxero... Mendia on duk gaztentzat, bainan zahartuz geroz, ixterrek toki lehunak nahi ditie.*

RANTXERO.—*Bai, mendia, orai phitsik ez duk... Orai biranazka dituk, eta mendi zolan han die beren "roulota", radio eta sugazarekin... Ez zuan hola to, gure denboran!*

LETXERO.—*Hire denboraz hiza arrangura? Zer erran hezake ene denboraz? Guk, etsai ginitian, ez bakarrik otso-kujoteak, gatu-basa eta sugeak... ez bakarrik eritasunak... bainan denak baino tzarrago, bakeroak... (Errabliarekin) Bakero madarikatu ustelak!*

RANTXERO.—*Konda-ozu huni ere, behin zer egin zautzuten!*

BENITA.—*Bon, ni, Gabriela zer bilakatzen den, ikusterat noha. (Jalitzen da.)*

LETXERO.—*Zer duzu?... Sobera ezagutzen ene irtorioa? Berdin du... (Benati) Bakeroak, behi-zainak dituk... Hastapen hetan, ez zian behi arthalderik hemengo mendietan, bainan bakarrik ardi arthaldeak... Behiak muntatu eta, hasi zitian kalapitak, artzain eta bakeroen artean, phazka-lekuen gainetik... Batzuk eta bestek, phazka-leku berak nahiz.*

Behin, ene kanporat jin zitian, bi bakero, ene ardiak, ziren tokitik alda netzadan lehenbailehen, behiak behar ziuztela han ezarri... Ezetz, ez nintiela ardiak handik aldatuko. Lo-

emen!... Sinista nazak, gazte! Artu zak asmo, bost sei urteren buruan, gertatzen dana gerta dedilla, etxera biurtzeko... Eta garaya datorrenean, ez adilla egun bat geyago emen zaartu.

BENAT.—Orain zertatik bizi zera?

LETXERO.—Ni letxero nauk, esne-zale. Eta au, rantxero. Mendia ona dek gazteentzat; bañan zaartu ezkerro, iztarrak toki leuna nai ditek.

RANTXERO.—Bai, bañan mendia orain ez dek ezer. Orain binaka bizi dituk, eta mendietan ere an ditek beren "roulota", radio, su-gasa ta guzti... Ez uan ola, ez, gure denboran.

LETXERO.—Ire denboraz kejatzen aiz? Zer esango ukek nere denboraz? Guk etsai genizkikan, ez otsoak eta basakatuak eta sugeak bakarrik, ezta gaxotasunak bakarrik; etsai genizkikan ayek baño askotaz galztoagoak ziranak: bakeroak. (*Amorruz*) Bakero madarikatu zerriak!

RANTXERO.—Kontatuyozu oni ere, bakeroak bein zer egin zizuten.

BENITA.—Ni, Gabriela zertan dagon ikustera noa. (*Irteten da.*)

LETXERO.—Zer esan nai dezu? Len ere bada-kizula nere kontua? Berdin da. (*Benati*) Bake-roak, bei-zayak dituk. Asiera artan ez uan beltalderik mendi oetan, artaldeak bakarrik baizik. Beyak jarri ziranean, asi itukan emen asarreak eta demandak artzai eta bakeroen artean, bazka-lekuen gañetik; batzuek eta besteak bazka-leku beretan bazkatu nai beren ganaduak.

Bein batean bi bakero etorri zitzaizkidaken nere barrutira, kentzeko lenballen nere ardiak andik, beyak sartu bear zituztela... Ezetz, ez nituala ardiak aldatuko zeuden lekutik. Eta

tu ginitian kalapitan. Bahakika zer egin zautaten?... Hartu... Kristo bezala, arbol bati este-
katu, eta han utzi... Eta, ene bi zakurri, ene
kanpoko bi untzi buztanetik estekatu eta de-
bruetarat igorri hek eta heiekin ene bi mila
ardiak.

Gau bat eta egun bat, han egon nindian es-
tekatua, kanperoak atzeman artio, kordez kol-
patia, ahuldia, salbu hi eta, ene beharrez gal-
tzak orhatuak... Huuuu, bakero zikinak!...

Baduk hemen oraino, ene denborako bake-
ro tzar bat!.. Jiten duk hunarat noizean-behin-
ka... Orai aberastua, nausi handi bilakatua
duk... Bainan, bakero alimale on bat izan duk
to hori! Ez diagu ez, harek eta nik, konpli-
mendu hanitzik elgarri egiten!

HOTELERO.—Noren turnada orai?

BENAT.—Enea!

HOTELERO.—Edan ausarki! hunek kentzen
dik tripako mina!

BENAT.—Noren tripako mina?... Zurea ala
gurea?

HOTELERO (Erdi kexu).—Hik edanak, ez dik
hanitzik nehorrenik kenduko!... Nik ez zakiat,
nola altxatzen dituzten Eskual-Herrian oraiko
gazteak! Ez dute, ostaturat sar-eta, edaten ere
zonbaitek! (Jalitzen da.)

BENAT.—Dударик gabe, oraiko ostalerek ez
dakite heien laket-arazten ostatueta.

LETXERO (Aphaletik).—Hunek bethi, bere
zazpi ahalak ibiltzen ditik, hunarat sartzen di-
reneri, bere edariaren sakatzeko... Lotkorra
duk, lotkorra, gizona!

BENAT.—Ez dakit sobera on den ostaler bat
lotkorregi izan dadien... Enekin segurik, sal
nahiaren izaria beiratur, gehiago sal lezake.

asi gifañ demandan... Badakik zer egin zidaten? Artu, Kristo bezela arbol bati lotu, eta an utzi. Eta nere bi zakurrei, nere txabolako bi ontzi isatsetik lotu, eta milla deabrutara bidali zakurrak eta zakurrekin nere bi milla ardiak.

Eta gau bat eta egun bat antxe egon nindukan lotuta, kanperoak arkitu ninduan arte, korde gabe, dana auldua, eta —i salbo ta— nere bearkizunez galtzak orakatuak... Huuuu, bakero zikiñak!

Badek emen oraindik, denbora ayetako bakero tzar bat. Etortzen dek onuntz noizean bein. Orain aberastua eta nagusi aundi egiña. Bañan bakero animali bat izana dek ori. Etzioagu, ez, orrek eta nik alkarri loxintxa asko egiten.

OSTALARIA.—Noren erronda da orain?

BENAT.—Nerea.

OSTALARIA.—Edan lasai! Onek kentzen dizkik tripako miñak.

BENAT.—Noren tripako miñak? Gureak ala zureak?

OSTALARIA (*Erdi aserre*).—Ik edanak, beintzat, ez dik asko iñoren miñik kenduko. Nik etzekiat nola erakusten dieten Euskalerrian oraingo gazteeri. Ez ditek, ostatura sartuta, ezer ere edaten zenbaitek. (*Irteten da.*)

BENAT.—Nunbait oraingo ostalariak ez dakite gazteeri "bertan-goxo" eragiten.

LETXERO (*Ixil-antzean*).—Onek, orratik, bere zazpi aalak zur erabiltzen dizkik emen sartzen danari bere edaria sarrarazteko. Lapurra dek gizona, lapurra.

BENAT.—Ez dakit, sobra on duan ostalariak sayatuegi izatea. Nerekin beintzat, saldu-naia-
ren neurria gordeaz, geyago irabaziko luke.

LETXERO.—*To... Hotél huntan, zombait eta zombait artzainek, menditik jauksi-eta utzi ditie beren sakelako sosak. Eta frangok, beren irabazi guziak!... Kasu emak, gazte, menditik jauzsiko hizalarik... Izigarri duk orduan tentamendua, phestan eta zurrutean, behere hantant bizitzeko... Eta, hanitzek, penatuki luzaz irabaziak, hemen, ixtan batez garbitzen ditie.*

BENAT.—*Ez zitela kexa... Hemengo moldez argiturik, heldu gira oraiko gazteak.*

LETXERO.—*To, to,... Huna nun heldu den, oxtian aiphatu, bakero tzarra... Debru muthur beltza!*

IV

BAKERO, HOTELERO, LETXERO, BENAT, RANTXERO. Gero MOTO ta INDIANO

BAKERO (Bakeroen xapel handia buruan... Salutantzi eder batez dio):—*Arratsalde on, jaunak!*

(Denek ihardesten diote, salbu Letxerok... Esku zartaka, deitzen du Hotelero.)

HOTELERO (Agertuz. Galtzeko errespeturekin, bere mahain, kadera, pipatzeko, aphailatzen dazko.)—*Arratsalde on, jauna!*

LETXERO.—*Ba dik ba horrek konplimentu... Baitu huntatik (Diru keinua) Bere mahaina ere bethi erresalbatua dik horrek hemen.*

HOTELERO (Letxerori). *Zuk, othoi, gizon hori ixilik utziko duzu. (Bakero zerbitzatzen du.)*

LETXERO.—*Jakin-eta gizon hori zer mandila izana den, horren ikusteak bérak, barne guzia nahasten daitak... Phu, zikina! Horren kon-*

LETXERO.—Hotel ontan, orratik, makifia bat artzai gaizok, menditik jetxi ta utzi dizkik emen bere sakeleko txanponak. Eta ez gutxik, beren irabazi guztiak. Kontu egizak, gazte, menditik jetxi aizela. Izugarria izaten dek orduan, emen bean festetan eta zurrutean bizi izateko tentazio txarra. Eta askok eta askok, luzaroan penaturik egindako irabaziak, danak egun batzutan garbitzen dizkitek.

BENAT.—Ez ikaratu... Emengo moduaz eskolaturik gatoz oraingo gazteak sobra ere.

LETXERO.—To! Ara! Orra nun datorren, mutur beltza!
arestian aipatu degun bakero tzarra... Deabru

IV

BAKERO, OSTALARIA, LETXERO, BENAT, RANTXERO, MORO, INDIANO

BAKERO (*Bakeroen buruko aundia buruan. Agur eder bat egiñez*).—Arratsalde on, jaunak! (*Danok erantzuten diote, Letxerok ez ezik. Txalo joaz dei egiten dio ostalariari.*)

OSTALARIA (*Agertuaz, itzal aundiz prestatzen dizkio bere mai, eser-alki, pipatzeko auts-ontzi etab.*).—Arratsalde on, jauna.

LETXERO.—Orrek bai kunplimentu!! Bai baitu ontatik (*diru-keiñua*). Bere maya ere bereiz gordea zaukak orrek beti emen: ots, reserbatua.

OSTALARIA (*Letxerori*).—Zuk, mesedez, ixilik utziko diozu gizon orri. (*Bakerori serbitzen dio.*)

LETXERO.—Gizon ori zer ganadu izan dan jakinda, orren ikusteak berak ere barru guztia naasten zidak... Phu! zikiña! Orren kontzientien-

tzientzia eta zerrizola, berdin garbi dituk...

HOTELERO (Izigarri keXu).—Zu... Zoazi kan-
(Bakerori) *Bakero ustel zikina!*
porat hemendik, eskandala eman nahia bazi-
ra hemen!

LETXERO.—*Joanen nuk, joanen nuk, hotele-*
ro, goiti egin nahia emaiten daitak gizon ho-
rren ikusteak berak... (Rancherori) *Heldu hi-*
za to! (Bakerori, jalitzean) *Bakero... Urdea!...*

HOTELERO.—*Higuin tzarrak!...* (Bakerori)
Barku-ozu... Edaria da mintzo!

BAKERO.—*Bego, bego... Ez da deus!*

HOTELERO.—*Urruntzeko hobeak dituk, bazter*
nahasle horiek! Nik, denekin behar diat gero
bizi... Ez diat horien arteko saltsan phitsen
beharrik.

To, horra nun heldu diren bertze bi her-
bail... Errana zioteat ba, sar ditela bakarrik
ostatuan, nehor ez delarik... Bertzenaz, ez!...

MORO eta INDIANO.—(Agertzen dira... Lehe-
nak bizkarrean dauka keza bat zapeta ziratzeko
puskekin. Bigarrenak bi taula badauzka ain-
tzin gibeletan, bera "zanduich" dagola erdian...
Taula hetan izkiriatura da edozoin phesta edo
sal-gailuen erreklama, itxurazko aphaindura
zonbaitekin. Erreklama, anglesaz izan bedi.)

HOTELERO.—*Beltzak debruatarat!*

INDIANO.—*Here is no apartheid.* (Prononzia:
Hier is no aparzel.) *It is the law!* (Ite iz ze o).

HOTELERO.—*Ez dezaket igor... Legea hola-*
da!

BAKERO.—*Bego... Berdin du...*

HOTELERO.—*Orai artio, larru koloratu gizo-*
nak ez zituan libro, larru zurien ostatueta...
Orai, lege zikin bat egin ditek... Horiek ere
non-nahi haizu dituk.

tzia eta zerritegia, berdin garbi dituk. (*Bakerori*) Bakero zikiña... zerria, zerria!

OSTALARIA (*Izugarri asarre*).—Zu! Zoaz kanpora emendik, pakean egon nai ez badezu emen!

LETXERO.—Joango nauk, ostalari, joango nauk. Gora-naya ematen zidak gizon ori ikus-teak berak... (*Rantxerori*) Ba al ator? (*Bakerori, irtetean*). Bakero... urdea!...

OSTALARIA.—Nazkagarri tzarrak! (*Bakerori*) Ez kasorik egin... moskorra dago.

BAKERO.—Ez dio ajolarik.

OSTALARIA.—Joateko obeak dituk, baztar naasle oyek. Nik, danokin bear diat bizi. Ez diat oyen arteko saltsa bearrik...

To! Orra nun datozen orain beste bi arlo-te... Esan zeotet, ba, amaika aldiz, ez etortze-ko ostatuan inor dagoanean...

BELTZA ta INDIOA.—(*Agertzen dira. Batek oñe-tako garbitzeko kaja sorbaldan; besteak bi anuntzio aundi, aurrean eta atzean, bular eta bizkar; anuntzioa, alegia, edozein festa edo saltzeko gauzarena, zirri-borro apañekin. Anun-tzioa, inglez.*)

OSTALARIA.—Ospa! ospa zuek ere!

INDIOA.—Here is no apartheid. (*Esan beza: Hiore is no aparzei...*) It is the law! (*Ite ize ze lo!*).

OSTALARIA.—Ezin bialdu ditzaket. Legea da.

BAKERO.—Utzi, ez dio ajolarik.

OSTALARIA.—Orain arte, larru koloredun gi-zonek etzikaten libre larru zurien ostatueta sartzea. Orain, ordea, lege zikin bat egin ditek, eta orain nun-nai libre ditek.

BENAT.—Zertako ez liezke haizu? Horiek ere, gu bezala, gizonak ahal dire!

HOTELERO.—Ha... Ageri duk ez ditukala eza gutzen arraza horiek! Utz horieri utz, zangoa hire etxean sartzerat... Laster berak eta bere familia ere sartuko dauiate, eta ihaurre kanporat emanen!

BENAT.—Ba, anartean, zombait eta zombait dolar zuretuko ditutzu, horier saldu wizkiarekin.

BAKERO (Morori).—Hello!, boy!... Zapatak!

MORO.—Bai jauna, berehala!... (Morok zapatak Bakerori zirutzen daizko.)

VI

LEHENGOAK eta PANTXO, BENITA eta GABRIELA

PANTXO (Benateri).—Ale!... Heldu hiza afa-riterat, Etxegarayen hotelerat!...

BENAT.—Ez... nik hobe diat hemen egon, kanpero arrats huntan heldu bada ere!

BENITA.—Bai, gero ere izango dezu, bai, ha- rekin egoiteko astia.

PANTXO (Irriz Morori begira).—So egizak, so egizak, nola ari den! Ofizio bat duk ba hau ere!... Ez zaitak iduritzen ofizio mota horieri eskualdun bat aise lot daitakela... Edo behar likeie arrunt errekan!

BENAT.—Beren bizia hola jalitzen badie, arra- zoin die... Ez dik ofizioa behatu behar, bainan zer emaiten duen.

PANTXO.—To, nik segurik, ene burua hola ikusi baino, nahiago nikek errekarri behera aur- thiki ere...

BENAT.—Eta zergatik ez dute libre izan bear? Oyek ere, gu bezelaxe, ez al dira gizonak?

OSTALARIA.—Ah! ezagun dek ez ditukala eza-gutzen ondo. Utziek ire etxean oña sartzen. Laister dituk berak eta beren famili guztia ire etxearen jaun da jabe. Eta i kanpora.

BENAT.—Bañan bitartean zuk dolar ederrik sakeleratu ere bai, oyei saldutako wixkiren truka.

BAKERO (*Beltzari*).—Hello, boy!... Zapatak!

BELTZA.—Bai jauna... banoa... (*Beltzak Bakerori zapatak garbitzen dizkio.*)

VI

LENGOAK, PANTXO, BENITA, GABRIELA

PANTXO (*Benat'eri*).—Tira! Bai al ator gurekin afaltzera, Etxegaray-ren Hotelera?

BENAT.—Ez. Nik obe diat emen egon, kanperoa arrats ontan eltzen bada ere.

BENITA.—Gizona, gero izango dezu, bai, arekin egoteko beta.

PANTXO (*Farrez, beltzari begira*).—Begirayok, begira, nola ari dan! Ofizio bat dek au ere! Ez diat uste, euskaldun batek olako ofiziorik aixa artuko lukeanik. Edo-ta oso errekan ikusi bearko dik bere burua.

BENAT.—Oyek ere, beren bizia ola ateratzen badute, ondo ari dituk. Ez dik begiratu bear ofizioa ederra dan ala itxusi; zer ematen dun baizik.

PANTXO.—Ala izango dek; bañan nik beintzat leenago botako diat bere burua putzura, olako ofizioaren jabe egin baño.

BENAT.—*Nork zakik, egun batez, ez garen holako ofizio batez behartuko, bizitzekotz?*

PANTXO.—*Debruak erabilki-hia?... Ez ar aiz?*

BENAT.—*Nork zakik.*

GABRIELA.—*Ale... Goazen bestarat!*

BENITA.—*Athoz, zu ere, Benat!*

BENAT.—*Ez, Benita, zure aita ikusi artio!*

BENITA.—*Bon, beraz, ni ere ez naiz joango... Hemen nago.*

BENAT.—*Ez... Ez zaitela ni gatik geldi... Hitz emaiten dautzut... Egonen niz, ixtant bat, zure aitaren beha... Eta, ez bada jiten, edo jiten bada ere, gure solasak erabili-eta, zuen ganako niz!*

BENITA.—*Faltarik gabe gero... Hitza atriki-ko ahal dezu?*

BENAT.—*Ba... Ene hitza hitz da.*

GABRIELA.—*Goazen, Benita,... Jinen dun gi-beletik Benat!... Ixtante artio, Benat. (Jalitzen dire.)*

BENAT.—*Bai, ixtante artio.*

(*Ixilik... Moroak bere lana finitzen du, saria eskuratzen eta whisky bat manatzen.*)

VII

LEHENGOAK eta ANTON

HOTELERO.—*Hi, bakarrik hemen?... Zer ha-go?... Kanperoren beha?*

BENAT.—*Ba... Egun bederen, ez ahal niz de-baldetan egonen?*

HOTELERO.—*Berak erakusterat emanen dik... To, kanperoa ez bada ere, hor bertze hire adix-kide bat heldu duk!*

BENAT.—*Nor?*

BENAT.—Ala diok ik; bañan nork zekik ori? Suertatu giñezkek olako baten bearrean, bizi izateko.

PANTXO.—Milla demoniño! Ez oraingo itxuraz!!

BENAT.—Nork zekik?

GABRIELA.—Tira! Goazen festara.

BENITA.—Atoz zu ere, Benat!

BENAT.—Ez, Benita, zuen aita ikusi arte.

BENITA.—Zu ez bazoaz, ba, ni ere ez; emen egongo naiz.

BENAT.—Ez; etzaitzela nigatik gelditu. Itz ematen dizut. Pixkatxo bat bakarrik egongo naiz oraindik aitaren zai; eta etortzen ez bada, edo etorrita, gure itzak berealako baten egin ondoren, an naiz ni ere zuen ondora.

BENITA.—Aztu gabe gero! Ea itzaren jabe izaten zeran.

BENAT.—Bai; nere itza itz da.

GABRIELA.—Goazen, Benita. Etorriko den Benat ondotik. Laister arte, Benat. (*Irteten dira.*)

BENAT.—Bai, laister arte.

(*Ixilik... Beltzak bere lana bukatu, bere saria jaso ta wiski bat eskatzen du.*)

VII

LENGOAK eta ANTON

OSTALARIA.—Zer? Bakarrik emen? Zertan ago? Kanperoaren zai?

BENAT.—Bai! Gaur bederenik ez al naiz alperrik egongo...

OSTALARIA.—Ikusi beintzat... To! Kanperoa bera ez bada ere, emen zetorrek ire adiskide bat.

BENAT.—Nor gero?

ANTON (Sartuz).—*Agur, jaunak!*

BENAT eta HOTELERO.—*Agur!... (Hotelero jalitzen da.)*

ANTON.—*Hor hiza oraino?... Ez hiza Etxegaray baitarat heldu?*

BENAT.—*Sarrizago... Ixtantean, hemen izanen omen baitiagu kanperoa... Haren beha nagok.*

ANTON (Ahapalez).—*Ontsa ezagutua duka hoteleroa?*

BENAT.—*Zerendako?*

ANTON.—*Mesfida adi hortaz... Baliatzalea omen duk... Sosa sendi badu, klianta atxik ahala atxik artzen omen duk... Kanperoa berdin erosiz, ahal bezen luze jin ditzen hemen dagotzinen xerkarat!*

BENAT.—*Zer nahi duk egin dezagun?... Eta, hi, ari haiz hire lanari ohartzen?*

ANTON.—*Ba... laster hartu diat ene osabaren garaja hura. Baditiat lau langile meneko.*

BENAT.—*Biba hi!...*

ANTON.—*Uste diat, osabaren gostuko izanen nukala!*

BENAT.—*Hobe, hobe!...*

ANTON.—*Bon... Errak, berant aire nuk jada... Beraz, gurekin izanen hiz ixtantean?*

BENAT.—*Ba... Halako xedetan nuk.*

ANTON.—*Ixtante artio beraz, eta (ahapetik) mesfida-hadi hoteleroaz. (Jalitzen da.)*

(Moro eda Indalanoak, laster eta ixil, whisky botoilatik, baso bana whisky ebasten dute... Hotelero sartzen da... Ohartzen da, zerbeit behar ez den badabilala airean, bainan ez daki nor akusa.)

HOTELERO.—*Ez zakiat, hemen, zerrikeria ez othe den nausitua!*

ANTON (*Agertuaz*).—Agur, jaunak!

BENAT eta OSTALARIA.—Agur! (*Ostalaria irreten da.*)

ANTON.—Or al aiz oraindik? Ez al aiz Etxegarai-ren Hotelera joan?

BENAT.—Geroxeago. Emen omen dek berealaxe kanperoa, eta aren zai natxiok.

ANTON (*Aopear, ixiltxo*).—Ondo ezagutzen al dek ostalaria?

BENAT.—Zer bada?

ANTON.—Ez adi fida geyegi. Baliatzallea omen dek. Datorren mutilla, diruduna baldin bada, eutsi-ala-eutsi aritzen omen zayok. Baita kanperoak erosi ere, mutillaren billa aal bezain berandu etorri ditezen.

BENAT.—Zer nai dek nik egitea?... Eta i asi al aiz lanean?

ANTON.—Bai, bai,... Berealaxe ekin zioat osabaren garajeko lanari, eta dagoneko badizkiat nere mendean lau langille.

BENAT.—Ori dek ori!

ANTON.—Uste diat osabaren gustokoa izango naizela.

BENAT.—Obe, obe!

ANTON.—Aizak eta, berandu xamar ere badiat oraintxe eta... beraz, gurekin izango aiz laister?

BENAT.—Ala diat asmo.

ANTON.—Gero arte, beraz; eta (*aopetik*) ez adi fidatu ostalariaz. (*Irteten da.*)

(*Beltza eta indioak, lasterka ta ixilik, wixki-botillatik baso bana wixki lapurtzen dute... Ostalaria sartzen da... Konturatzen da zerbait oker badarabiltela ostatuan, bañan ez daki zer.*)

OSTALARIA.—Etzekiat billaukeriren bat ez ote dabillen emen...

BENAT (Bizi-bizia).—*Gogoeta bera naukan ene baitan.*

HOTELERO.—*Hik?... Zer zerrikeriaz duk errenkura?*

BENAT.—*Hamabortz egun hautan kanperoa ez ageri-eta, nun dagon ez othe zen hor jikutria zerbait, haren hemendik, ahal bezen luza, urrunt begiratzeko.*

HOTELERO.—*Zer jikutria nahi duk izan da-dien?*

BENAT (Idorki).—*Ba omen baitira kanperook, hotelerako treina huts egiten dutenak, hotelerook hala galdatuz.*

HOTELERO (Kexu).—*Beha zak!... Lehenago ere erran dauiat, nik ez diatela deus hobenik, hire kanperoa hoin berant heldu bada... Hasteko, ez bahaiz hotela huntaz kontent, bertzetara libro haiz.*

BENAT (Idor).—*Baditake lehen eta azken aldikotz hartu dudan hemen ene ganbera!*

HOTELERO.—*Lehena haiz, hola errenkuraka hemen entzuten dudana, Ez zituen holako hire aintzineko gazteak, ez eta ere hire lagun Pantxo hori!*

BENAT.—*Ez... Beharbada ez ziren hola, ez baitzuten, nik bezala, aski bekokirik pentsatzen zutenaren erraiteko.*

HOTELERO.—*To... Horra hire kanperoa non den... Kotsola hadi... Agur, Bixente,... Zer modu?*

VIII

KANPERO, HOTELERO, BENAT

KANPERO.—*Agur, agur deneri... Gu, ondo... Zuek ere bai?*

BENAT (*Bizi bizi*).—Gauza bera neukan nik ere gogoan oraintxe.

OSTALARIA.—Ik? Zer billaukeria gero?

BENAT.—Amabost egun otan kanperoa ageri ez eta saltsaren bat tartean ez ote dabillen nengoan oraintxe, ura aal bezain luze emendik urruti eukitzeko.

OSTALARIA.—Zer saltsa uste dek tartean dala?

BENAT (*Zakar*).—Bai omen dira kanperoren batzuek, ostalariak ala eskaturik, trena galtzen dutenak.

OSTALARIA (*Asarre*).—Begira zak! Len ere esan diat, nik ez dedala kulparik kanperoa orren berandu etortze ontan... Beraz, emen kontentu ez baaiz, joan inteke beste ostatu batera.

BENAT (*Legor*).—Bai eta, baditeke, lenengo ta azkenengo dala emen lo egiten dedana.

OSTALARIA.—Lenengoa aiz i, emen errenkura entzuten dedana. Ez dituk ola mintzatu izan, ire aurretik emen izan diran gazteak; eta irekin etorritako Pantxo ori ere.

BENAT.—Ez, ala da; ez bait-zuten nik bezela bekokirik asko, pentsatzen zutena esateko.

OSTALARIA.—To! Orra nun datorren ire kanperoa. Poztu adi. Agur, Bixente,... Zer modu?

VIII

KANPERO, OSTALARIA, BENAT

KANPERO.—Agur, agur denoi... Ni, ondo; eta zuek?

HOTELERO.—*Bai, bai... Ori, momento onean heldu zare... Baditutzu hemen aspaldi zu ikusi nahituak!*

KANPEROA.—*Ha, gazte,... Hi haiz, bi berrietarik bat... Non duk bestea! (Emeki mintzo da... Eskuara pixka bat arroztua du.)*

BENAT.—*Ba, ni Agerrekoa niz... Etxebeste-koa Etxegaray baitan da... Urthe mugako afaria baitute...*

KANPEROA.—*Hala duk, hala duk... Boozak—gure nagusia duk Booza— esana zaitaian bi shepherd (prononzia chepeund), bi artzain bazirela ethortzekoak hunarat... Ordu onean heldu zerate... Sheep-man, gizon batek baditik bortz mila ardi zuen gomendio... Bi mila eta erdi, bakotzak izanen ditutzue, Chewer-Lakeko mendian alharazteko... Bakotzak zuen ardiak zain, eta gauaz elgarretarat bil.*

HOTELERO.—*Wizky?*

KANPEROA.—*Ez... Eskerrak! Segido Etxegaray hotelerat goatza...*

BENAT.—*Noiz izanen dugu lana haste?*

KANPEROA.—*Bihar berean ethorriko zarete nerekin... Orai bildots gehienak salduak ditia-
gu... Ardiak motz, marroak eman, karnizeroa-
ri azken saltzeak egin, eta libro izanen zarete mendirat... Hogoï bat egun izango ditutzue beherean egoiteko, hemengo buru beltzen, zakkurrekin eta, gobernatzan ikasi artio. (Xutitzen dira.)*

BENAT.—*Bildotsak saldu ditutzila?... Ardiak zertarik egiten ditutzi?*

KANPEROA.—*Bildotsen hazkuntza, Nevada-n egiten ditek... Handik erosten ditiagu ardiak. Ikasiko duk ba orai hemengo modua... Bueno... Athoz nerekin... Agur, hotelero,... Bihar artio!*

OSTALARIA.—Ondo gu ere... Ordu onean etorri zera. Badituzu emen zu ikusteko zaleturik aspaldi ontan zeudenak.

KANPERO.—Ah, gazte! I al aiz, bi artzai berrietan bat? Nun dek bestea? (*Goxo mintzatzzen da, amerikano antzera; euskera pixkaren bat zaildua.*)

BENAT.—Bai, ni Agerre-koa naiz; Etxebeste-koa, Etxegaray Hotelean da. Urte-mugaren bateko afaria omen dute.

KANPERO.—Aa! bai! Ala dek... Booza-k—gure nagusia dek Booza ori— esan baitzidan bi *shepherd* (*esan beza xeperd*), bai bi artzai bazirala etortzekoak onuntz. Ordu onean eldu zerate. *Sheep-man*, gizon batek bazeuzkak bost milla ardi, zuek zaitzeko. Bakoitzak bi milla ta erdi izango dituzute, Chower-Lacheko mendian bazkatzeko. Bakoitzak bere ardiak zaitu, eta gaba egitera elkarrengana bildu.

OSTALARIA.—Wixki?

KANPEROA.—Ez; eskerrik asko! Etxegaray-ren Hotelera goaz bereala...

BENAT.—Noiz asiko gera lanean?

KANPEROA.—Bigar bertan etorriko zerate nerekin... Orain bildots geyenak salduak dizkiagu. Ardiak moztu, aariak eman, arakiñari azken kontuak egin, eta libre izango zerate mendira joateko. Ogei bat egun izango dituzute oraindik, emen bean egoteko, emengo buru beltzak, zakurrekin eta, gobernatzan ikasi artean. (*Txutitzen dira.*)

BENAT.—Bildotsak saldu dituzutela? Eta ardiak, nundik ateratzen dituzute?

KANPEROA.—Bildotsak Nevada-n azitzen dituk. Guk andik erosten dizkiagu ardiak. Ika-siko dek, bai, emengo legea. Tira orain; ator nerekin. Agur, ostalari. Bigar arte.

HOTELERO.—*Bai, Bizente, bai!* (Jalitzen dira.)

Ausarta tzarra!... Nere nahiz, kanperoak treina huts egin duela!... Nahi nitek jakin nork argitzen dituen hola, orai huncrat heldu diren gazteak!

OYHALA

OSTALARIA.—Bai, Bixente. (*Irteten dira*)

Ausarta-tzarra! Orrek neri esateko, nik naita kanperoak trena galtzen dutela! Jakin naita nitek nork argitzen dituan ola, orain onera etortzen diran gazteak!

OYALA

IRUGARREN GERTALDIA

I

PANTXO, BENAT

JOKA-LEKUA.—(Mendian argi zirrintza, Kanpo bat... Ohe, arma, su-toki, nahi bada belazko-etxol eta hola. Pantxok, hastetik buru, boza grinatsu, minbera du... Biek bizarra larri dute.)

PANTXO (Ohean erdi etzanik).—*Atzo arratsan, ez bahintz jin, zer bilakatua nintzen ikusterat, ez hin eni bertze bisita baten egiteko lanik ukanen. (Edaten du bidun batetik.)*

BENAT (Lurreko suan, kafea berotzen ari).—*Zer egingo hin?... Hire buruaz, fin gairto?*

PANTXO.—*Arrunt etsitua ninduan... Zonbait lerro banitian izkiriatuak etxekor. Papera hor diat oraino portofullian!*

BENAT.—*Yes!... Hoin gazte, hola etsitua!*

PANTXO.—*Ba... Erenehun, 30 ardi falta utzi nitian, dakikan bezala. Atzo, egun guzia, heien ondotik ibili-eta, bat ez nezakela arrapa ikusi nielarik, burua galdua nian.*

IRUGARREN GERTALDIA

I

PANTXO eta BENAT

JOKA-LEKUA.—*Mendian egunsentia, kanpoan... Oi, arma, su-toki, nai bada oyalerko txabola eta alako zerbait. Pantxok, asieratik eta bukaera arte, eztarria lakar ta boza mindua du... Biok bizarra naiko aundi.*

PANTXO (*Oyea erdi etzanik*).—Bart arratsean etorri ez baintz nola nengon ikustera, ez uan beste bein ni ikustera etortzeko lanik izango. (*Edaten du bidoi batetik.*)

BENAT (*Lurreko suan kafea berotzen ari da*).—Zer egingo uan ba?... Ere buruari erremate txarra?

PANTXO.—Zearo etsia nengokan. Lerro batzuek idatzi ere egin nizkikan etxekoentzat. Papera oraindik or zedukat poltxikoan.

BENAT.—Jes!... Orren gazterik ola etsia?

PANTXO.—Bai. Erenegun ogei ta amar ardi galdu zaizkidak, dakikan bezela. Atzo, egun guztia ayen ondotik ibilli eta, bat ere ez nezakela topa ikusirik, burua zearo galdu nian.

BENAT.—*Lau, bortz galtzea, egun batzuz, gertatzen dena duk hemen... Bainan, 30 soberaxko duk.*

PANTXO.—*Zer behar zioiat, zer erran kanperuari?... Zer bilakatu direla ene ardiak? (Edaten du.) Eritasunez hil direla erraiteko, hilik ez bizirik, ez diat frogatzat... Basa alimalek, kujotiek edo hartzek eraman dituztela ere erraiteko, 30 soberaxko duk, bereziki arrastorik gabe... Ha, ene bizia!... Abantxu bi urthe baditik hemen girela mendian, basak bezala bizi, eta sos bat, aditzen duk, sos bat ez diat oraino bazterrera emanik.*

BENAT.—*Irabazi egin duk ba... Bainan beiratzan ez dakik.*

PANTXO.—*Jada, bizpahiru aldiz, muthilgotik kanpo abantxu ezarri bainik kanperoak, orakoan ez diat eskaporik.*

BENAT.—*Beldurtzeko duk... Bera hemen izanen duk ixtantean!*

PANTXO.—*Zer behar zioiat erran?*

BENAT.—*To... nik ez zakiat!*

PANTXO.—*Ha... Ene burua garbitu banu bederen atzo aratsean! (Edaten du.)*

BENAT.—*Utz atzik holako zozokeriak bere gisa... Eta, gutixago edan zak... Gau guzia hor hako hire edari horri lotua... Ez hu horrek onduko!*

PANTXO (Kexu).—*Errak! Nik nahi badiat edan, ez nuk hik debekatuko!... Enetik ari nuk, ez hiretik!*

BENAT (Kexu hau ere).—*Errak, Pantxo, edak nahi baduk, bainan zozokeria guti ibil-zak gero enekin!... Gau osoa airean nuk, hiregatik eta askitsu badiat.*

(Kalapitan lotzen' dira.)

BENAT.—Lau edo bost galtzea, zenbait aldiz gertatzen dana dek emen; bañan ogei ta amar, askotxo ere badek, bai.

PANTXO.—Zer esan bear zioat orain kanpe-roari? Zer gertatu zayela nere ardiai? (*Edaten du.*) Gaxoz il dirala esateko, etzeukat erakus-teko, ez bizirik ez illik... Basa-piztiren batek —otso edo artzak— eramán dituala esateko ere, ogei ta amar ardi askotxo dituk, batez ere arrastorik utzi gabe... Ah! nere bizia! Laister dituk bi urte emen gaudela, mendian, basatiak bezela bizi izaten; eta txanpon bat —aditzen al dek?— txanpon bat ere ez diat esku artean sobraturik.

BENAT.—Irabazi egin dek, ba. Bañan gorde-tzen ez dakik eta.

PANTXO.—Bi edo iru aldiz kanperoak erabilli natxiok morrontzatik ia botarik; oraingoan ez diat eskaporik.

BENAT.—Bildurtzeko dek, bai. Bera emen izango dek laister.

PANTXO.—Zer esan bear zioat nik?

BENAT.—Etzekiat ba nik.

PANTXO.—Ah! Nere burua garbitu banu be-deren bart arratsean... (*Edaten du*)

BENAT.—Utzi itzak olako zozokeriak alde ba-tera. Eta edan zak gutxiago. Gau guztian or ago ire edari orri tiraka. Uste al dek orrek erremediatuko auala?

PANTXO (*Asarre*).—Aizak! Nik edan nai ba-diat, ik ez nauk galeraziko! Neretik ari nauk, ez iretik!

BENAT (*Asarre au ere*).—Aizak, Pantxo: edan zak nai badek; bañan zozokeria gutxi erabilli-ko dek gero nerekin! Gau guztian ez diat be-girik itxi iregatik, eta badiat naikoa.

(*Ixkanbillan asten dira.*)

PANTXO.—*Hire faltak dituk denak... Hire falta duk, ardiak eskastu bazaizkiat!...*

BENAT.—*Nolaz ene falta?*

PANTXO.—*Zerendako ez dituk zaindu, ni beherat jautsia ninduan denboran!*

BENAT.—*Hire ardiak bethi zaindu dauzkiat eta zainduko ere, beheiti joaiten bahiz beharrez, bainan ez beheiti joaiten bahiz plazerrez.*

PANTXO.—*Hik, zer dakik ni zertarat joaitekoa nindian beheiti, oraiko aldian?*

BENAT.—*Ez zakala uka... Berdin argitua nuk leku seguretik: Neska'tzar bat esperantza hin hire "roulotterat", eta hari buruz jautsi hiz... Ardiak bakarrik utzi dituk, eta anartean barratu zauzkik... Hanbat gaxto hiretzat...*

PANTXO.—*Ez hiz hi gehiago adixkide bat!*

BENAT.—*Errak, hi eta ni ere, noiztenka jautsi izan gituk, bi hiru egunentzat hagin bat jaltzeko edo bertze holako afera seriosez. Orduan, bethi elgar lagundu diagu, batek bertzearen arthaldea zainduz... ez duka hori hola?*

PANTXO.—*Zerendako ez dautak zerbitzu bera egin, oraiko aldian?*

BENAT.—*Oraiko aldian, ez... Ez bahakik zerendako? Zeren eta, nahi badiat izan laguntzaile, ez baitiat nahi izan hire ibilpide makurren tapagailu.*

PANTXO (Edaten du).—*Hik, ene ibilpidetan, ez duk deus ikustekorik!*

BENAT.—*Ez adila beraz eni pleini, dirurik ez baduk baztertzen... eta ekak edari hori hunararat... Aski baduk edanik!*

PANTXO.—Ire faltak dituk danak. Ire falta dek, neri ardirik galdu bazait.

BENAT.—Nere falta nola?

PANTXO.—Zertan ez dituk ondo zaitu, ni errian izan naizen garayan?

BENAT.—Ire ardiak beti zaitu izan dizkiat nik, eta baita zaituko ere, errira joaten baaiz bearrez; bañan ez errira joaten baaiz atsegiñez.

PANTXO.—Ik zer dakik ni zertara joan naizen beera oraingoan?

BENAT.—Etzakela ukatu. Bide onetik zekiat. Neskatar bat ire ondora ekarri-zurrian joan aiz... Eta ardiak, bakarrik utzi ortarako; eta ardiak bitartean banatu eta galdu. Orixe dek guztia.

PANTXO.—Ez aiz i emendik aurrera neretzat adiskide.

BENAT.—Aizak: i eta ni ere, noiz-beinka jextxi izan gaituk errira, bi edo iru egunerako, agin bat ateratzea dala edo beste olako zer-egin benetako batera. Eta orduan beti elkarri zintzo lagundu zioagu, batak bestearen artaldeak zaituaz. Ez al da ori ola?

PANTXO.—Eta zertarako ez didak egin serbitzu bera oraingo aldian?

BENAT.—Oraingo aldian, ez. Eta bai al dakik zergatik? Lagunaren laguntzalle nai diat izan; bañan ez lagunaren ibilpide makurren tapa-tzalle.

PANTXO (*Edaten du*).—Ik ez dek nere ibilpideetan ezer ikustekorik.

BENAT.—Ez adilla ari, beraz, neri lanturik jotzen, dirurik etzaiakela esku artean sobratzen eta abar... Eta ekatzak edari ori onera; edan dek-eta naikoa.

PANTXO.—*Errak, manatuko duk gero hire buruari, eta ez eni.*

BENAT.—*Ekak hori hunarat! (Bidona kendu nahi dio.)*

PANTXO.—*Ez... Ez duk ukhanen.*

BENAT.—*Beharko eman! (Pixka bat hatozkatuz, kentzen dio.) Lehenago zainak eri ditukalā-eta, ez nauk erho zain hemen egongo!*

PANTXO.—*Kanibeta sartzen deiat gero ez badautak edaterat emaiten!*

BENAT.—*Bakea emak!*

PANTXO.—*Ikusiko duk harma hartzen badiat!*

BENAT.—*On huke pixka bat pentsatzen bahu, ixtantean kanperoa hemen izanen baituk, zer erranen diokan hire ardiez... Engoitik, batzuz ala bertzez jakintsun egina bide duk hemen gertatuez.*

PANTXO.—*Ba, ni salatzeke hobeak dituk ba, hemengo inguruko artzain ustelak, eni ebatsi ardien itzultzeke baino!*

BENAT.—*Zer froga duk ardiak ebatsi dauzkitela?*

PANTXO.—*Segur nuk, eni eskastu ardiak, hil-eta jaten ari direla!*

BENAT.—*Ho: Hori hemengo legea duk... Ardi galdua, arrapatzalearen duk... Hik eta nik ere, ardi errebelatuak hiltzen ditiagu jateko... Hori ez duk ardien ebastea.*

PANTXO (Nigarrez).—*Ho, ene ama gairoa... Ez nuzu ikusten! (Ixtant bat ixilik.)*

BENAT (Eztiago mintzo).—*To, har-zak kafe xorta bat beroa... Hunek on eginen dauk!... Mendien kasko zuriak argitzen hasiak dituk... Hire eta ene ardier behako bat behar ziotei at eman... Gain hartako basa perrexilarekin hain*

PANTXO.—Aizak! Agindu aklok ere buruari, eta ez neri.

BENAT.—Ekatzak ori onera. (*Bidoa kendu nai dio.*)

PANTXO.—Ez; ez dek izango.

BENAT.—Bearko eman! (*Bultzadako bat eman ez, kentzen dio.*) Lendik zañak gaxo ditukala ta, ez nauk emen ero zai egongo.

PANTXO.—Labana sartuko diat, gero, ez baidak edatekoa ematen.

BENAT.—Eman zak pake!

PANTXO.—Ikusiko dek, arma artzen badiat.

BENAT.—Obe ukek pixka bat pentsatuko bau, kanperoari zer esan bear diokan ire ardiez, emen bait-dek oraintxe laister. Onezkero batek edo bestek jakifaren gañean jarriko bait-zuan, emen gertatu danez.

PANTXO.—Bai, ni salatzeke obeak dituk, bai, emen inguruko artzai ustelak, lapurtu dizkidaten ardiak neri biurtzeke baño.

BENAT.—Nundik dakik, ardiak lapurtu dizkitekela?

PANTXO.—Seguru nauk, neri galdutako ardiak, il eta jaten ari dirala.

BENAT.—Oh,... Ori emengo legea dek: "Ardi galdua, billatzallearena". Ik eta nik ere, ardi arkituak iltzen dizkiagu jateko. Ori ez dek ardia lapurtzea.

PANTXO.—Oh! (*Negarrez*) Nere ama gaxoa! Ez nauzu ikusten. (*Une batean ixilik.*)

BENAT (*Goxoago mintzatuaz*).—To: artzak kafe pixka bat beroa. Onek on egingo dik. Mendi-tontor zuriak argitzen asiak dituk. Ire eta nere ardiei begiratu bat eman bear zleat. Ain dituk zoratuak gain artako basa-perrejilaren-

*dituk erhotuak!... Beherean baino goizago er-
natzen dituk! (Jalitzen da.)*

PANTXO (Bakarrik... Kafea edanez).—*Ha, zer
bizia!... Bakarrik!... Begien aintzinean bethi
mendi borthitz basa... Ardiak, bi zakur eta as-
to bat lagun... Sekulan ez norbaiten elhe go-
xo bat... Izan larruraino bustia, eri sukharre-
tan, edo iduzkiez kixkalia, nehor ez urrikaldu-
ko denik... Ez igande, ez astelehenik... Baka-
rra denetako: jateko, garbitasun, jostura egi-
te... Bethi gauza bera!... Zertarat jin niz ni
hunarat?... Zer zozokeria!... Ha, Eskual-He-
rria! Ene herria!... Ene etxea! (Erdi etzanik,
goxoki kantatzen du.)*

*Sor-lekua utziz geroz
ondikotz hala beharrez,...*

Ha zer kanta!... Nola bihotza jotzen duen!

*Oroit-adi, bai xoria,
herri maiteko berriez,
nere aitaz, nere amaz,
nigarrez han nik utziez,
mintza hakit aurhidez eta
mintza lagun on hekiez,
mintza nihor ahantzi gabe
maite nintuen guziez.*

*Ha, balakite han ni zer sentimendutan na-
gon hemen!... Zertarat jin bainatz ere hunarat!
Zer erhokeria!... Atzo aratsean, ardi galduen
ondotik, egun osoa ibili-eta, lehertua, kanporat*

tzat... Be aldean baño goizago ernatzen dituk mendian. (*Irteten da.*)

PANTXO (*Bakarrik, kafea artuaz*).—Ah! Zer bizia auxe!... Bakarrik!... Begien aurrean beti mendi izugarri oyek... Ardiak, bi zakur eta asto bat lagun. Sekulan ez norbaiten itz goxo bat. Zaudela larruraño bustia, edo sukarretan eri, edo eguzkiak kixkalia, iñor ere ez errukituko zaizunik... Ez igande, ez astelen,... Bakarrik danetarako: jateko, garbitasunerako, jostura egiteko,... Beti gauza bera... Zertara etorri naiz ni onera? Nolako zozokeria!... Ah Euskalerrria! Nere erria! Nere etxea! (*Erdi etzanik gozoki kantatzen du.*)

Sor-lekua utziz geroz
ondikotz ala bearrez,...

Oh! Nolako kanta!... Nola biotza jotzen duan!

Oroit adi, bai, txoria,
erri maiteko berriez,
nere aitaz, nere amaz,
negarrez an nik utziez,
mintza akit aurridez eta
mintza lagun on aikiez,
mintza iñor ahantzi gabe
maite nintuen guziez.

Ah! Balekite an, ni zer sentimentutan nagon emen! Zertara etorri nintzan, ordea, onera? Nolako erokeria! Atzo arratsean, ardi galduen ondotik egun osoa ibilli ondoren, leertua

itzuli nizelarik, ardirik gabe, ha, arrunt burua nahasi zaut... Fin gaixto egiterat deliberatua nintzen... Azken letra hor dut oraino!... Orhoitzeko izanen baitut:

"Etxeko maiteak; etsiduraz dut fin gaixto egin... Badakit gaizki egiten dudala, bainan ahalge niz bizitzeko... Ez penarik har... Ez dadiela gazterik jin hunarat... Ez dadiela!... Ha, aita entzun banu!

BENAT (Sartuz).—*Gure ardiak oraino multzo multzoan dituk... Ahatik, ez luzakotz. Badiat uste kanperoa heldu den. Ez urrun, astoaren urhatsak entzun ditiat bethi.*

PANTXO (Asaldata).—*Kanperoa!... He, kanperoa!*

BENAT.—*Ba, nik uste!... Haren tenora duk hau!*

PANTXO.—*Ho, ho, ho!... Nik, zer behar zioiat erran?*

BENAT.—*To... ez zakiat nik, egia hoberenik... Berdin denetaz argitua bide duk... Ez duk lehen aldia ardiak galtzen direla mendi hautan!*

PANTXO.—*Xahu nuk!... Errak, ene alde mintzatuko hiza?*

BENAT.—*Ez hut zikinduko... Salba ahala salba, hire alde ariko nuk... Ez ditiat beharrean ene adixkideak ukatzen.*

PANTXO.—*Uste duka badakiela beheiti izan nukela, ardiak berak utzirik?*

BENAT.—*Ez zakela dudarik egin, sahetsetik ontsa argiturik jinen dela!*

PANTXO.—*Ho, ho, ho,... (Ixtant bat ixilik dago, eskuz bisaia tapatuz.) Ekak edaterat!*

BENAT.—*Bakea emak... Baduk aski edanik...*

barrutira eldu nintzanean ardirik gabe... ah! burua zearo naastu zitzaidan. Erremate txarra egiteko ere banengon... Azken karta ere or daukat gorderik, betiko oroitzagarri izan dezadan:

“Etxeko maiteak: Gauza onik ez dedala etsi eta il det nere burua. Badakit gaizki egiten dedala; bañan aspertua nago bizitzeko. Ez artu penarik... Ez dedilla etorri inor gazterik onera; ez dedilla etorri! Ai, aitañen esana entzun banu!...”

BENAT (*Sartuaz*).—Gure ardiak oraindik bilduak zeudek. Bañan uste diat gure kanperori laister etorriko dala. Urruti gabe aren astoaren pausoak entzun dizkiat.

PANTXO (*Asaldatua*).—Eh? Kanperoa? Kanperoa!?

BENAT.—Bai, nik uste. Auxe dek aren etorri-garaya.

PANTXO.—Oh, oh, oh!... Nik zer esan bear zioat?

BENAT.—Etzekiat nik. Nolanai ere, egia esatea, onena. Onuzkero dana bazekik... Eta ez dek lenengoa, mendi auetan ardiak galtzen dirana.

PANTXO.—Garbituko niok (natxiok)! Aizak, nere alde mintzatuko al atzayo?

BENAT.—Ez aut galduko. Salba ala salba, ire alde ariko nauk. Ez dizkiat nik adiskideak bearranean ukatzen.

PANTXO.—Uste al dek badakiala, ardiak bakarrik utzi ta errira jetxi naizenik?

BENAT.—Uste dezakek bayetz. Sayetsetik bat-edoren-batek ondo angituta etorriko dek.

PANTXO.—Oh, oh, oh! (*Une batean ixilik, eskuz aurpegia estalirik.*) Ekatzak edaten.

BENAT.—Eman zak pakea! Badek asko len

Eta, ez baduk hobeki kasu emaiten, edanak galduko hu.

PANTXO (Koskatua).—*Ez baduk eman nahi, nihaurrek hartuko diat gero! (Xutitzen da.)*

BENAT.—*So-egizak, untzi hori hor utzak!*

PANTXO.—*Egarri niok!*

BENAT.—*Hor duk ithur-hotza hurbil!*

PANTXO (Oldartuz).—*Ez nezakela kezaraz gero! Nik hortarik nahi diat!*

BENAT.—*Ez duk huntarik edanen!*

PANTXO (Errabian, hurbilduz).—*Zer behar duk?... Hik manatu nik noiz edan? He, hik!*

BENAT (Lepotik hartuz).—*So egizak!... Bizaflako ez badituk hartu nahi, ago hire tokian geldirik!*

II

KANPERO, BENAT, PANTXO

KANPEROA (Agertuz).—*Zer da!... Zer da!*

BENAT (Berexten dire).—*Ha, hemen zira, kanpero!... Muthiko hau da puxka bat ahuldua!*

KANPERO.—*Ha! Zer hau!... Mendiko minak hartu hi ere? Ez haiz lehena!... Bakarrik gain hautan bizitzeko, gogo bihotzak fermu behar ditik... Chewer-lakeko mendi hau, ez duk gero Irauko edo Kurkulako bortua.*

BENAT.—*Ba, nahi gabeak ere izan ditu-eta, kuraia galdua du!*

KANPERO.—*Jakinak ditiat zehetasunak!... Kuraia galdu duela... Eta, ardi multso bat ere ba... Ez dituk, dudarik gabe, berritz atzeman?*

PANTXO.—*Ez!*

KANPERO.—*Boozarekin egon nauk!... Hire ordaina hor diat nerekin... Hire puskak harazkik eta karrea astoaren gainean hotelerat*

ere... Eta kontuz ez baabil, edanak galdu bear au i.

PANTXO (*Asarre*).—Ez badidak eman nai, neronek artuko diat. (*Txutitzen da.*)

BENAT.—Beirok gero! Utzi zak ontzi ori or.

PANTXO.—Egarri niok (natxiok).

BENAT.—Or daukak iturri otza urbil asko.

PANTXO (*Bero*).—Ez nazakela aserrazi gero! Nik ortatik nai diat!

BENAT.—Ez dek ba ontatik edango.

PANTXO (*Oso aserre. Arengana joanaz*).—Zer nai dek? Ik agindu, nik noiz edan? E? Ik?

BENAT (*Zintzurretik elduaz*).—Beirok! Ago ire lekuan geldirik, bi zaplaztako artu nai ez badituk.

II

KANPERO, BENAT, PANTXO

KANPEROA (*Agertuz*).—Zer da! Zer da!

BENAT (*Bereixten dira*).—Ah? Emen al gera, kanpero? Ba, mutil au pixka bat auldua.

KANPEROA.—Zer? Mendiko miñak artu al au i ere? Ez aiz lenengoa. Gain auetan bakarrik bizi izateko, gogo-biotzak sendo bear dituk, Chewer-lake-ko mendi au ez dek gero Urbia-ko edo Aralar-ko zelaya.

BENAT.—Ba... naigabeak ere izan ditu eta, jakaña, adorea galdu du.

KANPEROA.—Jakin dizkiat xeetasun guztiak. Adorea galdu duala... eta ardi sail bat ere bai... Ez al dituk berriz billatu?

PANTXO.—Ez.

KANPEROA.—Nagusí Booza-rekin egon nauk... Ire lan-saria emen diat nerekin. Orain, ire pus-kak artu itzak, eta asto gañean Hotelera era-

itzuliko hauku... Ilhabete hau osorik pagatua izanen zauk!... Gero, hire bizia aphailatuko duk ahal dukan bezala.

(Pantxok, trixteki burua behehitzen du.)

BENAT.—*Ez duzia oraino, pixka bat gehiago, hemen utzi nahi?... Azken entsegu baten egi-terat!...*

KANPERO.—*Ez... Arthaldea bera utzirik urruntzen den artzaina, ez duk artzaina. Eta ez dik lehen aldia, ardiak, kasu eman eskasian, errebelatzen dituela!*

PANTXO (Bizi-bizia).—*Hartzak edo kujotiek jokatu badituzte, nik zer kulpa dut?*

KANPERO.—*Beheretan, pinotegi eta elhorri zurien artean, ez duk bethi errex ardien zaintzea eta biltzea!... Bainan gain hautan, urrun bixtatzen ahal dituk... Hemen ez duk arrazoi-rik hoinbertze betan errebelatzeko!*

III

INDIANO, KANPERO, BENAT, PANTXO

INDIANO.—*Good morning! (Astoa deskargatzen ari da... Errepusta ematen diote hitz berez.)*

KANPERO.—*To, horra ardien gatza!... Jatekoa ere hor duzue bientzat... Aste batena... Bere lana aski diok erakustea huni!...*

BENAT.—*Zer dautazu?... Indiano hori ematen laguntzat?*

KANPERO.—*Ba... Ez diagu, mementokotz, bertze artzainik esku-pean! Ez duk gizon gaitoa!... Ahatik, kasu eman behar diok pixka bat... Horren makurra: zurruta dik soberaxko maite... Ari haiz pixka bat hemengo mintzai- rez?*

mango augu. Illabete au osorik pagatuko zaik... Gero, erorrek eratuko dek ere bizia, al dekan bezela.

(*Pantxok, triste-triste burua beeratzen du.*)

BENAT.—Ez al diozu oraindik pixka bat ge-yago utzi nai... azken sayo bat egin dezan?

KANPEROA.—Ez. Artaldea bere gisa utzirik joaten dan artzaya, ez dek artzaya. Eta ez dik lenengo aldia, badakik, ardura gabez galtzen dituana.

PANTXO (*Bizi bizi*).—Artzak eta koyotiak jaten badituzte, nik zer erru det?

KANPEROA.—Beetan, piñutegi ta elorri txuri artean, ez dek beti errex ardiak zaitzea ta bil-tzea. Bañan, gain auetan, urrutira ere ikusten dituk. Emen ez dek arrazoirik, orrenbeste ardi batean galtzeko.

III

INDIOA, KANPEROA, BENAT, PANTXO

INDIOA.—Good morning. (*Astoa deskargatzen ari da... Itz berez erantzuten diote.*)

KANPEROA.—To! Orra ardientzako gatza. Jate-na ere or dezute biontzat, aste baterako. Era-kutsi akiok oni bere lana egiten.

BENAT.—Zer? Indio ori ematen al didazu la-gun?

KANPEROA.—Bai. Ez diagu, oraingotz, beste artzairik esku artean. Ez dek gizon gaiztoa. Bañan begiratu bear diok pixka bat. Orren ma-kurra, orra: zurruta dik geltxo maite... Ikasi al dek pixkaren bat emengo izkuntza?

BENAT.—*Egin-ahalak egiten ditut trebatze-ko!*

KANPERO.—*Ez zakiat aise kompreniko duzuen elkar!... Horrek ere bere mintzaira badik, eta hemengoa guti komprenitzen dik!... Agian, lagun fermua gertatuko zauk!...*

BENAT.—*Bon...*

KANPERO (Pantxori).—*Hire ohea bilzak eta karga... Indianoak berea heda dezan...*

(Pantxo eta Indianoa ari dira karga eta deskarga.)

BENAT.—*Pantxok atzemanen ahal du lana behere hetan?*

KANPERO.—*Agian ba!... Hori ez duk nere egitekoa.*

BENAT.—*Ez diozu hemengotz fama txarrik emanen?*

KANPERO.—*Ez... Bertzeentzat bezala, eriz jausia dela menditik, erranen diat, eta nahi badu, ageria ere emango zioiat, bere artzain lana ondo egin duela! (Ixtant bat ixilik, okupatuak daude.)*

BENAT.—*Zerbait bero hartuko duzia, urrundu aintzin?*

KANPERO.—*Ez... Segidan bear diat itzuli... Egun, goiz iduzkiak berotuko dik... Zerua urdindu baino lehenago nahi nitek itzalean sartu! (Pantxori) Bon... Kargatu dituk denak, phitsik ahantzi gabe?*

PANTXO.—*Ustez ba!... (Jalitzen da.)*

KANPERO (Benateri, aphaletik).—*To, gure neska horrek, potreta ttiki hau hiri emateko esan dautak!... Hitz bat baduk barnean... Bertzalde, postaz ethorri dituk bi letra... To-itzik. (Gorago) Bon... Goazen aurrerat! Zonbait egunak artio, Benat,... (Indianoari) Good bay!*

PANTXO (Benateri, eskua luzaz tinkatuz, bi-

BENAT.—Egíñalak egiten ditut pixka bat trebatzen.

KANPEROA.—Etzekiat, alkar aixa konprendituko ote dezuten. Orrek ere badik bere izkuntza jatorra, eta emengoa gutxitxo zekik... Agidanean lagun zintzoa aterako zaik.

BENAT.—Baiki!

KANPEROA (*Pantxori*).—Biltzak, eta karga ire oya, indioak berea ipiñi dezan.

(*Pantxo eta indioa, karga eta deskarga, lanean.*)

BENAT.—Pantxok arkituko al du lana errian?

KANPEROA.—Agidanean bai. Ori ez dek nere egitekoa.

BENAT.—Ez diozu, noski, emengotz fama txarrik emango?

KANPEROA.—Ez. Besteentzat bezela, orrentzat ere, gaxoz jatxi dala menditik, esango diat. Eta nai badu, ageria ere emango zioat, bere artzailana ondo egin duala. (*Une bat ixilik, bakoitza bere lanean.*)

BENAT.—Zerbait bero artuko al dezu, joan baño len?

KANPEROA.—Ez. Bereala itzuli bear diat. Gaur eguzkiak goiz berotuko dik. Zerua urdindu baño lenago, nai nikek itzalean sartu. (*Pantxori*) Kargatu al dituk danak, ezer aztu gabe?

PANTXO.—Ustez bai. (*Irteten da.*)

KANPEROA (*Benat-eri ixil antzean*).—To! Gure neska orrek, bere irudi txiki au iri emateko esan zidak. Idatzitxo bat ere badik barruan... Ortaz gañera, korreoz, bi karta etorri dituk iretzat. Toitzik. (*Goyago*) Tira, goazen aurre-ra! Beste egun batzuek arte, Benat! (*Indioari*) Good bay.

PANTXO (*Benat-eri, eskua luze estutuaz, biotz*

hotz barnetik).—*Benat, ... Milesker... Barka zadazkik gaizki erabiliak!*

BENAT.—*Xantza on, Pantxo!... Goberna-adi ontsa!*

PANTXO (Indianoari).—*Good bay!*

(Indianoak errepostu bera. Biak urruntzen dira.)

BENAT.—*Berritz ere lagun berria!... Nor eta zer othe da gizon hau!... Lehenago guti lagun, eta orai bat ere ez!... Ha, zer biziaren segida!... Hemen irabaziak, irabaziak direla gero! Zakur bati ez baita desiratzeko hemengo bizia!*

Ean zer dion Kanperero alabak. (Paketa idkitzen du eta karta irakurtzen.) "Lephoko hau, nihaurek trikotatu dautzut, zure 25 urtheren ohoretan... Bihotz bihotzez zurekin nago!... Benita!"

To, hala duk, 25 urthe bethe ditiat!... Gaizo neska!... Nola ilusitua ahatik!... Ez diot ba den gutieneko esperantzarik eman, eta ez emango ere!

To... Terexaren bi letra... Ha, zer plazerra, herriko berrien errezebitzea, toki urrun hant! (Irakurtzen hasten da.)

INDIANOA (Irriz).—*Good, good letter!...*

BENAT.—*Yes, yes, ... Good!... Ba, ba, gaixo Terex... Jainkoaren ondotik, horrek nu gehienik sustengatzen, hemengo oren hitsetan!*

(Letra irakurtzen du aintzina.)

OYHALA

barrundik) Benat,... Milla esker! Barka zaizkidak gaizki esanak!

BENAT.—Suerte on, Pantxo! Goberna adi ondo.

PANTXO (*Indioari*).—Good bye.

(*Indioak erantzun bera. Biak urrutiratzen dira.*)

BENAT.—Berriz ere lagun berria. Nor eta zer ote da gizon au? Leenago lagun gutxi; eta orain, noski, bai ere ez. A zer bizimodua! Emengo irabaziak, bai ondo irabaziak! Zakur bati ere ez bait-da opa izateko emengo bizia!

Ea zer dion kanperero alabak? (*Paketea ideki du eta karta irakurri.*) “Lepoko bufanda au, neronek egün dizut, zure ogei ta bost urteren gogoangarri. Biotz biotzez zurekin nago!... Benita”.

To, ta ala dek! Ogei ta bost urte bete dizkiat!... Neska gaxoa! Nolako ametsetan sartua gero! Ez zioat, ba, dan gutxieneko esperantzarik eman, eta ezta emango ere!

Ara! Terexaren bi karta... Nolako atsegina, erriko berriak jakitea toki urruti auetan! (*Irakurtzen asten da.*)

INDIOA (*Parrez*).—Good, good letter!

BENAT.—Yes, yes... Good!... Bai, bai, Terexa gaxoa!... Jaungoikoaren urren, aretxek bizkortzen nau geyenik emengo ordu tristetan.

(*Eskutitz irakurtzen jarraitzen du.*)

OYALA

LAUGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—Bigarren gertaldiko bera.

I

ANTON, HOTELERO, GABRIELA

ANTON.—(Kalapitan hoteleroarekin).—*Kopeta behar duzu gero! Eni otoa erosi, hilabetea pagatzeko. Lehen hilabetea pagatu dautazu, eta otoa saldu duzu! Eta geroztik, ez dautazu pilik eman!*

HOTELERO.—*Pagatuko daia. Har zak pazientzia pixka bat!*

ANTON.—*Zer, pazientzia hartu? Badu sei hilabete pazientzia hartzen dudala! Orain aski badut harturik. Hasteko, fama txarrak ditu zure hotelak... Errekarat adi dela... Edo ekazu zor dautazuna, edo sesia egiten dautzut!*

HOTELERO.—*Nork erran dauk errekarat ari naizela? Gezurra duk hori!*

ANTON.—*Ez dakit gezurra den hori!... Maiz barne hau hutsa ikusten dut segurik... Eta, ez*

LAUGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—*Bigarren gertaldikoa bera.*

I

ANTON, OSTALARIA, GABRIELA

ANTON (*Ostalariarekin ixkanbillan*).—Kopeta bear da gero! Neri autoa erosi, illabeteka pagatzeko. Eta lenengo illabetea pagatu dezu; eta gero autoa saldu; eta geroztik ez didazu zuriko bat ere eman.

OSTALARIA.—Pagatuko diat. Artzak pazientzia pixka bat.

ANTON.—Pazientzia artu?... Bada urte erdi pazientzia artzen dedala. Naikoa det oraintxe. Gañera soñu txarrak dira zure ostatu onentzat. Porrot egitera zoaztela edo. Biretan bat: edo-ta ekatzu zor didazuna, edo-ta enbargoa egiten dizut.

OSTALARIA.—Nork esan dik iri porrotean gaudena? Gezur garbia dek ori!

ANTON.—Ez dakit gezurra ala egia dan; bafian aspaldian uts xamar ikusten det barru au.

ziuztete Pantxo eta haren iduriko lagunek bizi-araziko!

HOTELERO.—*Muthikoa, konpreni zak!... Alaba, hoinbertze denboraz klinikan egon zaitak! Horrentzat behar nian dirua... Hortako diat otoa 'saldu!*

ANTON.—*Nik ez dut phits ikustekorik zure familiako ixtoriotan! Nik ene hartzekotan nahi dut sartu!*

HOTELERO.—*Pagatzeko astia utz datak! Ez nauk deus gabe. Badiat bankoan diru pixka bat!*

ANTON.—*Zure bankoko diruak ez nu ni on-tzen! Hasteko ez dut sinesten, han dirurik baduzula!*

HOTELERO.—*Zer, ez dudala bankoan dirurik? Nahi duk nerekin bankoraino ethorri?*

ANTON.—*Ba eta segidan nahi baduzu!*

HOTELERO (Koleran, zerbitzatzeko tauliera kenduz).—*Debru barne idor presatua!... Boon... Ez diat bankorat laguntzarik behar... Bainan haugi hunarat nik banko itzulia egin orduko, eta, dena ez bada, parte on bat bederen emanen deat.*

ANTON.—*Ontsa da!... Ikusiko duzu ixtantean! Eta, ez baduzu zure hitza beiratzten, jakin azu behar diren ibilpideak ibiliko ditudala, onez onean ematen ez duzuna, bortxaz eman beharko baituzu! (Jalitzen da.)*

HOTELERO (Oihuz).—*Gabriela! O, Gabriela!*

GABRIELA (Agertuz).—*Zer da, aita?*

HOTELERO.—*Zerbitza-azu hemen, ni berritz ethorri artio!*

GABRIELA.—*Urrun zoazi!*

HOTELERO.—*Ez... Bankoraino... Behar ditut*

Nolanai dala, Pantxo batek eta orren antzeko lagunak etzaituzte bizi-araziko.

OSTALARIA.—Motell, konprendizak... Alaba orrenbeste denboran klinikan izan diat. Ortarako bear nian dirua; ortarako saldu diat autoa.

ANTON.—Nik ez det batere zer ikusirik zure familiako gora-beeratan. Nik nere artzekotan sartu nai det.

OSTALARIA.—Utzi zadak asti pixka bat pagatzeko! Ez nauk ezer gabe. Badiat bankoan diru pixka bat.

ANTON.—Zure bankuko diruak ez nau ni pozten. Gañera, ez det sinisten bankuan dirurik daukazunik.

OSTALARIA.—Zer? Ez dedala bankuan dirurik? Nai al dek nerekin bankuraño etorri?

ANTON.—Bai, eta berealaxe, nai badezu.

OSTALARIA (*Aserre, serbitzeko mantala kenduaz*).—Deabru, biotz legor, ipurt-errea! Ondo zegok. Ez diat bankorako laguntza bearrik. Bañan ator onera berriz, nik bankuko joan-etorria egin ordurako; eta, dana ez bada ere, puska on bat emango diat.

ANTON.—Ondo dago! Eta ikusiko dezu: ez badezu zure itza betetzen, nik ibilliko ditut bear diran ibil-pideak, onez ematen ez dezuna, indarrean ta bortxaz eman dezazun. (*Irtetenda.*)

OSTALARIA (*Oyu egiñez*).—Gabriela! O, Gabriela!

GABRIELA (*Agertuaz*).—Zer da, aita?

OSTALARIA.—Serbi zazu emen, ni berriz etorri arte.

GABRIELA.—Urrutira al zoaz?

OSTALARIA.—Ez, bankuraño. Ama zanaren

ama zenaren joiak estimarazi eta hek berme,
dirua behar dut athera!

GABRIELA.—*Ho... Ama zenaren orhoitzape-
nak!*

HOTELERO.—*Zer nahi duzu! Bortzatuak ga-
re! (Jalitzen da.)*

(Ixtant bat bakarrik.)

II

BENAT, GABRIELA, KANPERO

BENAT eta KANPERO (Sartuz).—*Agur, Gabrie-
la!*

GABRIELA.—*Agur, jaunak!*

KANPERO.—*Wizky bana! (Ixtant bat ixilik...
Gabriela jalitzen da, zerbitzatu eta.) Beraz, be-
rritz bahoia Eskual Herrirat!*

BENAT.—*Ba... Joaiten niz... Etzi dut aviona.*

KANPERO.—*Zonbat urthe hemen haizela?*

BENAT.—*Sei urthe.*

KANPERO.—*Serioski lanean asi izan haiz...
Ondo irabazi duk. Jakin izan duk guardiatzen!
Hi bezalakoentzat, Amerikak Amerika dituk!
Eta nola ikusten duk hire biziaren segida?*

BENAT.—*Ho, han ikusiko zer molde kausi-
tuko dudan!*

KANPERO.—*Beha-zak, Benat... Nik ondo eza-
gutzen eta hanitz estimatzen haut! Alaba hor
diat... Hau bakarria diagu. Nahi baduk harekin
aphailatu hire bizia, nere ontasunak eta kan-
perogoa, hiretzat dituk. Ikus-hak ehorrek!*

BENAT.—*Milesker... Bainan lehenik, Eskual
Herrirat joango dut, Handik berritz itzuli-eta,
itzultzen baniz, zuk erranez orhoituko niz!*

pitxi ta joyak estimarazi bear ditut, eta oyen gañean dirua atera.

GABRIELA.—Oh!... Ama zanaren oroipenak!

OSTALARIA.—Zer nai dezu!? Beartu egiten gaituzte. (*Irteten da.*)

(*Une batean Gabriela bakarrik.*)

II

BENAT, GABRIELA, KANPEROA

BENAT eta KANPEROA (*Sartuaz*).—Agur, Gabriela.

GABRIELA.—Agur, jaunak!

KANPEROA.—Wixki bana! (*Une bat izilik... Gabriela irteten da, serbitu ta gero.*) Beraz, baoa berriz Euskalerrira.

BENAT.—Bai, banoa. Etzi det abioya.

KANPEROA.—Zenbat urte emen aizela?

BENAT.—Sei urte.

KANPEROA.—Benetan sayatu aiz lanean. On-do irabazi dek. Jakin izan dek gordetzen. I bezelakoentzat, Amerikak Amerika dituk. Eta zer asmo dek orain?

BENAT.—Ori an ikusi bearko: ia zer bizi-bide topatzen dedan.

KANPEROA.—Begira, Benat. Nik ondo ezagutzen eta ixtimatzen aut. Alaba or diat. Alaba bakarra. Nai badek arekin lotu ire bizia, nere ondasunak eta kanperotza iretzat dituk. Ikus zak eorrek.

BENAT.—Milla esker! Bañan lenengo, Euskalerrira joan bear det. Andik berriz itzultzean, itzultzen banaiz, zuk esandakoz oroitu-

Mementokotz ene geroaz ez dakit deus segurrik! Eskual-Herrirat-eta, han ikusiko dut zer egin!

KANPERO.—*Hire geroaren jabe haiz... Eginazkik hire pentsaketak... Bahakik Benitak nola hitaz burua hartua duen... Agian, ondo atherako zarete, ba hi eta ba hura... Bon, esanak esan... Gure artean dagotzila. Eta agur! (Jalitzen da... Gabriela agertzen ere baita.)*

BENAT.—*Ba, agur... (Gabrielari) Aita nun duzu?*

GABRIELA.—*Ez da urrun, ez!*

BENAT.—*Eta Pantxo, bethi hemen muthil dago?*

GABRIELA.—*Pantxo ez da gehiago hemen muthil, bainan hemen hartzen du pentxionea.*

BENAT.—*Zer lanetarik bizi da?*

GABRIELA.—*Ho! Ahal duen bezala! Mementoan, zapeta ziratzetik... Ez duzu ikusi pasatzean? Hōr du bere ttattola, karrika buruan!*

BENAT.—*Gizagaizoa!... Hortaratua dea? Uste nuen bethi hemen muthil zela!*

GABRIELA.—*Ez... Lehenik baxera garbitzeko eta lan larrietako hartu ginuen. Gero eritu zen. Luzaz egon zen ospitalean... Orai ez du osagarri haundirik. Eta guk ere, ez ginuen gehiago harentzat lanik. Eta hor dago miserable!*

BENAT.—*Gaizoa! Zer zortea!*

GABRIELA.—*Zer nahi duzu!*

III

BENITA, BENAT

BENITA (Sartzen da, arrunt asaldatua... Gabriela jalitzen da).—*Agur, Benat!*

BENAT.—*Te! Agur, Benita! Zu hemen?*

ko naiz, Orain oraingotz, nere geroaz ez dakit ezer segururik. Orain beintzat Euskalerrira, eta an ikusiko det zer egin.

KANPEROA.—Ire geroaren jabe aiz. Egin-itzak ire pentsaketak. Badakik gure Benitak nola itaz burua artua duan. Agidanean, ondo aterako zerate, bai i eta bai ura. Baiki! Esanak esan... daudela gure artean. Eta agur! (*Irteten da,...* ta *Gabriela agertzen.*)

BENAT.—Bai, agur! (*Gabrielari*) Aita nun dezu?

GABRIELA.—Ez da urruti.

BENAT.—Eta Pantxo beti emen, morroi?

GABRIELA.—Pantxo ez da emen morroi; emen bizi bai, baño.

BENAT.—Zer lanetatik bizi da?

GABRIELA.—Oi! Al duan bezela. Oraingo al-dian zapata garbitzetik. Ez al dezu ikusi bi-dean? Or du bere ttattola, kale buruan.

BENAT.—Gizagajoa! Ortarañotua da beraz? Uste nuan orain ere emen morroi zegola.

GABRIELA.—Ez. Lendabizi bai, ontzi garbitzeko ta lan larrietarako artu genduan. Bañan gero gaxotu egin zan. Luzaro ospitalean egon zan. Orain ez du osasun aundirik. Eta guk ere ez genduan arentzako lanik. Eta or dabil errukarri.

BENAT.—Gizagajoa! Zer suertea!

GABRIELA.—Zer nai dezu?

III

BENITA, BENAT

BENITA (*Sartzen da zearo asaldatua. Gabriela irten.*)—Agur, Benat!

BENAT.—Oi! Benita! Zu emen?

BENITA.—*Ba, zure ondotik nabil...*

BENAT.—*Zer duzu? Bahakizu, dudarik gabe, atzo menditik jauntsia nizela eta etzi aviona hartzen dudala!*

BENITA (Erdi negarrez).—*Ez zaitela hemen dik aldara! Ez zazula avionik har!*

BENAT.—*Zerendako ez?*

BENITA.—*Zaude hemen! Ez othe gare biak bizitzen ahal? Zaude hemen.*

BENAT.—*Gibelerat itzuliko niz... Etxekoan ikusterat joan behar dut!*

BENITA.—*Ez, ez zira gibelarat ethorriko! Badakit! Ez zira gehiago ethorriko!*

BENAT.—*Zer dakizu zuk?*

BENITA.—*Ha... Badakit, norbaiten letrak betxi xuxen errezebitzen ditutzula! Nik zuri bialdueri, ez zinuen arrapostarik ere egiten! Eta hari, abantxu aste guziez!*

BENAT.—*Ez dautzut lehen ere deus hitzeman! Ez deusetan enganatu!*

BENITA.—*Ho, nik zu zaitut maite... Hilenaiz bazterrerat uzten banauzu!*

BENAT.—*Zaude ixilik! Denborak denak kontsolatzen ditu!*

BENITA.—*Bederen, zurekin Europarat ereman nezazu... Ale... Heldu naiz zurekin!*

BENAT.—*Ez zazula burua gal! Zaude hemen deskantsuan! Eta, nork daki? Beharbada, hiru nilabethe gabe, berritz hemen ikusiko nuzu!*

BENITA.—*Ba, aise! Zuk esaten bai!*

BENAT.—*Zendako ez?*

BENITA.—*Egin-azu beraz juramentu betikotz ethorriko zarela! Hale! Juramentu egin-azu!*

BENAT.—*Ho... Hori sobera galdatzen dautazu!*

BENITA (Nigarrez).—*Ba... Ikusten dut... Fini, fini zera neretzat.*

BENITA.—Bai; zure ondotik nabil.

BENAT.—Zer dezu? Badakizu, dudarik gabe, atzo menditik jetxi nintzala eta etzi abioya artzen dedala.

BENITA (*Erdi negarrez*).—Etzaitzezela emendik joan iñora! Etzazula abioyik artu!

BENAT.—Zergatik ez bada?

BENITA.—Zaude emen! Ez al giñezke biok bizi? Zaude emen!

BENAT.—Berriz etorriko naiz. Etxekoak ikus-tera joan bear det.

BENITA.—Ez, etzera berriz etorriko. Badakit! Etzera geyago etorriko!

BENAT.—Zer dakizu zuk?

BENITA.—Bai. Badakit, norbaiten kartak betizaten dituzula. Nik zuri egindakoai, etzenien erantzunik ere egiten. Eta ari, berriz, ia astero!

BENAT.—Ez dizut iñoiz ere nere itzik eman. Etzaitut ezertan engañatu.

BENITA.—Oh! Nik zu zaitut malte. Ilko naiz, baztèrrera uzten banazu!

BENAT.—Zaude ixilik. Denborak danak az-tuerazten ditu.

BENITA.—Bederen, zurekin Europara eraman nazazu. Tira! Banoa zurekin!

BENAT.—Etzazula bururik galdu! Zaude emen geldi! Eta, nork daki? Bearbada, iru illa-bete gabe, berriz ere emen ikusiko nauzu.

BENITA.—Bai! Aixa! Zuk esan bai!

BENAT.—Zergatik ez?

BENITA.—Egizu, ba, juramentu, betiko etorriko zerala. Tira! Egizu juramentu!

BENAT.—Oh! Ori geitxo eskatzen didazu.

BENITA (*Negarrez*).—Bai... Ikusten det... Akabo! Akabo zera neretzat.

BENAT.—*Benita, norbait heldu da!*

BENITA.—*Bueno... Banoa... Berritz ikusiko zaitut. (Jalitzen da.)*

IV

ANTON, BENAT, HOTELERO

ANTON (*Sartuz gurutzatzen du Benita.*)—*Agur, Benita!*

(*Benitak ez dio erreposturik ematen.*)

ANTON (*Benateri.*)—*To, hor hiza? Zer zian, to, holako sapan, neska horrek?*

BENAT.—*Bihotza pixka bat hautsi zaiok, ikusiz hemendik urruntzen nukela!*

ANTON.—*To, xantza duk!*

BENAT.—*Nolaz diat xantza?*

ANTON.—*Holako alaba on baten etxean sartuko baihiz. Badie gero horiek ontasun iruzkitan!*

BENAT.—*Bizkitartean ez zioiat onhartu!*

ANTON.—*Zer arrazoinez?*

BENAT.—*Batetik, gorapen eta beherapen sobera aise dituen neska bat baituk hori.*

ANTON.—*Ba... Hemengo neska gehienena duk hori! Han baino beroago eta basago dituk gero hemen!*

BENAT.—*Bertzetik, ez nuk diruarekin ezkonduko, bainan bihotzarekin!*

ANTON.—*Bihotzarekin? Zer, oraino hortan hiza? Uste balin baduk hire bihotzari kasu emanen duten neskatzek, hirekin ezkontzeko! Diru hanitz izan-zak, eta bihotz erakusle frango izanen duk! Dirua die gu baitan xerkatzen, eta ez bihotza!*

BENAT.—*Baduk, hetan ere orotarik!*

BENAT.—Benita: norbait badator.

BENITA.—Banoa. Berriz ikusiko zaitut. (*Irte-
ten da.*)

IV

ANTON, BENAT, OSTALARIA

ANTON (*Sartuaz, topo egiten du Benita*).—
Agur, Benita!

(*Benitak ez dio erantzuten.*)

ANTON.—(*Benat'eri*).—To! Or al intzan? Zer
zian, olako berotasunean neska orrek?

BENAT.—Biotza pixka bat autsi zayok, emen-
dik banoala ikusiaz.

ANTON.—Suertea dek orratik!

BENAT.—Nola gero suertea?

ANTON.—Olako alaba baten etxean sartzea,
alegia. Baditek, gero, oyek txanponik erruzki.

BENAT.—Nik, ba, etzioat on-artu.

ANTON.—Zer arrazoi dek, ez on-artzeko?

BENAT.—Batetik, gora ta beera askotxo iza-
ten dituala.

ANTON.—Ba... Emengo neskarik geyenak di-
tek ori. An baño beroago ta basatiago dituk
gero emen.

BENAT.—Bestetik, berriz, ez naizela diruare-
kin ezkonduko, biotzarekin baizik.

ANTON.—Biotzarekin? Zer? Oraindik ortan
aiz? Uste al dek, ire biotzari begiratzen dio-
tela neskatzak, irekin ezkontzeko? Diru asko
izan zak, eta biotz-itxura asko izango dek in-
guruan. Dirua bear izaten diagu etxean, eta
ez biotza.

BENAT.—Era guztietakoak izaten dituk nes-
katzak bazterretan.

ANTON.—*Sinhets nezak. Balinbaduk ahala neskatzá dirudun batekin ezkontzeko, hura har-zak emaztetzat lehenbailehen... Bihotz eta amodiozko ixtorio pilixta horiek, utz-aizik bere gisa haurrendako. Moltsa jori baduk, nahi ditukan bihotz guziak berdin horetako dituk. Orai eta gero ere!*

BENAT.—*Ez diat bizi berduratu bati lotugo... Emazte bat, bakea familian, lana, Eskual-Herriko goxotasuna, horietan bizitzeko xedea diat.*

ANTON.—*Ni ez nuk batere emazte hartzeaz grñatua! Berdin, gero ere, dotzenean hamahiru hor izanen ditiat. Biziaz nahi diat lehenik ontsa baliatu... Eta anartean, ez diat, emazterik sahetsean nahi ere nardagailu!*

BENAT.—*Bakotzak bere gustu! Badiat uste ahatik, hire haurreko katiximatik, pixka bat baztertua hizen!*

ANTON.—*Puh... Aphezen erraneri behar baginikek jarraiki, baginikek to zer egin!... Hasteko hemen baduk asko erlijione mota... Hail, to, hi jakiterat, zoin den hoberena!*

BENAT.—*Dugulakoaz eta dugunaz bederen, segur behar ginikek.*

(Ixtant bat ixilik daude.)

ANTON.—*Pantxo ikusia duka?*

BENAT.—*Ez... Zer diok hartaz?*

ANTON.—*Phitsik ez duk hura... Eskale erresta bat bilakatua duk.*

BENAT.—*Poxi bat lagunduz, errekatik jaltzen ahal baginu!*

ANTON.—*Hura jali den hainetik? Ez dik itxurarik?*

HOTELERO (Agertuz).—*To, hor haiz eta, hi ere Benat! Zer haiz? Itsaso bertzaldera abian?*

BENAT.—*Ba... Hala niz!*

ANTON.—Sinista nazak. Baldin badek erarik neskaxa dirudun batekin ezkontzeko, ezkon adi lenbailen berarekin. Biotz eta maitetasunezko ipui polit oyek utzi itzak bazterrera umeentzako. Diru-poltsa beterik badaukak, nai ditukan biotz guztiak iretzako dituk... Orain eta gero.

BENAT.—Ez diat, bizi ustel bati lotu nai nere burua. Emazte bat, pakea familian, lana, Euskalerriko goxotasuna: lau gauza oyetan bizi izateko asmoa diat.

ANTON.—Ni ez nauk batere, emazte artzeko bero. Berdin gero ere or izango dizkiat "dozenan amairu". Biziaz ondo baliatu nai diat lenengo. Eta artean ez diat emazterik baztarrean nai, narda ta aspergarri.

BENAT.—Bakoitzak bere gustu. Uste diat, orratik, ire txikitandikako kristau legetik pixkaren bat baztertu aizela.

ANTON.—Apaizen legetik? Apaizen esa-mesai begira bagaude, izango diagu zer egin... Gañera emen badek erlijio klaserik asko. Auskalo zein dan onena!

BENAT.—Degula eta degunaz beintzat seguru bizi bear genikek.

(Une bat ixilik daude.)

ANTON.—Pantxo ikusi al dek?

BENAT.—Ez. Zer diok arentzat?

ANTON.—Ezer ez dek ura. Eskale-ondar egiñik zegok.

BENAT.—Pixka bat lagunduaz, errekatik ateratzen lagun bagenezayo...

ANTON.—Ura atera, dagon izaeratik? Ez diat uste.

OSTALARIA (*Agertuaz*).—To! Or aiz i ere ta, Benat. Zer abil? Itxasoz beste aldera abian?

BENAT.—Bai, alaxe naiz.

HOTELERO.—*Ez haiz hanitzik agertu hunarat, mendirat iganez geroz! Zer hintzan? Hire moltsa zain egoiten?*

BENAT.—*Ohoinak sendi direlarik, guardian egoitea hobe!*

HOTELERO.—*Engoitik, hoin xuhurki biziz, dolar meta pixkorra ere bildu bide duk hik! Pantxori pixka bat pasatzen ahal diok. Hirekin ethorria, ez baituk hire hein berean!*

BENAT.—*Hein hortarat jausten lagundu dutenek, berritz altxatzen lagunduko ahal dute!*

HOTELERO.—*Zer naukak? Ni hobendun, horren miseriaz?*

BENAT.—*Ez du bethi iduri, hemengo muthilgotik hanitzik ondu dela!*

HOTELERO.—*Hanbat gairto beretzat! Aski zian ontsa gobernatzea! (Antoni) Anton, heldu haiz gibelesko salaraino! Behar ditiagu bi solas erabili.*

(Anton jalitzen da.)

BENAT (Bakarrik).—*Zer den ahatik bizia! Duela sei urthe, barne huntan berean ginen, jin berriak, hiru eskualdun gazte, hein bertsu-koak. Nola biziak elgarretarik urrundu gituen! Alta, sei urthe, ez dira ba mende bat!*

V

PANTXO, BENAT, ANTON

PANTXO.—(Sartzen da, bere keza bizkarrian, ile bizarrak luze, errumes bezti,... sartzen da,... Behin, Benatek ez du ezagutzen ere.)

BENAT (Azkenean ezaguturik).—*Yes! Hi! Hi, ez hiza Pantxo?*

OSTALARIA.—Zein gutxi azaldu aizen onerā, mendira igo intzan ezkerok? Zertan egon izan aiz? Ire boltsatxoa zaitzen?

BENAT.—Lapurrak senti diranean, guardia egitea obe.

OSTALARIA.—Onuzkero, orren xuurki bizi izanez, dolar-pilla polita bildua izango dek ik! Pantxori pixka bat ematen al diok. Irekin etorria izan arren, ez bait-dek ura ire mallara eldu izan.

BENAT.—Dagon malla ortara erortzen lagundu diotenak, berriz ere altxatzen lagunduko al diote!

OSTALARIA.—Zer? Ni egin nai al nauk errudun, orren egoera gaxoaz?

BENAT.—Ez dirudi beintzat, emen zuen morroi egon zanean asko ondu zanik.

OSTALARIA.—Anbat gaxtoago beretzat! Askozian, ondo ta zuzen gobernatzea. (*Anton-i*) Anton: ator atzeko salaraño. Itz bi egin bear dizkiagu elkarrekin.

(*Anton irteten da.*)

BENAT (*Bakarrik*).—Zer dan, orratik, bizia! Orain sei urte ostatu ontan bertan giñan, etorri berriak, iru euskaldun gazte, irurok malla beretsukoak. Biziak nola elkarrengandik urrutiratu gaituan! Sei urte ez dituk, ba, gizaldi bat ere!

V

PANTXO, BENAT, ANTON

PANTXO (*Sartzen da, bere zapata garbitzalle kaja bizkarrean, ille ta bizarra luze, arlote jantzian... Benat'ek ez du ezagutzen ere.*)

BENAT (*Azkenean ezaguturik*).—Jes? I? I ez al aiz Pantxo?

PANTXO.—*Benat!*

BENAT.—*Agur, Pantxo gaizoa! Yes, yes, yes! Ez hintuan ezagutzen ere! Hi, hi, Etxebesteko semea, hortaratia?*

PANTXO (Burua behehituz).—*Ba, ahalge nuk nihaur!*

BENAT.—*Bainan muthikoa, nolaz hiz holakatu?*

PANTXO.—*Eritasunak... Mendikotz ez on... Hirian, nehon ezin arrapa ene heineko lanik! Horra to!*

BENAT.—*Muthikoa, behar duk bertze zerbeitarat entseatu! Hori ez duk ofizio bat! Oraino gazte hiz!*

PANTXO.—*Sobera behera eroria nuk, berritz jalitzeko!*

BENAT.—*Ez duk nehor hain behera erori ezin baitzukek jali... Jalitzeko nahia behar dik!*

PANTXO.—*Enia engoitik egina duk!*

BENAT.—*Gaizo Pantxo! To, ni etxerat abian nuk... Etzi hartzen diat aviona! Gabriela, ekatzu bi wizky! Gaizo hi! Eta, hire familian bahakie nola hisan?*

PANTXO.—*Nekez! Eta hik othoi ez zakela deus sala!*

BENAT.—*Bainan... Hola ez hintazke egon! So egizak... Ni partitzen bainuk, ene arropetarik emanen dauzkiat, poxi bat bezi hadin... Dirua ere utziko deat... Bezi adi, eta bertze lan zerbaitarat entsea adi!*

PANTXO (Buruarekin ez eginez).—*Orai, berantegi duk!*

ANTON (Sartuz, harroki mintzo da Pantxori).—*To, hor hiza, hi ere buhamia! Ontsa jina hiz... (Jartzen da eta zangoa luzatzen dako.) Goizean zapetak ziratu gabe, jali bainuk etxetik, to, zira-hazkidak orai! Hola ikusiko dik*

PANTXO.—Benat!

BENAT.—Pantxo gaizoa!... Motell! Ez indudan ezagutzen ere. I? I, Etxebeste-ko semea, ortaraño eroria?

PANTXO (*Burua beeratuaz*).—Bai. Lotsa nauk neroni ere.

BENAT.—Motell, bañan nola ortaratu aiz?

PANTXO.—Gaxotasuna... Mendirako on ez; eta kalean ezin arkitu nere moduko lanik. Orixe izan dek guztia.

BENAT.—Motell: Beste zeozertara sayatu bear dek. Ori ez dek iretzako ogi-bidea (ofizioa). Oraindik gazte aiz.

PANTXO.—Beeragi erorita niok (natxiok), berriz altxatzeko.

BENAT.—Ez dek iñor erori iñoiz, berriz ezin altxatzeraño. Altxatzeko gogoia: orixe bear dik.

PANTXO.—Onezkero ba, nereak egin dik.

BENAT.—Pantxo gizagajoa!... Ni, ba, etxera abian nauk. Etzi artzen diat abioya... Gabriela, ekaitzu bi wixki. Gizagajoa! Eta zuen etxean bai al zekitek nola egon?

PANTXO.—Ez noski.. Bañan ik ez nazakela salatu.

BENAT.—Bañan bañan... Ola ezin inteke egon! Begira! Ni banitxeak, eta iretzat nere erropa erabilliak. Jantzi adi pixka bat. Eta diru puxka bat ere utziko diat. Jantzi adi, eta sayatu beste zerbait lanetan.

PANTXO (*Buruari eragiñez*).—Ez; beranduegi dek.

ANTON (*Sartuaz, arro mintzatzen zayo Pantxo'ri*).—To! Or al intzan i ere, ijitu ori? Ondo etorriko atzakit. (*Exeri eta anka luzatzen dio Pantxo'ri*) Goizean zapatak garbitu gabe irten nauk etxetik, eta garbi ezazkidak orain ik. Ola

Benatek ere, zoin abilki pratikatzen dukan hire ofizioa! To, wizky turnada on bat irabaziko duk!

(Pantxo xutitzen da, bere lanari buruz.)

BENAT (Idorki).—*Pantxo ago hire tokian!*

ANTON (Irri larri batekin).—*Zer! Utz-hak zombait sosen irabazterat... Badik beharra!*

BENAT (Serioski).—*Errak, Anton! Bahakika zer ari izan? Ez hiza ahalge holako lan baten galdatzeko adixkide eta herritar bati?*

ANTON (Kexu).—*Zer kalte egiten zioiat? Irabazia emaiten zioiat!*

BENAT.—*Batere gizon bahaiz, gisa hortako irabaziak emanen dituk nahi dukeneri, bainan ez huni.*

ANTON.—*Zer hiz hi ere?... Herresten lauzkan abiatia? Lehenagoko apostolua haiz ba orai ere!*

BENAT.—*Nahi baduk... hura bera nuk... Eta nizen bezalako nahiago diat, diruz hanpatu moltsa idor bat izan baino!*

ANTON (Xutitzen da, koskatua).—*Eta, ez zakiat zueri zendako kasurik egiten dudan ere! Nardatzen nuzue azkenean! Ez zukek gehiago mintza ere! Iduri eta zuen beharretan nizan! (Jalitzen dela.) Eta hemendik harat, bakea emanen duzi eni!*

BENAT.—*Hail nahi baduk bethikotz! Ez hiz berdin gu arterat, guk galdeginik jina! (Bakarrik) Ze debru da holako! Ez dela gure beharrean... Hori, zerbait gutarik nahi duelarrik da, beraz, bakarrik, gure adixkide nahi! Eta guk, hortarik zerbait behar badugu, orduan ez gITU ezagutzen ere! Beretzat nahi luzken gisan, nahi ditugu, guk ere guretzat, adixkideak! Egun txarretan ere, lehial egonen direnak, eta*

ikusiko dik Benat'ek ere, zeñen abilki egiten dekan ire ofizio berria. Wixki baterako aña aterako dek.

(*Pantxo zutitzen da, bere lanean asteko.*)

BENAT (*Legorki*).—Pantxo: ago ire lekuan!

ANTON (*Parre larri batekin*).—Zer? Utzayok diru pixka bat irabazten. Etziok kalterik egingo.

BENAT (*Bekoki illun*).—Aizak, Anton: bai al dakik zer egiten dekan? Ez al dik lotsik ematen olako lan bat adiskide ta erritar bati eskatzeak?

ANTON (*Aserre*).—Kalterik egiten al zioat? Irabazia ematen zioat.

BENAT.—Batere gizon baalz, nai dekanari emango dizkiok olako irabaziak, ez oni.

ANTON.—Zer aiz i ere? Narras guztien la-guntzalle? Ondo lengo apostolua aiz, bai, orain ere.

BENAT.—Bai, nai badek. Lengoxe bera nauk. Eta naizen bezelakoa izan nayago diat, diruz puztutako boltsa legorra izan baño.

ANTON (*Txutitzen da, mindua*).—Etzekiat, zertarako itz egiten dizutedan ere. Nazkatzen nauzute azkenerako. Ezta itzik ere geyago zuekin! Uste al dezute zuen bearrean naizela? (*Kanpora abian*).—Eta emendik aurrera, pakea emaidazute neri!

BENAT.—Joan adi, nai badek, betiko! Len ere ez aiz etorri, guk deituta. (*Beretzako*) Zer deabru da ori olakoa? Ez duala gure bearrik... Gure bearrean danean bakarrik da, beraz, gure adiskide? Eta gu aren bearrean geranean, orduan ez gaitu ezagutzen ere. Berentzat nai ginduzteken neurrian nai ditugu, ba, guk ere guretzat adiskideak: egun txarretan ere leyal

ez bakarrik aizea eskualde dugun egunetan.
(Ixilik ixtant bat.)

(Pantxori) *Hik, Pantxo, behar huke hire gogo hori poxi bat sendatu! Hik dukan eritasuna, ez baituk gehienik gorputzean, bainan izpirituan.*

PANTXO (Trixteki).—*Orai berantegi duk!*

BENAT.—*Nolaz berantegi! Jalitzeko nahikunde dea pitz hak... Oldar bat egi-zak.*

PANTXO.—*Orai berantegi duk!*

BENAT.—*To, Pantxo, pena egiten dautak! Nahi diat sakrifizio bat egin hiretzat... Nahi duka enekin jin? Piaia pagatzen diat!*

PANTXO (Gogoetatua aphur bat egonik).—*Ez!*

BENAT.—*Zendako ez?*

PANTXO (Trixteki).—*Ez!*

BENAT.—*To... Nik ez zakiat ba zer egin gehiago hire onetan!... Sarri haugi Etxegáray baitarat... Elgarrekin afalduko diuk! Emanen dauzkiat hitzemanak eta erabiliko ditiagu azken solasak... Sarri artio! (Jalitzen da.)*

PANTXO.—*Ba... Sarri artio!*

(Bakarrik... Wizky ondarra edaten du... Ixtant bat, gogoetatua dago... Bat batean sepan nigarrez lotzen da.)

OYHALA

izango diranak, eta ez aizea gure alde degu-
netan bakarrik. (*Une bat ixilik.*)

(*Pantxori*) Ik, Pantxo, ire gogo ori pixka
bat sendotu egin bear ukek. Ik daukaken ga-
xotasuna, ez dek gorputzekoa, biotzekoa ta
animakoa baizik.

PANTXO (*Tristeki*).—Orain beranduegi dek.

BENAT.—Nola gero, beranduegi? Altxatzeko
gogo pixka bat piztu zak. Sayo bat egin zak.

PANTXO.—Orain beranduegi dek.

BENAT.—Pantxo, Pantxo: pena ematen di-
dak. Geyago egin nai diat iretzat... Etorri nai
al dek nerekin? Biajea neronek pagatuko diat.

PANTXO (*Gogoetan apur bat egon ondoren*).—
Ez.

BENAT.—Zergatik ez?

PANTXO (*Tristeki*).—Ez.

BENAT.—Etzekiat, ba, zer geyago egin iretzat.
Etorri adi laister Etxegaray-ren Hotelera. El-
karrekin afalduko diagu. Esango dizkiat itz-
-emanak, eta aipatuko dizkiagu azken itzak.
Laister arte! (*Irteten da.*)

PANTXO.—Bai... Laister arte!

(*Bera bakarrik... Wixki ondarra edaten
du... Une batean gogoetan dago... Bat batean,
gogor negarrari ematen dio.*)

OYALA

BORTZGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—Lehen gertaldiko hura bera.

I

BENAT, TEREX

BENAT.—*Sei urthe egunez egun, hemen be-rean ginela!*

TEREX.—*Phesta hau bera zen, orduan ere! Ahatik, egungo egunak ordukoak ez bezalako begitartea du guretzat!*

BENAT.—*Zuk errazu! Orduan gure arbola, landatu berri... Eta orai, arbola lilitan.*

(Aphur bat ixilik.)

TEREX.—*Luze izan dira sei urthe, zutarik urrun... Halere, zure letreri esker, bethi zutarik urbil bizi izan niz!*

BENAT.—*Nik ere aithor dut, zure letrek hanitz lagundu eta beiratu nutela! Eta, bahakizu, othoitz hura! Bethi erran dut gero!*

TEREX.—*Nik ere ba zuretzat!*

(Aphur bat ixilik.)

BOSTGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—*Lenengo gertaldikoa bera.*

I

BENAT, TEREKA

BENAT.—Sei urte, egunik egun, emen bertan giñala.

TEREKA.—Festa au bera zan orduan ere. Gaurko egun onek, orratik, ordukoak ez bezelako aurpegia du guretzat.

BENAT.—Ori esan! Orduan gure arbola, landare berri zan; orain, ordea, arbola loratu.

(Apur bat ixilik)

TEREKA.—Luze izan ditut sei urte, zugandik urruti. Ala ere, zure kartai eskerrak, beti ere zugandik urbil bizi izan naiz.

BENAT.—Nik ere aitortzen det, zure kartak asko lagundu ta gorde nautela. Eta agindutako otoitz ura?... Beti esan det gero.

TEREKA.—Baita nik ere zuretzat.

(Apur bat ixilik)

BENAT.—*Eta hemen nehork badakia, gure arteko atxikimendua?*

TEREX.—*Ez! nehork!*

BENAT.—*Oas! Orhoit zirea, Karmenen egun hartako sarkidea? Izkiriatu zauntan gero! Bainen, ez diot behin ere erreposturik eman!*

TEREX.—*Ba, gaixoa, oraino hor dago errabian ezkondu nahia!*

(Aphur bat ixilik.)

BENAT.—*Ha, zer goxotasuna, berritz ere herrian aurkitzea, urrun tokietan ibili ondoan! Iduritzen zaut, ostatu huntan ene bizia, zurekin zeru bat izanen dela.*

TEREX.—*Enetzat ere hala-hala izanen da.*

II

MENTABERRY, BENAT, LEON, TEREX

MENTABERRY (Agertuz).—*To, hor hiza? Hi ikusi beharrez nindabilaian. Ontsa hiza? Noiz jina hiz?*

BENAT.—*Erenehun aratsean jina... Eta kontent jinik.*

MENTABERRY.—*Nola arrapatu dituk herria eta herrikoak, hango hedaduren ondotik?*

BENAT.—*Oraino, zozotua bezala niz... Ezin sinhetsia dut hemen nizala.*

MENTABERRY.—*Orhoit nuk nihaurren lehen itzultzeaz! Zer loria! Zer atsegina!*

BENAT.—*Ba,... Eni ere, zombait aldiz jin zauzkit pertsu zaharrak gogorat; (Kantuz),*

BENAT.—Eta emen inork bai al daki gu bion arteko zera?

TEREXA.—Ezta inork ere.

BENAT.—Aizu, eta gogoan al dezu egun artako Karmen-en ateraldia? Karta ere egin zidan. Bañan nik ez nion erantzunik eman, eta kito!

TEREXA.—Ba, gaxoa or dago oraindik ezkondu nai bizi bizian.

(*Apur bat ixilik*)

BENAT.—Zer goxotazuna, berriz ere errian arkitzea, urrutietan ibilli ondoren! Iduritzen zait, nere bizia ostatu ontan, zurekin, zeru bat izango dala.

TEREXA.—Neretzat ere alaxe izango da.

II

BENTABERRI, BENAT, LEON, TEREXA

BENTABERRI (*Agertuaz*).—To! Or al intzan? I ikusi bearrean nenbillekan. Ondo al aiz? Noiz etorri aiz?

BENAT.—Erenegun arratsean. Eta pozik, etorria.

BENTABERRI.—Nola arkitu dituk erria eta errikoak, ango ibillien ondotik?

BENAT.—Oraindik zozotua bezela nago. Ezin sinistu det emen nagola ere.

BENTABERRI.—Gogoan diat nik ere nere lenengo andikako etorrera. Nolako poza! Nolako atsegiña!

BENAT.—Bai. Neri ere zenbait aldiz etorri zaizkit bertso xaarrak gogora: (*Kantari*)

*Herri alde guzietan
toki onak badira,
bainan bihotzak dio:
zoaz Eskual-Herrirat!*

MENTABERRY eta BENAT.—(Betan doblatzen dute:)

*Bainan bihotzak dio:
zoaz Eskual-Herrirat.*

(Bi gazte. Leon eta Joseph, agertzen dira.)

MENTABERRY.—*Eta, osagarriz ontsa hiza?*

BENAT.—*Ba, ba,... Joaitean bezin sanho!*

MENTABERRY.—*Hobe, hobe!*

LEON.—*Agur, Benat!*

BENAT.—*Agur! nor hitut hi?*

LEON.—*Ni Leon. Eta hau Joseph.*

BENAT.—*Ui, ui, ui! Nola handitu zirezten?*

• *Ene bi lehen auzoak ez ditut gehiago ezagutzen... (Eskua emaiten diote.) Zonbat urthe ditutzi orai?*

LEON.—*Hogaira urthe!*

BENAT.—*Nola jendea kanbiatzen den!*

MENTABERRY.—*Ba,... Adin hortan bereziki.*

BENAT.—*Etxean ontsa zireztea denak?*

LEON.—*Ba, ba,... Denak ontsa!*

BENAT.—*Bon, jinen nuk agur egiterat! Zer hartuko duzi? Jar zizte!*

LEON.—*Phitsik. Edan berriak gira, eta bu-ruak behar ditugu xuxen atxiki, gure kargua ontsa bethetzeko egungo phestan!*

BENAT.—*Biba zik! Biba zik!*

MENTABERRY (Txapela kenduz Benati).—*Ean*

Erri-alde guztietan
toki onak badira,
bañan biotzak dio:
"zoaz Euskalerrira".

BENTABERRI eta BENAT.—(*Biok batean*)

bañan biotzak dio:
"zoaz Euskalerrira".

(*Bi gazte, Leon eta Jose, agertzen dira.*)

BENTABERRI.—Eta osasunez ondo al ago?

BENAT.—Bai, bai. Joatean bezin sendo.

BENTABERRI.—Obe olaxe, obe.

LEON.—Agur, Benat!

BENAT.—Agur! Nor aut i?

LEON.—Ni Leon; eta au Jose.

BENAT.—Ui, ui, ui! Nola aunditu zeraten!
Nere bi auzo urkoenak ez ditut ezagutzen. (*Es-
kua luzatuaz*) Zenbat urte dituzute orain?

LEON.—Ogeina urte.

BENAT.—Nola aldatzen geran orratik!

BENTABERRI.—Bai. Adin ortan batez ere.

BENAT.—Etxean ondo zerate danok?

LEON.—Bai, bai. Danok ondo.

BENAT.—Baiki, baiki! Joango nauk agur egi-
tera... Zer artuko dezute? Exeri zaitzte.

LEON.—Ez degu artuko ezer. Edan berriak
gera; eta buruak zuzen euki bear ditugu, gaur-
ko festan geren egin-bearra ondo betetzeko.

BENAT.—Gora zuek! Gora zuek!

BENTABERRI (*Sonbrerua Benati burutik ken-*

xapel hau buruan nola zirezten? (Entseatzen dio Leoni.) To, ez hintazke batere gaizki... Egun batez, holako bat beharko zinukete, zuek ere bainan bakotzak zuena!

LEON.—*Nork daki ez dugun izanen!*

MENTABERRY.—*Hau har zazue etsenplutzat... Sei urthe sakrifikatu ditik han, bainan orai, bere bizia deskantsuan iragaiten ahalko dik.*

LEON.—*Erreusitzekotz, entseatzea balio luke... Errazu, Terex, plaza gaineko bandera, zuen etxean galdatu behar omen da. Emanen dautazia othoi! Behar ginuke han ezarri!*

TEREX.—*Ba, muthikoak ba, gogotik... Sarzizte! (Hiruak jalitzen dire.)*

MENTABERRY.—*Berritz joaitekotan jina hiza? Ala alderat?*

BENAT.—*Ho, alderat, alderat! Badut hangotik aski!*

MENTABERRY.—*Hirekin joanak zer bilhakatu dituk?*

BENAT.—*Anton, arrunt hangotua... Pantxo berritz trixte bat bilhakatua!*

MENTABERRY.—*Ba,... Zerbait entzuna diat... Ez nuk estonatzen... Guriegi zian, guriegi, muthiko hori, hangotz! Berririk ez zutela eta, haren ama izana zaitak, zerbait jakin nezan galdezka. Emazte hori xori-buru bat duk! Ez daitaka eskandala eman nik galdu diotela semea! Andere nahi, emazte ttula!*

BENAT.—*Te... Ez dea hura bera, hantzet heldu?*

MENTABERRY.—*Ba,... Hura bera duk... Berrerat sartzen nuk... Nahiago diat horrekin ez gurutzatu!*

BENAT (Bakarrik).—*Hauxe duk maite ez dudana! Lagunen berri txarren kondatzen! Eta guziz beren ameri!*

duaz).—Ia sonbrero au buruan nola deñuten? (*Ipintzen dio Leoni.*) To! Ez daukak batere gaizki... Egunen batean olako bat bear zendeuteke zuek ere; bañan bakoitzak berea.

LEON.—Nork daki izango ez ote degun?

BENTABERRI.—Ikasi ezazute onengandik. Sei urte an egin dizkik gogotik lanean, bañan orain bere bizia emen igaroko dik atsegiñez.

LEON.—Ondo ateratzekotan, sayatzea merezi luke... Aizu, Terexa: plaza gañeko bandera zuen etxean eskatu bear omen da. Emango al diguzu mesedez? Ipiñi bear genduke.

TEREXA.—Bai, mutikoak, bai, sartu zaitezte. (*Irurak irteten dira.*)

BENTABERRI.—Berriz joatekotan etorria al aiz? ala gelditzeko?

BENAT.—Oh, gelditzeko, gelditzeko! Angotik naikoa egin degu.

BENTABERRI.—Irekin joandako irurak, zer nola utzi dituk?

BENAT.—Anton, zearo angotua. Pantxo, berriz, lur jota, zearo.

BENTABERRI.—Bai, bai; zerbait entzuna badiat. Eta ez nauk arritzen. Gurfegia uan, guriegia ura arako. Berririk ez dutela ta, aren ama lengo batez izana diat, zerbait jakin ote nezakean galdezka. Emakume ori, txori-buru bat dek! Eskandalo ipiñi ez zidak, ba, semea nik galdu diodala ta? Andre nai; ta emazte tula.

BENAT.—Et? Et? Ez al da bera, an datorren ura?

BENTABERRI.—Bai, uraxe ta bera dek. Barrura nitxeak. Nayago diat arekin toporik ez egin.

BENAT (*Bakarrik*).—Auxe dek atsegin ez dedan gauza: lagunen berri txarrak ematea. Batez ere beren amari.

KAROLINA, BENAT, MARGARITA

KAROLINA (Agertuz).—*Agur, Benat!... Itzuli zira beraz gibelerat? Bethi ontsa?*

BENAT.—*Ba, ba, Jainkoari esker. Zu ere ba?*

KAROLINA.—*Ba, osagarria badugu... Noiz jina zira?*

BENAT.—*Erenehun! Ez naiz oraino nehorat alhatu... Zuen etxerat jitekoa nintzan berriekin!*

KAROLINA.—*Ez dea, gure hura gibelaratzituzkotan?*

BENAT.—*Ez,... Oraino ez da hortarik ari!*

KAROLINA.—*Bulta bat huntan, ez du berririk emaiten... Artzaingoa utzi eta, hotel batean lotzen zela lanean, izkiriatu zaukun... Geroztik letrak bakanduz jin ziren... Aspaldian berritz ez dauku sekula izkiriatsen. Ontsa da dukarik gabe?*

BENAT.—*Ba, ba. Arras ontsa da!*

KAROLINA.—*Eta hotela bere gain hartua dia, edo zer kondizionetan da?*

BENAT.—*Bere gain, beharbada hartuko du egun batez, ba. Mementoan irabazian bizi da!*

KAROLINA.—*Alabainan, hasteko partzuer da usaia han, emeki emeki nausi bilhakatu artio!*

BENAT.—*Ba, hala da hango usaia.*

KAROLINA.—*Eta, ez dautzu letrarrik edo deus eman etxekotz?*

BENAT.—*Ez du asti handirik izan, holako zerbaiti pentsatzeko ere! Doi-doia presaka elgar ikusi dugu eta!*

KAROLINA.—*Ba, konprenitzen dut ba haren bizia... Hango hoteletan, hemengotan bezala...*

KAROLINA, BENAT, MARGARITA

KAROLINA (*Agertuaz*).—Agur, Benat! Etorri generala, beraz? Ondo?

BENAT.—Bai, bai, Jainkoari eskerrak. Zuek ere ondo?

KAROLINA.—Bai, osasuna degu. Noiz etorri zifian?

BENAT.—Erenegun. Ez naiz oraindik inor ikusten asi. Zuen etxera joatekoa nintzan, ango berriekin.

KAROLINA.—Gure ura ez al da onuntzako asmotan?

BENAT.—Ez, oraindik ez da alako asmotan.

KAROLINA.—Aspalditxo ontan ez digu berririk ematen. Artzantza utzi ta ostatu batean lanean asi zala eskribitu zigun. Geroztik kartak bakantzen joan ziran. Eta aspaldi ontan ez digu ezertxo ere eskribitu. Ondo da, noski?

BENAT.—Bai, bai; oso ondo da.

KAROLINA.—Eta ostatu ori bere gain artua al du dagoneko? edo zertan da?

BENAT.—Bere gain, bear bada, artuko du noizbait. Orain irabazian ari da.

KAROLINA.—Izan ere, asieran, sozio-lagun izateko oitura da an, poliki poliki nagusi egin arte.

BENAT.—Bai; ala da ango oitura.

KAROLINA.—Eta ez al dizu kartarik edo ezer eman etxerako?

BENAT.—Ez degu asti aundirik izan olako zerbait prestatzeko ere. Doi-doya, presaka alkar ikustea egin degu eta.

KAROLINA.—Bai, bai; konprenditzen det ango aren bizia. Ango ostatuetan, emengoetan

Gau eta egun, bethi presaka... Egiten nuen ba, hortako ez zaukula izkiriitzen! Eta, aipatu dautzia bere bizia han egingo duen, edo emazte hartzerat jingo duen, edo zerbait?

BENAT.—*Erran dautzutana! Ez dugu solas funtsik ibili. Bahakizu, ni menditik jautsi eta, avionan laster zen. Eta, doi bat bertzerik ez gira gurutzatu.*

KAROLINA.—*Kontent niz holako berri onen entzuteaz! Bahakizu, jende gaxtoak bethi baitira, gezurra nahiago dutenak kondatu, egia baino.*

MARGARITA (Agentuz).—*Ha, arrapatzen zitut, andere Karolina,... Zer zinen? Zure seme xar-mant horren berri galdez jina?*

KAROLINA.—*Ba, preseski, Margarita. Kontensko bainiz ukhan ditudan xehetasun onez!*

MARGARITA.—*Zer da? Zapeta ziratzetik aberastu?*

KAROLINA.—*Ba, badakit zer famak hedatu dituzun harentzat! Bainan egia bertzela da.*

MARGARITA.—*Ene alabak ere, haren egon tokitik, ukhaiten ditu gero berriak! Bai eta, haren potreta ere badu, nahi baduzu ikusi.*

KAROLINA.—*Zer dabila? Zure alaba oraino haren ondotik?*

MARGARITA.—*Bere haurraren aita ahal du, andere Karolina!*

KAROLINA.—*Zure alabak ez du zentzu handirik, haren pretentziona balinbadu oraino ere.*

MARGARITA.—*Alabainan, ene alaba, buhame-tarik!*

KAROLINA.—*Zuhaurek diozu!*

MARGARITA.—*Ene alaba buhame, odolez, andere Karolina,... Eta zure semea berritz buha-*

bezela: gau ta egun, beti lasterka. Pentsatzen nuan, bai, orregatik etzigula eskribitzen... Eta aipatu al dizu, beti an bizitzeko asmoa duan, ala emaztea artzera onera etorriko ote dan, edo olako zerbait?

BENAT.—Esan dizudana: ez degu izketa luze-rik egin; ni menditik jatxi eta abioya laister zan; eta uskeri bat besterik ez gera elkarrekin egon.

KAROLINA.—Pozik nago olako berri onak entzun ondoren. Badakizu: beti ere bai bait da bazterretan zenbait jende gaizto, gezurra banatu nayago duanik egia baño.

MARGARITA (*Agertuaz*).—Ah, topatzen zaitut, andre Karolina! Zer zabilta? Zure seme eder orren berriak jakitera etorria?

KAROLINA.—Bai, ain xuxen, Margarita. Pozik bait-nago, jaso ditudan xeetasun onakin.

MARGARITA.—Zer? Aberastu al da, zapata garbitzen?

KAROLINA.—Bai, badakit zer nolako fama eman diozun jende artean. Bañan dana gezurra.

MARGARITA.—Gure alabak ere izaten ditu, gero, lurralde ayetatik aren berriak. Aren erretratu bat ere badu, ikusi nai badezu.

KAROLINA.—Zer dabil zuen alaba, oraïndik ere aren ondotik?

MARGARITA.—Bere aurraren aita besterik ez du, andre Karolina.

KAROLINA.—Zure alabak ez du zentzu aundirik, aren ametsetan badago oraïndik.

MARGARITA.—Izan ere, gure alaba ijitu-kumea izan.

KAROLINA.—Zerorrek diozu.

MARGARITA.—Gure alaba, odolez ijitu, andre Karolina. Bañan zuen semea, ijitua, ez odolez,

me, ez odolez, bainan zorrez eta zorritz... Bai, andere Karolina!

KAROLINA.—*Holakatua balitz, ez laiteke zure alaba, hura bildu beharrez ariko!*

MARGARITA.—*Ez, andere Karolina,... Ez uste izan ene alaba, zure semearen gutizietan dela... Ez du zure semea galdatzen, bainan harenganik paperño bat, haurraren aita dela paperño ttipi bat. Paperño horrekin, haurrak Etxebes-teko ontasunetik ezkin bat —ho, ezkin bat bakarrik— beregana dezan. Konprenitzen duzia, andere Karolina?*

KAROLINA (Irri mehe batekin).—*Ha, ha! Ezagun duzu jende iñorantetik zirela, uste baduzu paper mutur batek, holako ahalak dituela! Ha, ha, ha! Joaiten niz, ori... Irri eginarazten dautazu! Agur, Benat, eta milesker eman dauzkidatzun berri onez!*

BENAT.—*Ba, agur, anderea!*

MARGARITA (Benati).—*Zer hango berri saktu diok, to?*

BENAT.—*Berri batzu, Margarita, behialako pegarra bezala dira: Urrundik urhez, hurbildu eta lurrez!*

MARGARITA.—*“Nor niz ni” debrusa! Gu bezala lurreko lapharretik izanagatik, horrek be-thi Phazko lili daukala bere burua, to! Aphaldu beharko dik ba oraino bere andere moko hori. (Jalitzen da.)*

IV

TEREX, LEON, JOSEPH, BENAT

TEREX (Agertuz, Joseph eta Leonekin, Bandera daramakate).—*Aski duzi phesta bururatu eta, berriz hunat bererat itzultzea!*

bañan bai zorrez eta zorriz. Bai, andre Karolina.

KAROLINA.—Ola balitz, ez litzake zuen alaba, ura bereganatu nayez ola sayatuko.

MARGARITA.—Ez, andre Karolina. Etzazula uste, gure alaba zuen seme orren ondoren dabilenik. Gure alabak ez du eskatzen zuen semerik; arengandik papertxo bat eskatzen du baizik: aurraren aita dalako paper txiki bat; paper txiki orrekin aurrak Etxebeste-ko ondasunetatik puxka bat —oh, puxka bat baka-rrik!— bereganatu dezan noizbait. Aditzen dezu orain, andre Karolina?

KAROLINA (*Far mee bat ezpañetan*).—Ja, ja! Ezagun dezu, jende ez-jakiñetakoa zerana, uste badezu paper mutur batek olako indarrak dituala. Ja, ja, ja! Joan nadin, joan nadin! Farra egiñerazten didazu! (*Benati*) Agur, Benat, eta milla esker eman dizkidazun berri on oyentzat.

BENAT.—Bai, agur, andrea!

MARGARITA (*Benati*).—Zer ango berri eman diok gero emakume orri?

BENAT.—Berri batzuek, “beñolako” pegarra bezela dira: “Urrutitik urrez; bertara eta lurrez”.

MARGARITA.—Ah, zer nolako “nor naiz ni” deabruzkoa ori! Gu bezelaxe, lurreko laharretik sortua izan arren, orrek beti burua Pazku-lore egin bear duala! Makurtu bearko dik, oraindik bere andre-moko ori! (*Irteten da.*)

IV

TEREXA, LEON, JOSE, BENAT

TEREXA (*Agertuaz, Jose eta Leonekin, bandera daramatela*).—Asko dezute, festa bukatzen danean, berriz ere onera ekartzea.

LEON.—*Ba, ... Bego gure gain, eta milesker!*

TEREX.—*Ez du zeren!*

(*Bi muthikoak jalitzen dira.*)

BENAT (Irriz).—*Irriz nago, Terex!*

TEREX.—*Zar dautzu, Margaritak, bere usaiako piko hetarik jali!*

BENAT.—*Margarita eta beste, ohartzen niz, Ameriketan edo hemen, mundua bethi mundu dela!*

TEREX.—*Ba, jendea den tokian bethi kausituko duzu jendetasuna eta haren eza. Jendetasun eskasia! ... Errazu, so egizu nor heldu den!*

BENAT.—*Nor da hori?*

TEREX.—*Karmen da... Bulta huntan hemen ikusten dut, itzulika dabila! Segur, zurekin mintzatu nahiz!*

BENAT.—*Jin dadiela! Irri egin behar dugu! Enekin izan zaite, deuz ez balitz bezala gure artean, deskantsuan argi dadien.*

(*Benatek, bizkarra Karmeni emaiten dio, alegia zapeta estekatzen okupatua.*)

V

KARMEN, TEREX, BENAT

KARMEN.—*Agur, Terex, ... Errazu, ene anea ez dea hemen agertu?*

TEREX.—*Zure anea? Ez... Ahatik, barnean ere nintzan eta ez dut biziki so egin!*

KARMEN.—*Oas! Ikusi behar nuen ba. (Eztul ttipi batzuz nahi luke Benateri so eginarazi. Bainan hau ez zaio itzultzen.) Behar bada jaun hunek ikusi duke?*

TEREX.—*Galde ozu berari!*

LEON.—Bai, bai; bego gure gain; eta milla esker!

TEREXA.—Ez da zeri!

(*Bi mutillak irteten dira.*)

BENAT (*Farrez*).—Farrez nago, Terexa.

TEREXA.—Zer jalki dizu Margarita orrek bere betiko mingain ortatik?

BENAT.—Margarita edo Bargarita, Ameriketan edo emen, gauza bat da betiko gauza: mundua beti mundu dala.

TEREXA.—Bai, bai; jendea dan tokian, beti arkituko dezu “jendetasuna” eta “jendetasunik-eza”... Aizu, begira nor datorren.

BENAT.—Nor da, ba, ori?

TEREXA.—Karmen. Aldi ontan emen ikusten det, joan-da etorri dabillela. Seguru, zurekin mintzatu nai du.

BENAT.—Datorrela, datorrela. Far pixka bat egin bear degu. Zaude nerekin, gu bion artean ezer ez balitz bezela, orla bere burua argiago agertu dezan.

(*Benat'ek Karmen'i bizkarra ematen dio, makurtuta zapata lotzen ari alegia.*)

V

KARMEN, TEREXA, BENAT

KARMEN.—Agur, Terexa,... Aizu, gure anaya ez al da emen agertu?

TEREXA.—Zuen anaya? Ez. Bañan, barruan ere ibilli bait-naiz, ez dezaket esan.

KARMEN.—Jas! Ikusi nai nuan, ba. (*Eztul txiki batzuek egiñaz, Benat'i oart-erazi nai lioke; bañan Benat'ek ez-entzun egiten.*) Bear bada, jaun onek ikusi zezakean.

TEREXA.—Galde-yozu berari.

BENAT (Itzultzen eta alegia harrিতua).—Yes!
Karmen!!

KARMEN.—*Ho, zu Benat? Zu hemen? Ez nuen ori uste zu hemen arrapatzea!*
(Eskuak tinkatzen dituzte.)

BENAT.—*Batere ez zira kanbiatu, Karmen,... Duela sei urthe bezain gazte eta fresko arrapatzen zitut!*

KARMEN (Harrotua, ezagun du ez dela bere buruaren jabe).—*Zu ere, orduko ber bera zira! Ahatik hola beztitua, nola ezagutu zu? Oas, orhoit zira? Nola hemen berean ginen, zu hemendik urrundu aintzin? Ba eta nik hitza atxiki nautzun gero! Espresuki zure adreza galdeginik, bietan izkiriatu nautzun, eta zuk, ez errespustarik ere egin!*

BENAT.—*Ha, gairoa! Zer uste duzu? Kaliforniako mendietan, letrek hemen bezala kurritzen dutela? Ori, orhoit niz elhur handi batzuz, negu guzia letrarik gabe egon baiginen! Fin ttipi bat hartuko duzia?*

KARMEN.—*Ba, berdin.*

BENAT.—*Terex, zerbitza dazkigutzu bi fin!*
(Terexak zerbitzatzen ditu.)

KARMEN.—*Nik uste, zuk zer nahi toki eder ikusi duzu! Izan zirea New-York-en eta San Francisco-n?*

BENAT.—*Ba, pasatu ba!*

KARMEN.—*Izigarrizko etxe handiak omen dira hiri horietan! Karrika guziak berri berriak, eta gaitzeko eletrikaz argituak! Otoak ere inuminia!*

BENAT.—*Ba, bada gauza ederrik hor gaindi!*

KARMEN.—*Han kasik presuna guziek omen dituzte beren otoak? Eta hanitzek, Buik horietarik. Egia dea?*

BENAT (*Itzultzen da, eta arritua, alegia*).—
Jes! Karmen!

KARMEN.—Oi! Zu, Benat? Zu emen? Ez nuan
uste zu emen arkitzerik.

(*Eskuak elkarri eman*)

BENAT.—Lengoxea zaude, Karmen. Orain sei
urte bezain gazte ta fresko arkitzen zaitut.

KARMEN (*Arrotua, ezagun du ez dala bere
buruaren jabe*).—Zu ere, ba, orduko ber bera
zaude. Bañan, ola jantzia nork ezagutu? Oroĩ-
tzen al zera, nola giñan emen bertan, zu emen-
dik joateko aurrean? Bai. eta nik itza eman
ere nizun, ain xuxen zure kartaen zuzenbidea
galdeturik; eta eskribitu ere bi aldiz egin ni-
zun, eta zuk ezta erantzunik egin ere.

BENAT.—Ah, gaxoa! Zer uste dezu? Kalifor-
niako mendietan kartak emen bezela ibiltzen
dirala? Ara: oroitzen naiz ederkitxo, elurte
aundi batzuek izan ziran aldi batean, negu
guztia kartarik gabe egon giñan. Kopatxo bat
artuko dezu?

KARMEN.—Bai, berdin.

BENAT.—Terexa, atera ezazkiguzu bi kopa-
txo.

(*Terexak atera*)

KARMEN.—Aizu, eta: toki eder asko ikusiko
zenituan? Izan al zera New-York-en eta San
Francisco-n?

BENAT.—Bai, pasa bai.

KARMEN.—Izugarritzko etxe aundiak omen
dira erri oyetan? Kale guztiak berri berriak;
eta elektrika ederrez argituak; autoak ere
erruz...

BENAT.—Bai; bada gauza ederrik bazarre-
tan!

KARMEN.—An ia danak bai omen dute beren
autoa. Eta askok *haiga* oyetakoa. Egia al da?

BENAT.—*Ba, han oto bat ukhaitia, hemen bizikleta bat ukhaitia bezala da. Zure osagarriari!* (Edaten dute.)

KARMEN.—*Ba, zure osagarriari! Eta airekoan, ez omen da phitsik senditzen, treinean baino gehiago, eta gain behera, xeheki ikus omen ditazke lur gaineko goiti behera guziak!*

BENAT.—*Ba, salbu lanok edo ilhuna direlarik!*

KARMEN.—*Oas!... Zer xantza izan duzun ahatik!... Nik uste, zer-nahi baduzu kondatzeko. Ha, zer plazerra nuken zure entzutea horien guzien kondatzen!... Zer xantza duzun hola kurriturik!... Maiz orhoitzen nintzan zutaz!... Egia gero: bethi, halako zerbait preferentzia bainuen zuretzat, bertze hemendik joanentzat ez nuena!*

BENAT.—*Plazer da jakitea, adixkide gordeak baditugula.*

KARMEN.—*Gure etxerat behar zinuke jin! Aita, ez da jalitzen erromatismekin... Lorian litake zure entzuteaz hango ixtorien kondatzen... Biziki maite ditu hango ixtorioak!*

BENAT.—*Mementoan, baditut zer-nahi bisita egiteko han direnen familietarat... Ez niz aise zuen etxeraino helduko!*

KARMEN.—*Ez zira, dudarik gabe, berriz Ameriketarat itzuliko?*

BENAT.—*Ez, ez,... Ene ohantzeaz pentsatzeko adina jina dut... Eta, hemen nahi nuke kokatu.*

KARMEN.—*Oas... Nik ere, ene geroari pentsatzeko ordu dut... Errazu, sarri balean izanen zirea?*

BENAT.—*Beharbada, itzuli bat eginen dut.*

BENAT.—Bai; eta an auto bat izatea, emen bizikleta bat izatea bezela da... Zure osasunerako! (*Edduten dute.*)

KARMEN.—Bai, zure osasunerako! Eta abioyeen ez omen da sentitzen ezer, trenean baño geyago; eta ikusi ere, ikusten omen dira lur gañeko gora-beera guztiak!

BENAT.—Bai, egun angì danean eta lañorik ez dagonean.

KARMEN.—Jes! Nolako suertea izan dezun, orratik! Makiña bat gauza izango dezu kontatzeko! Zer nolako atsegìña nukean nik ere, zuri entzutea, olako gauzak kontatzen! Nolako suertea izan dezun orrenbeste ibillirik. Maiz oroitzen nintzan zutaz. Egia gero! Beti, alako zerbait banuan nik zuretzat, beste emendik joandakoentzat ez nuana.

BENAT.—Atsegin da jakitea, adiskide ezkuak ere baditugula.

KARMEN.—Joan bear zenduke gure etxera. Aita ez da ateratzen, bere erreuma-aizearekin; eta poza izango luke zure kontuak entzutea. Biziki atsegin izaten ditu Ameriketako kontuak.

BENAT.—Oraingotz baditut beste bisita batzuek ere egin bearrak an daudenen etxe koentzat. Nekez elduko naiz, beraz zuen etxera.

KARMEN.—Etzera noski berriz joango Ameriketara?

BENAT.—Ez, ez. Nere kabitxoaz pentsatzeko urteak etorriak ditut; eta ementxe nai nuke egin "bertan goxo".

KARMEN.—Nik ere, ba, nere etonkizunari begiratzeko garaya badet oraintxe... Aizu ta, laister dantzan izango al zera?

BENAT.—Bear bada, agertu bat egingo det.

KARMEN.—*Lehen dantza, ene galdatzen dauztut!... Hitzemaiten duzia?... Errazu baietz! Nahi duzia hitz hartzea nun elgar aurkhituko dugun?*

BENAT.—*Hortaz jada hitz hartia niz norbatekin!*

KARMEN.—*Norekin?*

BENAT.—*Ene lagun beharrarekin. (edo Ene emazte-gaiarekin.)*

KARMEN (Basoa eskutik eskapatzen zako... Arrunt nahasten da).—*Zure, zure... (Ez daki gehiago zer erran.)*

BENAT.—*Baa,... Terexekin... Ez zinakina hau niela ene lagun gaia?*

KARMEN.—*Uf! Uf! (Bisaia xukatzen du.)*

BENAT.—*Zer duzu?... Ez zirea ontsa?*

KARMEN.—*Ez! Phitsik!... Ez dakit zer gertatzen zautan!... Edaria bururat joan zaut... Ho... Joaiten niz hemendik!... Uf! Uf! Agur... agur... (Jalitzen da.)*

BENAT (Irriz).—*Gaizo neska! Orhoitzeko ahalgea izanen du ori, horrek!*

TEREX (Irriz).—*Aitaren bisita, sarriko bala eta gaineratekoak sartu dazkotzu zuk!*

BENAT.—*Ardi sobera sarkariek noizean behinka othe mulko bat muthurrerat on dute.*

TEREX.—*Badut uste zuretzat zuen sukharra, irtant batentzat hoztu diozun!*

VI

MENTABERRY, BENAT, BATTITTA

MENTABERRY (Agertuz).—*To... Azkenean bakarrik utzi hute... Nindagoian luzaz emazte errezebitzen ariko hintzanez!*

KARMEN.—Lenengo dantza-aldia neretzat eskatzen dizut. Itz emango al didazu? Esazu baitez! Nai al dezu nik esatea alkar nun arkituko degun?

BENAT.—Gauza ortaz, lendik itz-artua naiz norbaitekin.

KARMEN.—Norekin?

BENAT.—Nere lagun-bearrarekin (edo Nere emazte-gayarekin).

KARMEN (*Basoa eskutik erortzen zayo. Oso naasten da*).—Zure, zure... (*Ez daki zer esan.*)

BENAT.—Bai, bai; Terexa'rekin... Ez al zene-kian au nuala nere emazte-gaya?

KARMEN.—Puf, puf! (*Aurpegia igurtziaz*)

BENAT.—Zer dezu?... Ez al zaude ondo?

KARMEN.—Ez da ezer. Ez dakit zer dedan... Edaria burura igo zait nunbait. Oh, banua emendik! Puf! Puf! Agur... Agur... (*Irteten da.*)

BENAT (*Farrez*).—Neska gajoa! Aztuko etzayon lotsa artu du oraintxe!

TEREXA (*Farrez*).—Aitaren bisita, eta laisterreko dantza aldia eta gañerako berriketak, ondotxo aztuerazi dizkiozu oraingoan.

BENAT.—Ardi mutur-sarkariak, noizean belnka ote-mordo bat muturrera ematea, on izaten dute.

TEREXA.—Zuretzako zeukan sukarra, ederki oztuko zitzayon gaur.

VI

BENTABERRI, BENAT, BATISTA

BENTABERRI (*Agertuaz*).—To! Alare, azke-nean bakarrik utzi aute. Uste nian, uste, oraindik ere luzaroan emakume bisitariakin egongo intzala.

BENAT.—Ameriketarik itzuli anitzek, hemengoek baino, gisa hortako, lan gehiago omen dute... *Hola zena zure denboran ere?*

MENTABERRY (Irriz).—*Ba, bazukek ho'hola zen!... Errak, orai jina bai hiz, pentsatzen diat ez hizala Ameriketarat joatearen kontra mintzatuko?*

BENAT.—*Zendako galdatzen dautazu hori?*

MENTABERRY.—*Egia erran... Ene irabazpi-deen gatik ere... Zonbait, Amerikaz arras hitski mintzatu izan dituk... Eta, izan ditiat hila-betheak, nehor ez baitzian gehiago harat deli-beratzen.*

BENAT.—*Zer kondatu izan dute Amerikaz?*

MENTABERRY.—*To... Nehork nahi ez dituzten ofizio errefusetan, han Eskualdunak ar-arazten dituztela... Batzu, bortxaz, soldado ere altxatu dituztela. Badirela miseria gorrienean badaudenak, etsimenduz beren burua garbitu dutenak ere... Holako, to!*

BENAT.—*Horietan egiak ere badira, bainan gauzak ez goragotik jujatzea, alderdikaria izaitea da!*

MENTABERRY.—*Hortakotz, hi baitan kondatzen diat, gauzen haxean ezartzeko eta lan ong egiten badautak, ez hut ahantziko ene irabazietan!*

BENAT.—*O, Mentaberry, gisa hortako afere-tan, ez dut, zu ganik, hartzekorik nahi!... Ez konda, nik nehor, edo berotuko dudala Ameriketarat, edo harat joaitetik, gibelatuko dudala!... Xehetasun galdatzaileri, xehetasun egi-egiak emanen dazkotet, gero jakinean, bako-txak hauta dezala bere bidea!*

MENTABERRY.—*Ene ofizioa ez zauka zerbitzu on bat hanitz eskualdun gazteentzat?*

BENAT.—*Zure ofizioa, Mentaberry jauna, ba-*

BENAT.—Ameriketatik etorri berriak, gai ortan emengoak baño lan geyago izan oi omen dute... Ola al zan zuen denboran ere?

BENTABERRI (*Farrez*).—Baleitekek, bai, orduan ere ola zala... Aizak eta, Ameriketatik ola etorri eta, ez aiz noski Ameriketara joatearen kontra mintzatuko...

BENAT.—Zergatik galdetzen didazu ori?

BENTABERRI.—Egia esan, nere irabaziengatik ere bai, pixka bat. Zenbaitzuek Ameriketaz oso illun mintzatu izan dituk... Eta izan dizkiat zenbait illabete, iñortxo ere arako berotzen etzanik.

BENAT.—Zer esan dute, ba, Ameriketaz?

BENTABERRI.—An iñork nai ez dituan ofiziotan jartzen dituztela euskaldunak; batzuek indarrean soldado ere eraman dituztela; badirala miseri ta bear gorrian bizi diranak; baita etsimen txarrez beren buruak il dituztenak ere. Eta olakoxeak.

BENAT.—Guzti ortan egiak ere badira; bafian gauzak goragotik artu bear dira, zuzen juzkatuko badira.

BENTABERRI.—Orduan, lagun izango aut gauzak bere lekuan ipintzen; eta ondo lan egiten badidak, gogoan izango aut irabazietan.

BENAT.—Ez, Bentaberri, ez; olako zer-egifietan ez det zugandik artzekorik izan nai. Ez pentsa, nik iñor, edo-ta berotuko dedanik Ameriketara joateko, edo-ta oztuko ara joan ez dedin. Galdetzen didatenei, xeetasun guztiak eman bai, bakoitzak jakifñaren gañean bere bidea autatu dezan. Orixe da nik egingo dedana.

BENTABERRI.—Nere ofizio ta zer-egifñ au, ez al deritzaik protxugarri euskaldun askorentzat?

BENAT.—Zure ofizioa, Bentaberri jauna, ba-

tzuentzat altxagarri, eta bertzeentzat galgarri!

BATTITTA (Agertuz).—*Agur, jaunak!*

MENTABERRY eta BENAT.—*Agur, Battitta!*

BATTITTA (Benati).—*Gure trixte hartaz, zer berri ekhartzen dautak?... Egia nahi diat jakin!... Egia duka herresta bat bilhakatua dela?*

BENAT.—*Egia, da!*

BATTITTA.—*Zapeta ziratzetik bizi dela?*

BENAT.—*Egia da.*

BATTITTA.—*Bon, aski badiat ikasirik... (Mentaberryri idorki) Ean?... Nun gira orai? Nun dira zure, haren partiadako agintza eta espan-tuak?*

MENTABERRY.—*Hau, eta hura, biak betan urrundu dira... Hunek egin duena, harek ere egin zizaken! Ez da ene falta ahula agertu bada.*

BATTITTA.—*Aberastu ba, aberastu... Ez dira ez harat joaiten direnak aberasten... bainan, harat gazte horien igortzale trafikantak!*

MENTABERRY.—*Ene ofizioa, ez da trafiku bat. Lan zuzen bat da!*

BATTITTA.—*Trafiku bat, ba, Mentaberry... Eta trafikutan hitsena: jenden trafikua... Han, Amerikano handi-mandi batzu, eskualdun haragi eske, eta zu, heien\ fornitzale!*

MENTABERRY.—*Ori! Hola estimatzen baduzu Amerikanoek Eskualduneri egiten dioten fagorea!*

BATTITTA.—*Fagoratu nahi bagituzte, jin ditela Amerikano handi hek gutarterat, eta lan-tegiak, hemen berean munta ditzatela gure gazteentzat.*

MENTABERRY.—*Aski diozute bereri galdatzea hola egin dezaten... Beharbada obeituko zizutete!*

tzuentzat altxagarri eta besteentzat galgarri!

BATISTA (*Agertuaz*).—Agur, jaunak!

BENTABERRI eta BENAT.—Agur, Batista!

BATISTA (*Benat'i*).—Gure seme gizagajo artaz, zer berri dakarkidak? Egia jakin nai diat!... Egia al da lur jota dagola?

BENAT.—Egia da!

BATISTA.—Zapata garbitzetik bizi dala?

BENAT.—Egia da!

BATISTA.—Baiki! Asko diat... (*Bentaberriri*)
Bentaberri: Nun gera orain? Nun dira aren joaterako agintza ta fantasiak?

BENTABERRI.—Ura eta au, biak batean joan ziran. Onek egin duana, arek ere egin zeza-kean. Ez da nere falta, argala agertu bada.

BATISTA.—Aberastu, aberastu,... Ez dira, ara joaten diranak aberasten; ayek ara bidali ta emen gelditzen diranak, aberasten dira. Trafikanteak, zuek!

BENTABERRI.—Nere ofizioa ez da trafikku bat. Lan zuzen bat da.

BATISTA.—Trafikku bat, bai, Bentaberri,... Eta trafikuetan itxusiena: giza-trafikua. An, Amerikano aundi-mandi batzuek euskaldun aragi-eske, eta zu ayen ornitzalle.

BENTABERRI.—Ederki estimatzen dezu zuk, Amerikanoak euskaldunai egiten dieten mese-dea!

BATISTA.—Mesede egin nai badigute, etorri ditezela Amerikano jaun ayek gure errira, eta ezarri ditzatela emen bertan lantegiak gure gazteentzat.

BENTABERRI.—Bera eskatzea dezute ori... Eskatu, eskatu,... Bear bada, adituko dizute.

BATTITTA.—Gure tokia Amerikak husten ari du, eta eskualdunak betetzen... Ixtantean arrotz dirudunek Eskual-Herria ezarriko dute eskualdunik gabe!

MENTABERRY.—Prediku ederra da: Eskual-Herria eskualdunentzat, bainan, dakizun bezala, Battitta, diruduna ez da predikuaren muthil, bainan intresaren.

BATTITTA.—Ba, eta zu, dirudunekin hortan phartzuer. Zu zakur handien zakur!

MENTABERRY.—Bakotxa bere buruaren jabe da, nahi duen bizi-moldeari lot.

BATTITTA.—Hum! Hala zen harat galtzerat igorri duzun hura ere... Maluruski, hala zen... (Urruntzen da.)

MENTABERRY.—Hauxe da gizon horren jazar-kundea! Bizkitartean, ez dut nehorri bortxarik egiten! Egin-azue ongia! Horra mileskerra! (Espaldak altxatuta, ostatuan sartzen da.)

VII

TEREX, BENAT

(Ixtant bat ixilik)

TEREX.—Ez duzi iduri denak gogo bereko zireztela Amerikaz! Zuk, zer pentsatzen duzu?... Amerika gazteen galtzeko ala ontzeko dela?

BENAT.—Terex gaixoa, gaztea landare bat bezala da. Landare azkarra desterra ditake eta lur arrotzean sar... Azkarra delakotz, lur arrotzean ere, berdin ontsa emanen du... Landare ahula berritz, hobe da ez desterratzea. Bere sort-lurrerik kanpo, ez baitu deus onik emanen! Halaber eskualdun gazte funtsezko azkarak, edozoin arrotzekin ere ontsa emanen da.

BATISTA.—Euskalerrria Amerika'k ustutzen ari du. Laister amerikano dirudun oyek Euskalerrria euskaldunik gabe utziko dute.

BENTABERRI.—Prediku ederra: "Euskalerrria euskaldunentzat"; bañan badakizu, Batista, diruduna ez da predikuaren morroi, interesaren morroi baizik.

BATISTA.—Bai, eta zu ortan dirudunekin zozio; zu, zakur aundien txakur.

BENTABERRI.—Bakoitza bere buruaren jabe da, nai duan bizi-moduari eltzeko.

BATISTA.—Hum! Ala zan, ara bere burua galtzera bidali zenduan gure gizagajo ura ere. Zorritzarrez, ala zan... (*Kanpora dijoa.*)

BENTABERRI.—Eraso ederra, gizon orrek eraso diguna! Bañan nik inor indarrean eraman al det ba? Egiezute on! Orra zer milla eskerak! (*Sorbaldak altxatuta ostatuan sarizenda.*)

VII

TEREXA, BENAT

(*Une batean ixilik*)

TEREXA.—Etzerate danok iritzi berekoak Amerika'ri buruz. Zuk zer derizkiozu? Ameriketa gazteen galtzeko ala ontzeko dala?

BENAT.—Terexa gaxoa: gaztea, landare bat bezela da. Landare azkarra lurrez aldatu diteke eta lur arrotzean sartu. Azkarra dalako, lur arrotzean ere ondo emango du... Landare argala, ordea, obe da ez lurrez aldatzea. Bere sort-lurretik kanpora ez bait-du ezer onik emango. Ala berean, euskaldun gazte azkarrak, edozein errialde arrotzetan ere ongi emango du. Bañan

Gazte funts gabe ahula aldiz, Eskual-Herrian jada guti izanen da-eta, Euskal-Herriatik kanpo bat ere ez!

TEREX.—*Eta zu, hango itzuliaz kontent zirea?*

BENAT.—*Ha, ez dut urriki han gaindi ibilirik... Ikusirik, anitz ikasi dut... Ahatik, behin, bainan ez bietan. Ez eni, berritz harat joaite-rik aipha! Nik desiratu Amerika, ene bizi ondarrekotz, hemen da: Ene sort-herria, bere zeru ta mendixka airosekin, bere etxe txuri, bere erreka garbi, phentze ta oihan ederrekin,... Eta horien erdian, zu, Terex! (Eskua luzatzen dio.)*

OYHALA

euskaldun aul eta argalak, Euskalerrian bertan gutxi emango du; eta Euskalerritik kanpora, ezer ez.

TEREXA.—Eta orain zu, ango joan-etorriaz pozik al zera ala damu dezu?

BENAT.—Ez det damu, andik zear ibillia... Ikusita, asko ikasi det. Orratik, bein bakarrik; ez bitan. Ez aipatu neri berriz ara joaterik. Nik, emendik eta nere denbora guztirako nai dedan Amerika, emen dago: nere sort-erria, bere zeru ta mendiekin, bere etxe txuri, erreka garbi, belatz ta baso ederrekin... Eta oyen guztien erdian, zu, Terexa!

OYALA

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

- 1.—*R. Artola*
SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso
asko.
- 2.—*M. Soroa*
GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU
- 3.—*P. Apalategui, S. J.*
EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
- 4.—*Pepe Artola*
USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso
asko.
- 5.—*P. M. Urruzuno*
EUSKALERRITIK ZERURA ta beste ipui
batzuk.
- 6.—*Toribio Alzaga Anabitarte*
RAMUNTXXO

- 7.—*Ramos Azkarate*
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—*Antero Apaolaza*
PATXIKO TXERREN. (Nobela).
- 9.—*Bitoriano Iraola Aristiguieta*
OROITZAK ta beste ipui asko.
- 10.—*Bertsolariak*
ERREGE EGUNEKO BERTSO-SAYOA (1962)
- 11.—*Piarres Larzabal*
BORDAXURI
- 12.—*Bilintx*
BERTSO TA LAN GUZIAK.
- 13.—*Mariano Izeta*
DIRUA GALGARRI
- 14.—*Parres Larzabal*
IRU ZIREN
- 15.—*Bertsolariak*
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK
- 16.—*Alfonso M.º Zabala*
GABON GAU BAT ETA BESTE IPUI ASKO

